



ttipi-ttapa



EGUBERRIAK / 15



JUANTXO EGAÑA

Mattin Aiestaran
iruritarra Irulegiko
aztarnategiko
zuzendaria da / 12



Sunbillako Isabel
Inda Arregik
103 urte
bete ditu / 38



Maria Feo leitzarra
Espainiako zailtasun
eskaladan
hirugarren / 45

SINADURAK



KORO
IRAZOKI
ARBURUA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



JOSEBA
URROTZ
TELLETXEA / 4



MAIALEN
SOBRINO
LOPEZ / 4



Donato LARRETXEIA | Arantzako aizkolaria

«AIZKORARI ESKERRAK
EZAGUTU DUT KANPOKO BERRI»

Larunbat honetan, abenduaren 3an, omenaldia egingen diote
sorterrian, Arantzana. 18 urte zituenetik dabil aizkora eta egin
duen ibilbideaz eta urteotan bizitakoaz aritu da. / 8

3.676 lagun Euskaraldian

Ortzirale honetan bukatuko da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. / 41



TIRIKITRAUKI EUSKAL JANTZIETAN AUKERA HAUNDIA

Zuloaga Kalea 16, 20280 HONDARRIBIA

Tel.: 943 644 270

emaila: denda@euskaljantziak.com

www.euskaljantziak.com



**TRIKITIXA eta ESKU-SOINUEN,
SALMENTA eta ALOKAIRUA.**

**DISEINU EZBERDINETAKO
PANDEROEN SALMENTA.**



Oria etorbidea 10 | 20160 LASARTE

Tel.: 943 372 817

emaila: tirikitrauki@tirikitrauki.com

BERA LESAKA

Agenda 2022

ABENDUA



www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus



LESAKAKO
UDALA

ERAKUSKETA
OIER IRURETAGOENA ETA
GABRIELE MUGURUZA

IREKIA ABENDUAREN 18RA ARTE

16:00-20:00: Larunbat eta igandeetan

Antolatzailea: Labiaga ikastola **BERA**

ANTZERKIA
KEINU LEIHOAK ANTZERKI
JARDUNALDIA 2022

ABENDUAK 2, 10 ETA 17

Antolatzailea: Mairu Antzerki Taldea **LESAKA**

2

ORTZIRALGA

SOLASALDIA
USCALDUNAC
GAREN EZQUERO
2022

Jose Mari Ezkerra. XIX. mendeko
bertsolariaren misterioa (Hizlariak:
Joxan Elsoegi eta Aitor Errazkin)

18:00: Beralandetan

Antolatzailea: Bortzirietako Eskola
Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

BERA

3

LAGUNBATA

KONTZERTUA
NAFARROA
EGUNEKO
KONTZERTUA

12:00: Toroteko San Martin Parrokian

LESAKA

4

IGANDEA

LESAKAKO
ZERBITZUEN
ELKARTEAREN
AZOKA

LESAKA

4

IGANDEA

BISITA GIDATUA
LESAKAKO ROQUES
ORGANOAREN
LAGUNAK

18:00

LESAKA

LAGUNBATA

10

LAGUNBATA

10:30-13:30: Beralandetan

BERA

10

LAGUNBATA

LESAKA

BERA

BORTZIRIETAKO
BERTSO ESKOLA
TALDEKO
LEHIAKETA

Antolatzailea: Bortzirietako bertso eskola
Laguntzaileak: Berako eta Lesakako udala

ENTZUNALDIAK
ISIDORO FAGOAGA

ABENDUAK 15, 19 eta 20

GITARRA, PIANO ETA BIOLIN

ABENDUAK 21 EGUERRIETAKO

KONTZERTUA

LESAKA

14

ASTEAZKENA

LIBURU
AURKEZPENA
PIO BAROJA, EL
HOMBRE QUE
VINO DEL MAR

JOSÉ ANDRÉS, ÁLVARO OCARIZ & MARÍA
MERCEDES, MARTA ABREU (GAZTELANIAZ)

18:00 Herri liburutegian

BERA

18

IGANDEA

AZOKA
ARGITU
ARTISAU AZOKA

LESAKA

18

IGANDEA

KONTZERTUA
LESAKAKO
ABESBATZAREN
KONTZERTUA

12:00 Elizan

LESAKA

21

ASTEAZKENA

EGUBERRIETAKO
KONTZERTUA
LESAKAKO MUSIKA
ESKOLA

Herrindoko Kultur Erria

LESAKA



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Negua joan da ta...

Zuek abendu hasieran irakurtzen ari zarete hau, baina ni azaro erdialdean idazten ari naiz. Udazkena da, negurako hilabete pasatxo falta da, baina oraindik udako giroan gaude: epel, mauka motzez, sandaliak berriki arte, 18 graduko gau tropikalak, mendi berde-berdeak, erreka idorrak... Baina zer da hau? Zer errespetu ttikia udazkenari! Eta negua? Nola etorriko zaigu negua? Behar den bezalako ilun, hotz eta bustia? Ikusiko ote dugu elurrik? Kraskatuko ote dugu hormarik? Aiiii, esperantza guti... Lehengo neguak gogorak omen ziren.

Kantak hala dio: «Elurra teilatuan zakua lepuan ibili beharko degu aurtengo neguan...». Bertze kanta batek ere abisatzen du noiz ailegatuko den negua: «San Simon eta San Judas, joan zen uda eta negua heldu da...».

Xabier Lete neguaren hotzaz ari zaigu: «Ni naiz neguko eguzkitan hotzez hiltzen dagoen gizon bakartia». Lehengoek bazuten neguari buruzko segurtasuna. Guk, berriz, ingurumena erotu dugu, eta erreferentziarik gabe gelditu gara. Beldur naiz behar den bezalako negua ez ote dugun betiko galduta. Zea Maysek kantatzen duen bezala, «negua joan da ta».

**«BELDUR NAIZ
BEHAR BEZALAKO
NEGUA EZ OTE
DUGUN GALDUA»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Sorioneku

Albaceteko Rozalen abeslariak *Urepeleko artzaina* euskaraz kantatu eta segidan eta Euskaraldiaren atarian eman dute Irulegiko *sorioneku* brontzezko eskuaren berri. Sare sozialetako adituek garbi utzi dute duela 2.100 urteko lehen hitz horren egilea ondarrutarra zela, baina zalantza airean da: Nork kristok idatzi zituen ondoko hiru lerroetako solasak?

NABARMENTZEKOAK



MIRARI
ETXEPARE
ZIENTZIALARIA



MATTIN
AIESTARAN
ARKEOLOGOA

Biriketako minbiziaren aurkako tratamenduan ikerkuntza garrantzitsua egin du Nafarroako Unibertsitateko Cima ikerketa gunean doktoretza tesia egiten ari den Mirari Etxepare beratarak.

Irulegiko eskua aurkitu duten Irulegiko aztarnategiaren arduraduna da Mattin Aiestaran iruritarra. 2018tik da bertako zuzendaria, eta doktoretza tesia ere egiten ari da bertan.

GIBELERA BEGIRA



2012-11-29 · TTIPI-TTAPA · 579 zk.

Goizuetako antzerki taldea gogoan

1962ko abuztuaren 19an, frankismo bete-betean, *Aberatsak olaxe* izeneko antzerkia taularatu zuten Goizuetako bederatzir herritarrek, herriko apaiza, Saturnino Mujika zuzendari zutela. Eta hori oroitarazi zuten duela 10 urte herrian, 50 urte lehenago antzerkia egin zutenak omendu baitzituzten azaroaren 3an. «Berrogeita hamar urteren buruan ez genuen espero. Frankismo garaian egin genuenaz norbait gogoratu izana oso polita izan da. Ikaragarritzko poza eman ziguten eta taldekide guztiak oso gustura gaude», kontatu zion Milagros Narbarte TTIPI-TTAPAri. Omenaldiaz gain, antzerkiaren inguruko erakusketa ere antolatu zuten: «Pena zen gazteek ez jakitea orduan egiten zen lana nola egiten zen eta zertarako egiten zen».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen lantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreka Zerbizuen Mankomunitatea.

2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Iparraldeko Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€



KOLABORAZIOAK

JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Utopiak utopia

Hara non, nire hitzek erantzuna jaso duten. Mikel Sagastibeltza irmoki zuzendu zen niregana, eta gauza polita ere iduritu zait gertakizuna, Mikelen lekuan orain dela 30 urte ni neu izan baininteeen.

Nire maiatzeko idatzia eta erantzuna ikusiz, ohartua naiz presesi nire burutazio hartan nioena gertatu dela, zeinean zaharrago batek (nire amatxi kasu hartan) zioenari zuzenketak egiten zizkion gazteagoak, zaharrago hura nonbait okertua zelakoan. Hala ere, ez naiz ausartuko nik arrazoia dudarik erratera.

Nik ere berak bezala utopia posible zela sinesten nuen gartzaroan, uste nuen utopian sinesteari utzi zioten ni baino zaharrago haiek horretara ailegatu zirela ametsei uko egin zietelako edo ezjakinak zirelako. Nik ez nion utopiari uko egingen, nik bai jakinen nuen nola ekin. Gaztetasunaren harrokeria, jakinduria ez baitute eskolako ikasketek edo buruko ametsek ematen, eguneroko bizitzak baizik. Ez nolanahiko eguneroko bizitzak, ordea, bizian egiten dugun ibilbide honetan ikusitakoak eta ikasitakoak baizik. *Ikusi, ikasi, eta ondo entzuten* badugu (Delirium Tremens taldeak zioen bezala), ohartuko gara, topikoa badirudi ere, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago dugula ikasteko eta galdetzeko.

«JAKINDURIA EZ DUTE IKASKETEK EDO AMETSEK EMATEN...»

Beharbada nik ez dakit zer den komunismoa, ez baitut ezta Marx ete Hengel-en *Adierazpen komunista* ere leitu, eta berriz diot, nik bezala karrikan galdetu diezaiokezun edozeinek ere ez. Beharbada ez dakit zein den komunismo

gaurkotuaren ildoan, baina gauza bat dut garbi ni ere utopiaren ametsetan ibili eta gero: ez dut gogoko diseinatutako gizarte bat ezartzearen ideia, ez zait axola nork, langileak, alperrak edo jauntxoak. Zer egingen dute «langileek» nik ez badut gogoko haiek ezarri nahi duten utopia? Nor dira langileak? Ni autonomoa naiz, zer naiz langilea edo jauntxoa?

Orain baino mugimendu jendetsuagoetan ibilia naiz ni ere, intsumisioa, gaztetxeak, independentzia. Eta orain zer? Hor ibili ginenak eta orain 50 edo 70 urte ditugunak, azkenean denek dituzten arazo eta poz berak ditugu: osasun, harreman, edo diru arazoak, heriotzari beldurra, edo lagunarte eta familiak ematen dituen pozak, etxe goxo batenak, ibilaldi atsegin baten lasaitasuna, edo gure barrenean bakea sentitzea.

Mikelek bi zakuetak batean sartu nau, ni ezagutu gabe (horixe du gu idealismoaren harrokeria, ni lehenbizikoa horretan), zeinetan naizen zehaztu ez badu ere, etikarik gabekoenean edo ezjakinenean. Nik ere uste dut bi motako gizakiak garela, alegia, bizian urteak pasatuta ere, gauzak berdin ikusten dituenak, eta bertzalde bidaian aitzinera egin ahala, perspektiba eta ikasketak zabaltzen dituenak.

Hala ere, hirekin solastatzeko prest, alkoholik gabeko utopian sinesten dutenak uzten nauten bitartean, nik kapitalismoari esker eskuratutako Cardenal Mendoza brandy batekin eta hik nahi dukeenakin.



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Euskaldunen (t)estamentuak

«Sentitu al duzu inoiz konplexurik euskaraz hitz egiterakoan?» hori izan zen Euskal Herri luze eta zabaleko lagun mordoxka bati luzatu nion galdera. Segidan aletuko ditut erantzunak, hitzez hitz, eta, izanak ez bezala, izenak asmatu ditut, badaezpada. Hemendik aitzina irudikatu, faborez, nork gorpuzten dituen zuen inguru hurbilean aipuok.

Aurorak bota zidan: «Orain ez dut inolako konplexurik izaten, baina txikitan hainbat iseka jasaten genuen baserritar euskaldunok eta txarto sentitzen ginen». Horra gure amama, amona edo amatxien ahotsa, nahiz eta maiz isilduta egon oraindik, aunitzek ez baitugu osatu gure biografia linguistikoa. Euskaldunegiak ziren garai hartako Aurorak, batzuen begietan. Eta ederra da, oztopoak oztopo, euskarari eutsi zioten amatxiak goraiatzeara, baina ez ditzagun bertze guztiak atzendu. Are gehiago, ez ditzagun errudun egin euskararen errepresio sistema horren guztiaren biktimak.

Agate ere ez omen da ongi sentitzen batzuetan: «Konplexu, konplexu bezala, nik ulertzen dudak moduan ez, zeren eta, alderantziz, ematen dit harrotasun puntu bat erdaldunekin solastatzen naizelarik eta euskaraz egiten ahal dudalarik. Euskalkien inguruko harrotasun puntu hori. Baina egia da beti segurtasun falta sentitu dudala ahozketasunean baliabide

«SENTITU AL DUZU INOIZ KONPLEXURIK EUSKARAZ HITZ EGITERAKOAN?»

guttiago ditudalako, edo erdarara jotzeko joera hainbat gaitan». Pentsa Agateren amatxi Aurora dela. Hara non, bi belaunaldiren bueltan, Agate ez den aski euskalduna batzuen begietan.

Eta euskalkirik gabekoak?

Horiek bai bigarren edo hirugarren mailako euskaldunak! Leirek hala bizi du, behinik behin: «Nik ere konplexua izan dut euskalkietan hitz egiten dutenen aurrean hitz egiterakoan. Izan dut eta badut. Askotan euren burua ni baino euskaldunagotzat izatearen jarrera 'ezkutua' dutelako edota nik hori nolabait barneratuta dudalako».

Horrez gain, Maitanek: «Euskara batua euskaldun berriekin edo euskara 'ortopedikoarekin' (literalki esan didate) lotzen dute oraindik ere askok, zoritxarrez. Gure euskara ez da berezkoa, naturala, gurea asmatua da, eta askorentzat ez da polita. Bestetik, betikoa: hemengoa izateko ondo egiten duzu euskaraz, seguru guraso euskaldun peto-petoak dituzula. Aurreiritzi horiek euskaraz hitz egiteko konplexua sortzen dute». Zenbat kategoria euskaldunen arteko botere-harremanak eraikitzeko: euskaldun-euskaldunak, kastakoak, peto-petoak, jatorrak...

Kontrako eztarritik joan zaigula euskalduntasuna, Uxue, hori da dena, funtsean: «Euskaldunak publikoak dira –begiratuak, epaituak, esanguratsuak– eta haien errepresentazioa etengabeko negoziazio semiotikoaren emaitza da. Askotarikoak izan arren –neurritz, estiloz, esanguraz–, euskaldunak euskaldun generikoarekin aritzen dira elkarriketan (haren historiarekin eta etorkizunarekin) inguruko euskaldun errealekin adina».

11 GALDERA LABUR

ANDONI IRIBARREN INDABURU ETXALARKO GAZTEA

«Musika egiteko eta ongi pasatzeko elkartzeko gara»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Zaila da norberak bere burua definitzea. Pertsona arrunta naiz, nire alde on eta txarrekin.

Zein dira zure zaletasunak?

Pilotan jokatzeko, bizikletan ibiltzea, musika, motorsport mundua... eta bertze hainbat.

Noiz hasi zinen bizikletarekin BMX egiten?

Herrian titikatik ibili izan gara bizikletarekin saltoka, eta institutura joatean inguruko herrietako gazteek BMX egiten zutela ikustean atentzioa eman zidan. Orduan pixkanaka praktikatzen hasi nintzen lagunekin, gaur arte.

Zer da BMXa zehazki?

Funtsean, bizikletarekin saltoka ibiltzeko lasterketak, skateparkean, karrikan edo

lurrezko pistetan. Batzuek saltoekin batera trukoak ere egiten dituzte, bertzeek salto hutsekin gozatzen dute... modu aunitz daude kirola hau egiteko.

Zaletasun hutsa da?

Bai, ez dut sekula lehiaketa batean parte hartu eta ez dut uste horretarako balio dudarik. Nire kontura ibiltzea gustatzen zait, bakarrik edo bertze norbaitekin.

Bateria jotzailea zara, ezta?

Bai, duela 13 urte inguru hasi nintzen Berako musika eskolan klaseak hartzen eta gero nire kontura.

Eta musika talde bat sortu duzue herrian?

Hala da, bai. Duela pare bat urte herriko lagun batzuen artean musika egiteko gogo



sortu zen eta entsegu batzuk egiten hasi ginen. Taldekideak Oier eta Markel Iturria, Eñaut Iparragirre, Unai Arburua eta ni gara. Momentuz ez dugu izenik, noizbehinka elkartu eta ongi pasatzeko bertzerik ez baita.

Zein musika mota jotzen duzue?

Talde ezagunen bertsioak, rocka eta punka, baita heavy metal pizar bat ere. Gure kanta batzuk ere sortu ditugu.

Herriko bestetan estreinakoz jo zenuten...

Bai, eta kristoren esperientzia izan zen. Bat-bateko gauza izan zen eta bizpahiru kanta prestatu genituen, baina jende dezente agertu zen eta giro polita sortu zen. Gau polita izan zen. Hurrengo kontzertua heldu den urteko bestetan egiteko asmoa dugu, edo lehenago, akaso.

Zure asmoak epe motzera?

Neure buruarekin eta hurbilekoekin kontent bizitzea.

Eta epe luzera?

Denborak erranen du.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Berako San Jose egoitzak duen egoerari buruz

EDURNE GARRO

SAN JOSE ASILO FUNDAZIOAREN IZENEAN

Jaun-andere agurgarriak:

Eskutitz honek duen helburu bakarra gaur egun Berako San Jose Egoitza Fundazioaren egoera zein den zuei jakinaraztea da. Irabazi asmorik gabeko zentro pribatu honek 1996. urtean zabaldu zituen bere ateak eta orduz geroztik hurbileko adineko pertsonak zaindu ditugu. Gaur egun, 40 gizaseme egoiliar ditugu eta bertze bi gehiago eguneko zentroan. Arestian aipaturiko 42 pertsona horiek bakar-bakarrak dira Nafarroako Gobernuaren laguntza dutenak euren kuotak ordaindu ahal izateko. Bertzalde, Fundazioak berak Berako Udalaren laguntza ekonomiko ttiki bat hartzen du ez baikara haren mendekoak.

Denok ederki dakigun bezala, hagitz une latzak pasatu behar izan ditugu pandemia dela-eta, eta horren ondorioz, gure egoera ekonomikoa txarra baino txarragoa da eta gainera, kezkagarria egun ezin baititugu egoitzak dituen behar guztiak ase: komunak birgaitu, ateak aldatu, armairuak berritu, margoketa lanak, edota bainugela geriatrikoak errate baterakoz. Lan horiek guztiak nahitaez egin behar ditugu.

Hori guztia dela eta, San Jose Fundazioak banketxeko kontua ireki egin du dirua biltzeko eta lehen aipaturiko behar horiek guztiak ahalik eta agudoen asetzeko, hori baita bide bakarra gure ataxi eta amatxiei ematen diegun zerbitzua ahalik eta onena izateko.

Aitzinetik zuen laguntza eskertu nahi dugu.

- LABORAL KUTXA ES22 3035 0135 92 1350019245
- Bizum: Donazioa: Kodea: 06329 Fundazioa Hospital Asilo San Jose

Egindako ekarpenak Fundazio bati eginikoak direnez, aitortpenen emandakoaren % 25 itzultzen da.

BOTA BERTSOA



ETXAHUN AZKARRAGA FERNANDEZ
ETXALARKO BERTSOLARIA

Joan zaigun usoa

Doinua: Ai zer plazera bost urten buruan

*Arrontin uso gutti heldu da
ere aurtengo urtian
Ta heldu direnak sobera goiti
edota multzo handian
«guk tenporada txarra dugula»
esaten nola ai dian
ta hemen oraindik dadukagula
humedadea begian
ze falta triste ta haundigoa
daukagu usategian.*

*Uso zintzo bat joan egin da
bertzin artian bakarra
txiste kontari ibili ohi zen
txabola hartan barra-barra
beti izan zuen giro tristea
alegratzeko beharra
Nahiz bere istorio osoa ezin dit
bi bertso soiletan narra
han goian beti oroituko haugu
Jesus Ma(r)j Murdene zaharra.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Burutu' ez da 'egin'

Adiera bat baino gehiago du *burutu* aditzak, baina ez da ohikoa gertatu edo eginen sinonimo izatea. *Burutu* aditza *amaitu/bukatu* edo *azkenearaino egin* aditzen sinonimoa da.

-Garaiz burutu du lana (Garaiz bukatu du lana)

-Ekainean hasia eta urrian burutua (Ekainean hasia eta urrian bukatua).

Baina erne adibide hauetan:


-**Hiruhileko honetan sei bilera burutuko ditugu* > Hiruhileko honetan sei bilera eginen ditugu.

-**Oraintxe bertan burutzen ari diren ekintzak...* > Oraintxe bertan gertatzen/egiten ari diren ekintzak...

-**Partida bikaina burutu du Iker Salaberriak* > Partida bikaina egin du Iker Salaberriak.

Hieroglifikoa

Iskanbila, eztabaida...



Zein da zuzena

'Joan behar dut' ala 'joan behar naiz'?

Euskaltzaindiak dioen bezala, *behar izan* aditza aditz laguntzaile iragankor gisa jokutzen da, hau da, NORK-NORK edo NOR-NORI-NORK aditz batekin jokatu behar da: *joan behar dut*, *etorri behar duzu*... Hala ere, zenbait euskalkitan, Iparraldekoetan batez ere, *behar izan* aditzak izan laguntzailea har dezake aditz iragangaitzekin, hau da, NOR aditzak ere erabiltzen ahal direla. Hortaz, *joan behar naiz*, *etorri behar zara*... ez dira gaitzesten.

Euskaltzaindiak bi ereduak zuzentzat hartzen ditu, baina Andres Iñigo euskaltzain emerituak Maite Lakarren *Malerreka aldeko mintzoak* erabiltzeko gida liburuan dioenez, «garai batean *joan behar dut*, *etorri behar dute*... bertzerik ez zen erraten eta aditzen».

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Bizirik ikusten dut aizkora, jende gazte dezente ari da»

DONATO LARRETXE ARANTZAKO AIZKOLARIA

Aizkorarekin estuki lotutako bizitza da Donato Larretxearena. 18 urte zituela hasi zen eta gaur egun ere oraindik plazetan segitzen du. Urte hauetan guztietan «gustura» aritu izan dela dio

A.LARRETXE BERA

Herri kirolekin, eta bereziki aizkorarekin lotua dago Donato Larretxearen bizitza. 18 urte zituela atera zen plazara lehenengoz Elizondon, eta geroztik txapelketa nagusi denetan lortu du zapela, eta apustu parrasta ere eginak ditu Arantzako aizkolariak. Larunbatean sorterrian, eginen diote omenaldia. 12:00etan herri kirol saioa izanen da plazan, eta ondotik, 14:30ean herri bazkaria musikariek eta bertsolariek alaituta. Omenaldi bezperatan elkartu da Larretxea TTIPi-TTAPArekin aizkora egingako ibilbideaz eta urte hauetan guztietan bizitakoaz solastatzeko.

Arantzan sortua, eta gazterik mugitu zineten Almandozera. Nolako gaztaroa oroitzen duzu? Bi urterekin joan nintzen Almandozera. Ez dut Arantzako gaztetako batere oroitzapenik, denak Almandozkoak dira. Bi urterekin ailegatu nintzen, eta 20 urte arte egon nintzen han. Umezaro nahiko gogorra izan genuen, herritik ordubeteko bidean bizi ginen, eskolarako eta denetarako. Erosketak egitera asteen behin joaten ginen oinez, hagitx desberdina zen gaur egunekoak ikusita.

Eta tartean aizkora, nolatan hasi zinen aizkora?

Gazterikan hasi nintzen. Anaiak eta afizioa bazuten, eta horiekin batera joaten

ginen mendira, eta mendian arbolak bota eta han aritzen ginen entrenatzen. Ni plazan hasi nintzen 18 urterekin, ordura arte ez nintzen plaza-ratu. Orduan irabazi nuen lehendabiziko txapela, gazte mailakoa, Donostian, eta orduan hasi nintzen txapelketatan, eta afizioa mugitzen.

Nola oroitzen duzu lehenengo plaza hori?

Kasualitatez izan zen. Anaia zen Elizondon aritu beharra, Patxi, eta hark mina hartu zuen, eta hark erran zidan nik joan beharko nuela. Ni aritua bai, baina gutti aritua nintzen, eta lan puska bat zen. Joan nintzen eta behintzat ez nintzen azkena gelditu.

Urte berean jokatu zenuen lehen apustua Donezteben Barberiaren kontra.

Lehendabiziko plaza Elizondon izan zen Santiagotan, eta urte berean San Tomaseta Donostian irabazi nuen Euskadiko Gazte Mailakoa. Hortik sortu zen apustua egiteko aukera Donezteben Barberiaren kontra. Hori izan zen lehendabizikoa.

Geroztik apustu aunitz eginga zara. Zergatik gustatu izan zaizkizu hainbertze apustuak?

Beno, apustuak bi lagun lehiatzeko modurik zuzenena dira. Biak pasatzen gara enbor berdinetatik eta hor nahiko berdindua izaten da egur kontua. Baina txapelketa batean sei lagun izaten gara, sei lote, eta hor ez da egurrarekin

hain berdintasun ona izaten. Apustuan enbor beretik pasa, eta berdintzen da pertsonen indarra. Gustatu izan zait. Garai hartan irratitik entzuten genuen Baserri zena apustuei buruz solastatzen, eta pentsa, azkenean nerone ere ibili naiz urte pila batean horretan.

Urte batzuk beranduago, 1985an egin zenuen Olasagastiren kontrako apustu ezaguna

Beno, lehenagotik ere egin nituen txapelketak eta apustuak ere. Euskadi mailan 1984an bigarren postua egin nuen, lanetik bueltan jakituta. Ia irabazi nuen, ez nuen irabazi ez nekielako korteak bukatzen, eta denbora pasatzen nuen. Bertzela irabazia nuen. 1985an ere berdinduta zen, eta 1986an apustua egin nuen Mindegiairekin, eta 1989an Olasagastiren kontra. **Nolatan onartu zenuen hori? Lan berezia zen, aizkoraz aparte ere.**

«APUSTUA DA BI LAGUN LEHIATZEKO MODURIK ZUZENENA»

«AIZKORARI ESKERRAK EZAGUTU DUT KANPOKO BERRI»

1985ean izan zen hori. 125 kiloko harri kubikoari 50 altxaldi eman, sei oinbiko moztu eta sei kilometro lasterka. Apustu zakarra izan zen. Geroztik apustu gogor aunitz egin ditut, baina lan bakarrean. Hori pertsonentzako hagitx gogorra zen, eta aunitz sufritu nuen prestatzen. Baina ongi atera zen, eta gustura gelditu nintzen.

Ondotik bertze hiru apustu ere jokatu zenituen bere kontra, eta denak irabazi.

Bai, lau egin ditugu, eta denak irabazi. Hurrengo izan zen 1989an, orduan ere lana izugarri haundia zen: 20 kanaerdiko eta 8 laurogei ontzako. Nik 115 minutu pasa nituen, eta berak 122. Urte hartan berean jokatu nuen Mindegiairekin kontra abenduaren 24an Tolosan bertze apustu bat. Urtero txapelketak izaten nituen, baina tartean bi utzi nituen jokatu gabe 1993an eta 1999an. Arrospiderekin ere egin nuen apustua 1993an, eta ordua ez nenbilen ongi gerritik, eta berak irabazi zidan. Ordurako ebakuntza eginga nuen.

Sufritu izan duzu aunitz gerritik?

Bolada batean ikaragarri. Ez dakit zergatik, aunitz behartzen nuelako edo, baina okertuta egoten nintzen aunitzetan.

Baina hala ere beti itzuli izan zara lehiara.

Bai, beti. Gu kaskagorrrak izan gara. Aunitzek erraten ziguten uzteko, baina, harra beti buruan izaten genuen.

2009an Mindegiairekin aritu zinen bere azken apustuan. Berezia izanen zen?

Bai, bai. 20 enbor 60 ontzako gara egin genuen. Badakizu nor izan den bera! Eta 2015ean Arria V.-aren kontra egin nuen azkena.

Eta nola oroitzen duzu hura?

Oraintxe izan balitz bezala. Apustu gogorra joan zen, hasieratik aurretik joan nintzen. Ni egur hobeagoak moztzen, bera gogorragoak, han izan zen gorabehera pixka bat,

baina, azkenean aurrera aterantz nintzen. Sasoiko zegoen hura, nik, berriz, 55 urte nituen.

Ez duzu bertze apusturik hartzeko gogorik?

Ez, ez du merezi hainbertze sufritzerik. Apustu bat egiten baduzu egin behar da presatatu ongi, eta sufritu egin behar da. Nik ez dut behin ere beldurrik izan sufritzeko, baina, prestatu egin behar da eta denbora hartu. Adin honekin hasteak ez du merezi.

Desafioez aparte. Urte aunitzez ibili zara herriz herri aizkorian. Garai polita izanen zen.

Hori zen politena aizkora munduan. Txapelketetan ibiltzen bazinen aurrera samar, herri guztietatik deitzen gintuzten, eta udan erakustaldi aunitz egiten genituen. Pali-za dezentekoa zen, baina, gustura ibiltzen ginen. 42 urte pasatu ditut aizkorian. Eta bolada batean aunitz aritzen ginen, 100 eta gehiago erakustaldi egiten genituen. 1986an, Bizkaian bakarrik 46 erakustaldi egin genituen, eta denera 100 eta gehiago. Ibilera gogorrak egiten genituen. Larunbatean bi erakustaldi egin, eta hurrengo egunean hiru, eta astelehenean lanera. Oroitzen naiz behin goizean Irunen, arratsaldean Kantabriako mugan, Lanestosan eta iluntzean Lezaunen. Pentsa zer kilometro pila! Eta han afaldu, juerga pixka bat egin eta biharamunean Huescara lanera.

Izan ere, beti segitu izan duzu lanean.

Mendi lanean aritu naiz beti, hasieran besteentzako lanean eta azken 30 urteetan edo gehiagotan nire enpresa propioan. Beti ibili izan gara borrokan, baina gustatu zaigulako. Nik ere hobe nuen beharbada fabrikari sartu kirola errazago egiteko. Fabrikari zortzi ordu egin, eta goizean edo arratsaldean baduzu kirola egiteko modua, baina gu mendian ari ginean egun osoan, eta aunitzetan



Donato Larretxea Beran entrenatzeko prestatua duen lekuan. TTIPI-TTAPA

han bertan entrenatzen genuen. Pistan arbola zaharren bat paratu eta han aritzen ginen. Orain, jendea aritzen den bezala etxean dena prestatuta... Horretan aldatu da aunitz aizkolaritza. Gu bezala ibili beharko balute orain dabilen aizkolariek, ai ama! Dena egiteko jarriak ginen, astoak bezala.

Aizkolari aunitzekin aritua zara, baita tartean iloba eta semearekin ere. Berezia izan da hori zuretzako?

2008an aritu nintzen Oihan semearekin. Ilobarekin plazan lehiaketan ofizialki ez naiz aritu, baina semearekin bai bi urtez segidan. Bat irabazi genuen, eta bertzea gutigatik galdu. Etxean segitzea egiten zuen aizkorian orduan, baina, geroztik ez du segitu. Badu klasea eta gaia, baina segitu egin behar da. Baina, dena ezin da egin, lana, familia... Denbora behar da denerako.

Zein izan dituzu aizkorian maisu zure ibilbidean?

Hasi nintzenean, Donamariako aizkolari zahar bat nuen irakasle, aspaldian hila dena, Mariñelarena. Donostian eta gazte mailako lehiaketetan hasi nintzenean berarekin aritzen nintzen. Gero, izan zen Mendizabal, hark erakutsi zidan bidea. Prestaketa nola egin, nola jan eta hori dena berriz Leon Albeniz Iruntxiberrarekin egin izan dut. Azken 30 urtetan ibili da nirekin.

→ **Herritarren omenaldia jasoko duzu orain. Nola jaso duzu sorterriak omenaldia egitea?**

Ez nuen espero. Sumatu nuen ari zirela zerbait prestatzen, eta nabaritu nuen zerbait inguruan. Azkenean ailegatu da eguna, eta pasa beharko da. Nitaz oroitzea nahikoa egiten dute. Ni Arantzan gutxi bizi izan nintzen, baina orain aunitz ibiltzen naiz.

Zu zeroni ere ariko zara zure omenaldian aizkoran?

Bai, enbor bat mozteko ez da problemarik. Pentsatzen dut aizkolari mordoa etorriko dela, eta denentzako ez dalan haundirik jarriko.

Nola ikusten duzu aizkolaritza?

Nahiko bizirik dago, bada jende gazte dezente aizkoran ari dena. Egonduta askoz ere motelago urte batzuetan. Bengoak ere aunitz mugitu du bere torneoekin eta. Orain bereizkuntza dago Sherpa.ai eta hemengo aizkolariekin eta hori ez dut sobera ongi ikusten. Aizkora mundua ez gara hainbertze jende eta berezi beharra... Diru aunitz irabaziko balitz, baina ez da hori. Afizioa duzulako egiten da, ez dirutza ateratzeko. Diru pixka bat atera daiteke, baina, puntan ibili behar da, eta torneo guztiak harrapatu. Eta urtearen azkenean egiten da diru multzo bat, baina kapritxoetarako.

Zure ustez zaila da aizkoratik bizitzea?

Bai. Gaztea zarenean bizi egiten zara, baina zerbait gehiago egin nahi izaten da. Nik lanean segitu dut, eta apustuak nituenean uzten nuen pixka bat bazterrean lana, apusturako prestaketa egiteko. Baina, aizkorarekin bakarrik biziko zara urte batzuetan, baina...

Pasa dira urte batzuk aizkoran hasi zinela Nola aldatu da aizkora denbora honetan?

Aizkorak aldatu dira. Ordu-rako Australiatik ekarritakoak hasiak ziren, ni zaharrekin hasi nintzen pixka bat, eta gero Australiakoekin hasi



Abenduaren 3an omenaldia egingen diote sorterrian, Arantzan. TTIIPI-TTAPA

nintzen. Horrek aldaketa haundi samarra ekarri zuen. Prestakuntzan, lehenagoko aizkolarietatik aunitz aldatu zen, eta orain ikusten dut gure belaunalditik gaur egungoe-

tara prestaketa diferentea dutela. Jendea ongi prestatzen da. Gaur egun *crossfit* eta gimnasioak eta modan daude, eta nik ez ditut sekula ukitu. Ni mendian ibili egiten nintzen

Motzean

Gustuko aizkolari bat?

Zaila da bat erratea. Nirekin aritutakoak: Mindegia, Olasagasti, Arrospide, *Arria II*... Gazteak ere bai.

Aizkolari jaio edo egin egiten da?

Lehendabiziko jaio egiten da, eta gero egin. Ez baduzu aizkorako soltura, gerriko libretasuna eta indarra, aritu bai, baina, ez zara behin ere puntan ariko.

Plaza bat?

Aunitz badira. Apustu mailan Tolosa edo Azpeitia. Donostiako Trinitateko plaza ere polita da, eta baita herrietako plazak ere.

Elkarrekin aritzeko bikote bat?

Ni Miel Mindegia-rekin aunitz aritu izan naiz. Garai batean nafarrak gipuzkoarren kontra eta aritzen ginen. Ongi konpontzen ginen.

Apustuak edo txapelketak, zer duzu nahiago?

Apustuak.

Aizkoran izan duzun kontrario gogorrena?

Mindegia, Olasagasti eta Arrospide.

Gaur egun ikustea gustatuko litzaizukeen apustu bat?

Iker Vicenteren eta Aitzol Atutxaren artekoa. Hala ere uste dut garai hori pasa dela. Beti hor egon zen apustuarena, baina ez dute egin, ez dakit elkarri beldurra dioten edo.

Aizkora ez den bertze kirol bat?

Harri jasotzea eta pilota.

aunitz, ona zen eta gustatzen zitzaidan. Ibiltzen nintzen ordu pare bat ahalik eta gehiena emanez eta gainerakoan aizkoran. Hiru saio aizkoran, eta hiru mendian eta gimnasia pixka bat egiten.

Eta janaria?

Erreparatzen nion, Iruntxi-berrik paratu zidan dieta nola egin behar zen, eta pixka bat begiratzen nion dietari. Baina gustatu izan zait jatea. Dietak eragin haundia du kirolean.

Emakumeak ere badabiltza in-dartsu orain aizkoran.

Ni hasi nintzenenean ez zen inor ere. Tartean Kristina Saralegi aritzen zen, elkarrekin eta aritu izan ginen txanda librean. Orain aunitzez ere gehiago daude, eta nahiko ongi ari direnak, eta harriarekin ere bai. Ikusten da prestatuta daudela.

Zer eman dizu zuri aizkorak?

Ni aizkorarik gabe ez nintzen mugituko hemendik. Mundua ere ezagutu genuen, hemendik kanpora atzerrian ere ibiltzen ginen. Nik aizkorari esker ezagutu dut kanpoko berri. Ameriketara eta aizkoraren bidez joan naiz, ez oportetara. Ibili naiz Europa guztian barrena, zortzi aldiz Ameriketako Estatu Batuetan, Espainia ia denean... Ikusi dut jendea nola bizi den, eta begiak ireki dizkit pixka bat. Eta aizkorari esker egun ederrak pasa ditut lagunaren artean.

Eta zerbait kendu ote dizu?

Tarteka bai. Bestak nonbait izan, eta zuk hurrengo egunean aizkora saioen bat. Hori da kirolak duena, lotua da. Nik ez dut hala ere horrengatik sufritu. Ni gustura aritu izan naiz.

Zein da aizkoraz duzun oroitzapen politena?

Hainbertze torneotan parte hartu dut, hainbertze apustu egin ditut... Apustu egun onak izan ditut, Mindegia irabazi nionean, Olasagastiri, txapelketak irabazi ditudanean, torneotan... Leku aunitzetan gozatu dut.

top topa.shop

Eguberri
hauetan,
zure opariak
TOPTOPAn

**GURE
OPARIAK** **GURE
DENDETAN** **GURE
ESTILORA**

**BIDALKETA
DOAN!**



Nafarroako Gobernuak
diruz lagundutako jarduerak



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

DenokBat





Mattin Aiestaran Irulegiko aztarnategian. JUANXO EGAÑA

«Iduri du eskuarekin herri honen alde sentsiblea ukitu dugula»

MATTIN AIESTARAN DE LA SOTILLA IRULEGIKO AZTARNATEGIKO ZUZENDARIA

'Irulegiko eskua' harrapatu duten aztarnategiko zuzendaria da iruritarra. Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoa da eta egindako aurkikuntzaz eta beraien lanaz mintzatu da TTIPI-TTAPAREKIN

G. PIKABEA IRURITA

Lanez gainezka harrapatu dugu Mattin Aiestaran de la Sotilla iruritarra, doktore tesiarekin buru-belarri eta azken asteotan baita kazetarien deiei erantzunez ere. Bera baita Irulegiko aztarnategiko zuzendaria, basakoieraz orain arte agertu den idatzirik zaharrena duen *Irulegiko eskua* aurkitu duen lantaldearen gidaria. Antzinako euskarari buruzko aurkikuntza garrantzitsutzat jo dute adituek. Kristo aitzineko I. mendeko idatziak lau lerro ditu, eta lehenbiziko hitza *sorionekugisa* transkribatu dute, hau da, *zorioneko*. 370 m²ko azalera induskatu eta 70 bat m²ko bi etxebizitza eta lau metroko zabalerako bidea-

ren zati bat bistarazi dituzte eta hor aurkitu dute eskua. Etxe baten sarrerako atean zintzilikatzeko «objektu errituala» dela ondorioztatu dute, «etxea babesteko» erabilia.

Horretaz aritu da Aiestaran TTIPI-TTAPAREKIN. «Tiki-ttikitatik» erakarri omen dute «iraganak eta historia» eta «suerteko» sentitzen da «zaletasuna ofizio» bihurtu baitu. Irakasle ikasketak egin zituen lehenbizi, eta Historiako gradua gero. Segidan «arkeologiako eta geologiako masterra egin nuen» eta egun, doktore tesiarekin ari da Irulegiko indusketetan. Ez da hasi berria Irulegi mendiko lanetan. Karrera bukatuta hurbildu zen lehenbizikoz, 2016an; hasmen-

tan, boluntario, 2017an zuzendarikide eta 2018tik bera da zuzendaria.

Irulegiko eskua ez da atzo hasitako lanaren emaitza izan. 2007tik ari zarete Irulegi mendian lanean...

Bai, ni orduan ikasten ari nintzen, baina 2007an, Aranguren-ko Udalak deituta, Aranzadiko bertze zuzendari eta arkeologo talde bat Irulegi mendiko Erdi Aroko gazteluan induskatzen hasi zen. Herritarrek bazuten mendi horren gailurrean gaztelu bat egon zitekeenaren susmoa. 2006an garbiketa lanetan aritu zirenean ohartu ziren han zegoena ez zela txabola tiki bat eta Aranzadi Zientzia Elkartera jo zuten. 2007tik 2017ra gaztelua induskatzen

ibili ginen eta 2018an gaztelu horren beheko aldean dagoen Burdin Aroko herrixkan hasi ginen. Zenbat material biltzen ari ginen ikusita, arkeologoa bat lanaldi osoan aritzea beharrezkoa ikusi genuen eta horretan ari naiz azken urteotan.

Zein aurkikuntza egin dituzue?

Aztarnategia bera ikaragarria da. Ez genuen uste horrelako emaitzarik izanen genuenik, arras ezohikoak baitira eskua bezalako aurkikuntzak. Hasmentatik sekulako potentzialtasuna duen lekua dela ikusi genuen. Arkeologok, normalki, ziurtasun dezenterekin solas egiten dugu iraganeko afera materialez, hau da, beraien artisautza nolako zen, zeramika nola egiten zituzten, nola kozinatzen zuten, zein animalia jaten zuten, zein arkitektura mota zuten, janaria nola prozesatzen zuten... Afera materialak dira. Materiala ez denaz solastatzeko, ordea, zailtasun gehiago izaten ditugu, ez baitugu izaten *Irulegiko eskua* bezalako elementurik. *Irulegiko eskua* beraien hizkuntzaz eta sinesmenaz ari zaigu.

2021eko ekainaren 18an aurkitu zenuten eskua. Nolako eguna izan zen?

Bertze egun guztiak bezalakoak, lanegun arrunt bat. Irulegin zeramika, hezurak, arkitekturaren aztarnak... agertu zaizkigu, baina baita metalak ere. Kontuan izan behar dugu burdina erabiltzen zutela eta erai-kinak iltzeak erabiliz egiten zituztela. Beraz, metala ez zen urrutiko zerbitz beraieendako. Brontzezko zenbait zati ere agertu izan zaizkigu. Eta eskua agertu zenean ez ginen guztiz harritu, batez ere, momentu hartan ez baikenuen deus idatzia zuenik ikusi. Protokoloa-ekin segituz, pieza atera bezala, bere lur eta guzti, plastikozko poltsa hermetiko batean sartu genuen, 2.000 urtez pieza horrek izan duen egoera ahalik eta gutien aldatzeko, hezetasuna, tenperatura... Lurpean fresko-fresko eta hezetasun kontantean egon den pieza bat,

kasu honetan brontzezkoa, eguzkitara atera izan bagenu, hondatu egingen litzateke. Hori saihesteko poltsa batean sartzen ditugu, garbitu gabe, eta Nafarroako Gobernuko zaharberritze egoitzara bidaltzen ditugu, Cordovillan dagoen Nafarroako Gobernuko biltegi arkeologikora. Momentu horietan argazkien bitartez eta garrantzitsuenak diruditen piezen kasuan bideoen bitartez, erregistro zorrotz bat egitera mugatzen gara. Hortaz, zaharberritzen aritzen direnei ematen dizkiegu Irulegin ateratako piezak eta beraiek egiten dute garbiketa eta katalogazio lana. Arkeologoak gero bueltatzen gara zaharberritutako pieza horiekin ikerketa egiteko.

Pieza garbitzeko eta zaharberritzeko lanak egiten hasi zirenean agertu zen eskuan idatzitakoa, urtarilaren 18an...

Bai. Udan aztarnategi aunitz ateratzen dira, eta pieza guztiak zaharberritzeko denbora aunitz behar izaten da. Irulegiko piezen txanda urtarilean ailegatu zen, eta urtarilaren 18an, Carmen Usua zaharberritzaileak eskuan idatzitakoa aurkitu zuen. Bagenekin apaingarri gisako bat izan zitekeela, eskuaren itxura hartzen genion, baina ez genekien zehazki hala zenik. Garbitu ondotik, azkazalak ere agertu ziren, eta garbi gelditu zen eskua zela, eskuin eskuaren formakoa, eta lau lerroko inskripzioa zuela. Momentuan ez genuen ulertzen zer paratzen zuen eta Jesus Sesma nire tutoreak eta Nafarroako Gobernuko arkeologoak Javier Velaza Hizkuntzalaritzako katedradunarengana jotzeko aholkatu zigun. Bera da Nafarroan agertu diren gainerako epigrafe guztietan aditua. Sortzez Castejongoa da baina Bartzelonako Unibertsitateko katedraduna eta pertsonalki pieza ikusteri etorri zen, autopsia deitzen duten irakurketa pertsonal hori egitera. Eskuan zegoena zer zen erran zigunean konturatu ginen piezaren garrantzia zein den. Hala ere, bertze aditu batekin



Ezkerrean 'Irulegiko eskua' eta eskuinean testuaren transkripzioa. Lehendabiziko lerroan 'sorioneku' ageri da. ARANZADI



kontrastatu behar zuela erran zigun, Joakin Gorrotxategi EHUko Hizkuntzalaritzako katedradunarekin, eta beregana jo genuen. Honek ere autopsia egin zuen eta biak ados zeuden irakurketarekin. Hor hasi ginen hipotesien idazketan eta lanean, nazioarteko aldizkari zientifiko batera artikulua bidaltzeko. Artikulua irailean bidali genuen, eta orain ebaluazio fasean dago. Baina lehendabiziko filtroak pasatu ditu eta guretako nahikoa izan da jende aitzinean aurkezteko. Badugu nahiko segurtasun.

Zenbateko garrantzia du aurkikuntzak?

Ikaragarria. Arkeologiaren bitartez arras zaila izaten den aferetara eraman gaituen elementua da. Erran bezala, beraien hizkuntzari eta beraien sinesmenari buruzko informazioa eman digu. Baina ez hori bakarrik. Baskoieran, hau da, duela 2.100 urte euskararen aurrekaria izan zen hizkuntza, idatzitako lehendabiziko testua

da, eta ziurtasunez diogu, baskoieraz idatzita dagoen bakarra dela. Alde horretatik arras garrantzitsua da. Gainera, lehendabiziko hitza *sorioneku* da, *zorione*ko, mezu guztiz positiboa. Orain arte baskoiez idatzi duten bakarrak kanpokoak izan dira; erromatarrek duela 2.000 urte baskoien inguruan idatzi zuten, eta hori zen baskoiez genuen idatzizko erreferentzia bakarra, kanpotik egina eta ikuspegi inperial batetik. *Irulegiko eskua* komunitatearen barneko ahotsa da, beraiek beraien buruarendako eta beraien hizkuntzan idatzitako lekukotza. Horregatik oraindik txundigarriagoa da aurkikuntza. **Frogatua gelditu da inguru horretako herritarrek baskoieraz solas egiten zutela eta hizkuntza horretan alfabetatuta zeudela?**

Hori da, ez solastatu bakarrik, baita idatzi ere. Alfabetatuta zeudela ikustea ere berrikuntza ikaragarria da. Gainera, iberiarren alfabeto moduko bat hartu eta beraien hizkuntzara mol-

datu zuten, zeinu batzuk gehituz.

Lehenagoko euskaraz idatzitako testua dela erranen zenuke?

Guk baskoiera deitu diogu, baskoiak baitziren. Joakin Gorrotxategi honela erran zigun: «Hauek solastatzen zutena baskoiera zen, eta egungo euskararekin duen harremana latinak eta gaztelarak duten harremanaren parekoa edo gisakoa da. Gaur egun, garai hartako latinez erromatar bat solasean hasiko balitz, nahiz eta gaztelera jakin, ez genioke aunitzik ententituko, hitzen bat akaso bai, baina ez dena. Hemen gauza bera gertatzen da». Baskoieraz ari dira, eta gaur egungo euskararekin ez dugu aisa ententituko zer dioten. Baina *sorioneku* hitzak zuzeneko lotura du euskararekin.

Testuak lau lerro ditu eta lehendabiziko hitza *sorioneku* da. Zer dakizue bertze hitzez?

Argi eta garbi dakigu ez dela zeltiberiera, ez dela galiera... Ez da hizkuntza indoeuropar bat, hizkuntza horietan agertu diren idazki guztietan bertze zeinu mota batzuk agertzen baitira. Adibidez, Irulegiokoan bi *erre* daude, eta bertze hizkuntza horietan bakarra erabiltzen zuten. Ez du bertze inolako harremanik hizkuntza —>

«'IRULEGIKO ESKUA' KOMUNITATEAREN BARNEKO AHOTSA DA»

«ARKEOLOGIAK PAZIENTZIA ETA LAN JARRAITUA ESKATZEN DU»



Goian Erdi Aroko Irulegiko gaztelua eta Burdin Aroko herrixkaren aztarnategia. Beheitian Aiestaran eta eskuinean induskatutako etxeak. Puntu gorrian aurkitu zuten eskua.

—> horiekin. Hori baieztatua dago. Izan zitekeen iberiera. Baina ikusi da hitz horietan badela iberieratik hartu diren 1.500 idazkietako bakar batean ere ageri ez den hizki bat: *T* zeinua. Hain justu, baskoien eremuko bi txanponetan ageri da. Baskoiek iberierak ez zuen fonema hori zuten. Horrez gain, gure filologoek erranda, bada-kigu testu horien ezaugarriak ez dutela iberieraz idatzitakoen antzekotasunik, ez hitzen hasierak, ez amaierak, ez tartekoek... *Irulegiko eskuak* erakutsi digunarekin eta ditugun ziurtasun tiki horiekin pauso haundia eman dugu gure historian.

Badago oraindik zer deskubritua Irulegin?

Bai, bistan da. Irulegin 2020tik 2024ra bitarteko plan zuzentzailea dugu, eta nire doktore tesia ere 2024an akitu beharko dut. Plan zuzentzaile horretan Nafarroako Gobernuak eta Arangureko Udalak onartutako eta babestutako helburu batzuk ditugu. Horren ondotik epe

ertain-luzera begirako bertze bide-orri bat sortu beharko dugu, Nafarroako Gobernuaren, Arangurengo Udalaren eta zientzialarion artean adostutakoa.

Ondare arkeologikoari dagokionez, eskualdean badago zer aztertu?

Bai horixe. Gure eskola haundienetarikoa bat Amaiurko gaztelua izan da. Neurri haundi batean, Jantxo Agirre Mauleon zuzendariaren ikasle izangaren belaunaldia gara. Eta batzuei, bertakoak izanik, sentsibiltate berezia sortzen digu. Horrez gain, Baztanen baditugu zenbait proiektu esku artean eta ea aitzinera ateratzeko baliabideak ditugun. Oraingoz, badugu laguntza eta kontent gaude.

Zein proiektu dira?

Bertzeak bertze, Baztango landa paisaiaren bilakaera historikoa ikertzen ari gara. Emaitzak hemendik urte batzuetara ikusiko ditugu. Irulegiko herrixkan bortz urte behar izan ditugu emaitzak pixka bat bistaratzeko. Arkeologiak pazientzia eta lan jarraitua eskatzen du.

Ondare arkeologikoaren balioaz zenbaterainoko kontzientzia dago gizartean?

Ez gaude ohituta gure eguneroko lanak *Irulegiko eskuak* izan duen oihartzuna izatera, orain dela 2.000 urteko aztarnez ari baikara. Halako gaiek jakin-min orokorra sortzen dute, erakartzen dute, baina eskuarekin iduri du gure herri tiki honen alde sentsiblea ukitu dugula, eta horrek eragin du halako oihartzuna. Badago kontzientzia, baina beti ari behar dugu zientziaren bideak aitzinera egiteko eta honen aldeko apustua egiteko eskatzen.

Zuen lanak badu administrazioaren babesik?

Tokiko administrazioaren aldetik, hau da, udalen aldetik bai. Horren adibide da Aranguren ibarreko Udala, bera baita Irulegiko lanen bultzatzailea. Sekulako pieza aurkitu dugu, sekulako aztarnategia baitago, baina gibelean sekulako udala ari da hau guztia babesten. Hainbertze urtez bere

ondarearen alde horrelako apustua egin duten udal guti ezagutzen ditugu eta horietako bat da Aranguren bailarakoa. Berezik eskertuak gaude. Azken urteotan, Nafarroako Gobernuak ere proiektua laguntzen ari da eta badira laguntza ematen duten bertze zenbait erakunde ere: Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Burgosko unibertsitatea... Hau elkarlan sare bat da, taldean egindako lana.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Komunikabideetan guti samar agertu den nire arkeologo taldea aipatu nahi nuke. Ez dira argazkietan ateratzen, ez dira solasean agertzen... Baina lehendabizikoa nire eskerrik haundiena beraiei eman behar diet, beraiek baitira, gurekin batera, ekainean eta uztailean Irulegin lanean aritzen direnak, eta beraiek gabe hau dena ez litzateke posible izan. Zientzia taldean egiten den zerbait da, pausoak taldean lortzen dira eta hau urtetako lanaren emaitza da.

Eguberri on!

Maite ditugunei opariak egiteko garaia

Eguberriak gero eta hurbilago ditugu eta horrekin batera opariak pentsatzen hasteko unea dugu. Batzuk garaiz hasita erosiko dituzte, lagunek eta familiak gustuko dutena kontuan hartuz eta bere denbora eskainiz. Bertze batzuk, ordea, azken orduko erosketak egingen dituzte tarrapataka. Eta noski, eskuz sortutako opari pertsonalagoak egitea nahiago dutenak ere izanen dira. Edonola ere, bilatzen dugun opari perfektua lortzeko produktuen aukera zabala daukagu eskualdean.



KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea

Zure jabetzeko
diseinuarekin menuak, kartak,
mahai-oihalak, musuzapiak,
baso-azpikoak, etab.
pertsonalizatzen ditugu

kulturkari.com

MENDAU MOTOR
T. Multimarca Especializado 4x4 - Opel - Suzuki
COMPRVENTA - CHAPA - MECANICA - ELECTRICIDAD

Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY



**Eguberri eta
Urteberri on!**

BEAARRAINDEGIA **esarte**

Astleheneretik Larunbatera

09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 - ELIZONDO - T. 948 580 005

EROSKI city



Eguberri hauetan opari perfektua egiteko mila aukera eta ideia

Denok dugu gustuko opariak jasotzea, baina opariak egiteko ordua ailegatzean galdera bera egin ohi diogu geure buruari: *zer oparituko diot?*

Arropa opari klasikoa da, ia edozeinek eskertuko lukeena. Hartzailea guztiz ezagutzen badugu (bere gustuak, tailla, estiloa...), ongi ematen dion arropa oparitzea aukera ezin hobea da. Gainera, ongi ezagutzen dugula erakutsiko diogu. Bertzela, osagarriren bat erostea erabaki dezakegu: zapiak, zorroak, txapelak, lepokoak, erlojuak... aukerak anitzak dira, guztientzako aproposak.

Liburu, film, disko eta bideojokoak bertze aukera on bat dira, gazteen-tzako batez ere. Aurten argitaratu berri den liburu bat, bere film gustukoena, modan dagoen musikariaren diskoa edota betitik nahi izan duen bideojokoa opari bikainak dira. Gainera, produktu hauek euskaraz erraz lor ditzakegu Euskarazko Produktuen Katalogoari esker.

Opari dotore bat bilatzen badugu, lurrindegira jo dezakegu. Betitik erabiltzen duen eta bukatu berri zaion perfumea erosten ahal diogu, edo marka desberdinen bat, gauza berriak probatu nahi dituenarentzat. Ohikoak dira komuneko produktuz osatutako sortak; xaboia, lozioak, lurrinak, kremak, bainu-gatzak... opari dotore eta erabilgarria.

Gozozaleentzako, berriz, opari onena mokadu on bat izan daiteke. Izan ere, Eguberrietan zerbait nabarmen bada, jatekoa izaten da. Turroia, txokolatea, pastak, mazapana... nork ez ditu gustuko?

Opari berezi eta desberdina bilatzen badugu, esperientzia bat oparitu dezakegu: otordu bat jatetxe elegante batean, asteburu bat kostaldean, arratsalde bat arrisku handiko kirolen bat egiten... aukerak amaigabeak dira.

TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta marisko freskua aste osoan

Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

Kanttonberri, 3 behea - BERA
T. 670 321 202 - 948 631 575

Malgorra

Santiago, 15 - Tel. 948 580 061 - ELIZONDO
www.malgorra.com

ARKUPE
Txokolateak

1984

IRURITA
Dukea plaza
T. 948580059
T. 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T. 948452393

www.arkupagozategia.com

Eguberriak hemen dira!

Ongi etorri Venta Peio merkatal zentroetara

Eguberri on



2022KO ABENDUA

«Eguberrietarako eskaintza handia dugu Biok-en»

1977an ireki zen lehenbiziko Biok benta Ibardinen, eta urteak pasa ahala, «benta gehiago ireki zituzten, lehenengo Dan-tzarinean eta gero Luzaiden».


Geroztik, eskaintza «aunitz» aldatu da; «garai berrietara egokitu gara, gizartearen gustuak aldatu diren heinean. Supermerkatuarekin hasi zen eta orain jatetxeak, arropa-dendak, lurrindegiak eta animali naiz nekazaritzako produktuen dendak ditugu». Gainera, «modernizazio eta berrikuntza prozesuan» daude murgilduak, «eta lanean ari gara gure komunikazioa, produktuak eta zerbitzuak, barne egitura eta langileen baldintzak hobetzeko».

Eguberriak hurbiltzen ari direla, «mugimendua nabaritzen hasi dela» dio Ruizek, «opariak erosteko eta bazkari edo afari bereziak prestatzeko garaia da eta produktu eskaintza handia izateaz gain, arraindegiak eta harategiak ditugu super-

merkatuetan. Jendea produktu freskoen bila etortzen da». Gainera, «deskontu eta promozio bereziak egiten ditugu, bereziki modan eta lurrindegietan». Normalean jendeak «denborarekin» egiten ditu enkarguak, «harategietan batez ere», baina «azkeneko momentuko bezeroak ere izaten ditugu».

Jatetxeak ere Eguberrietarako prestatu dituzte; «aurten menu berezi bat prestatu dugu. Eguberri eta Urteberri egunetan izan ezik, jende aunitz etortzen da sasoi honetan, familiako, lagunarteko edo enpresako ospakizunak egitera, baita erosketak egiten dituzten bitartean bazkaltzera ere».

Honez gain, erosketak Internet bidez egiteko aukera ematen dute bentetan; «pandemia ailegatzean sartu ginen online munduan, betiko bezeroei zerbitzua ematen segitu ahal izateko, baita hurbi-



Ainhoa Ruiz Galarza

leko herrietako bizilagunei ere. Supermerkatuarekin hasi ginen baina gaur egun moda eta lurrindegiko produktuak ere saltzen ditugu webgunean. Egunero izaten ditugu eskariak eta online bidez erosten duten bezero fidelak ere baditugu».

Datorren urteei begira, «erronka berriak ditugu esku artean eta irrikan gaude zuekin partekatzeke».

Eguberrietako karta

Sarrerak

- Itsaski entsalada
- Entsaladilla errusiarra
- Arrain pastela
- Bieira gainerreta
- Bakailaoz edo onddoz beteriko piperrak
- Arrain zopa
- Ziazerba eta ahuntz gazta hostorea
- Onddo eta foie hostorea
- Porru tartaleta
- Txangurro krepak
- Txangurroa labean errea
- Porru eta ganbaz beteriko kurruskaria

Arrainak

- Zapoa saltsa berdean
- Legatza itsaskiz beteta
- Legatza koxkera erara
- Bakailaoa drunguru erara otarrainskekin
- Bakailaoa saltsa berdean
- Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

Haragiak

- Txahal biribilkia saltsan
- Txerri azpizuna onddo saltsarekin
- Ahate azpizuna foie eta mahats saltsarekin
- Txerri masailak saltsan
- Txahal masaiak ardo beltzetan
- Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
- Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
- Ahate confit-a laranja saltsarekin
- Temperatura baxuan eta hiezurrik gabeko bildots errea

Enkarguak hartzen dira abenduaren 21a arte

Abenduaren 24an 10:00-13:30

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Martikoko lantaldeak,
Eguberri eta Urte Berri ona
opa dizu

Martiko gara



Boutique Martikoren ordutegia

Astelehenetik ortziratera: 9:00 -18:00

Abenduak 6, asteartea: 9:00-13:00

Abenduak 10, larunbata: 9:00-13:00

Abenduak 17, larunbata: 9:00-13:00

Martiko

Pol. Zalain s/n

31780 Bera

Navarra

T: 948 62 50 16

www.martiko.com

www.martiko.com/tienda

martiko@martiko.com



Eguberri honetan,
asmatu seguru
edertasuna oparituz
CVren gabonetako kutxekin

5 edertasun-proposamen,
aukeratu zure opari perfektua!



Altzate 33 BERA - Tel.: 948 63 09 04

«Bainuetxea bezeroen erlaxaziora dago bideratua»



Cristina Gelbenzu Zubietta

Instalazioak bezeroen erlaxaziora daude bideratuak, betiere uraren bueltan; «gune termalean igerileku bat, bi flotarium, lau sauna, hamaika gunea, dutxak... ditugu». Honez gain, hotelak 75 logela ditu, «banakoak, bikoteentzako eta familiarrak», baita jatetxea eta kafetegia ere, eta terrazako gunea handitu dute, «eskualdeko bisitari aunitz etortzen direlako». Ekitaldi pribatuetarako, berriz, aretoak alokatzen dituzte, «enpresen ekitaldietarako, jaunartzeetarako edota ezkontzetarako batez ere erabiltzen direnak».

Eguberriei begira, «bi hilabete inguru itxiko dugu. Urtero ixten dugu mantentze-lanak eta zaharberritzeak egiteko, eta beti berrikuntzaren bat gehitzen diogu. Aurten, adibidez, flotariumetako bat zaharberrituko dugu».

Hala ere, oparitzeko bonuak egiten dituzte; «esperientziak oparitzen dira, ibilbide termaleko saio batetik, asteburu osoko egonaldi-

raino, masajeak eta otorduak barne. Webgunearen bitartez, telefonoz edo bertan eskatzen ahal dira, PDF batean bidaltzeko edo kaxatxo batean etxera bidaltzeko, eta urtebete epean erabiltzen ahal dira».

Jendeak gustuko duen oparia da; «jertse bat oparitzean ez dakizu asmatu izanen duzun edo ez, baina horrelako esperientzia bat bakoitzak bere modura bizitzen du eta guztioi gustatzen zaigu. Jende aunitzek urtero errepikatzen du eta ahazten ez den oparia izaten da».

Honez gain, kalitate turistiko-kor 'Q' zigilua dauka Elgorriagako Bainuetxeak; «ziurtagiri bat baino gehiago, lan sistema bat da. Zigilua mantentzeko, egindako lan guztien segimendua egin behar dugu, baina merezi du».

Eguberrietan produktuen ordez esperientziak oparitu nahi dituztenentzako, eskualdean mila aukera ditugu aisialdirako, bertzeak bertze, Elgorriagako bainuetxea. 2009ko ekainean ireki zen; «1816tik jakin izan da bertan ur gazia zegoela, animalia aunitz etortzen baitziren. Iturburua erabilerara publikokoa izendatu zuten 1919an eta bainuetxe bat egin zuten bertan, baina behera etorri zen. Udalaren laguntzarekin, bainuetxea zaharberritu eta hotela sortu genuen».

«Oparitzeko bonuak aukera ona dira, bakoitzak esperientzia bere modura bizitzen duelako»

Kalash
JOYEROS

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu



Kantimberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

Estetika-Zentroa
Zuri
Edertasuna eta teknologia

Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, HI-FU, Empitsu metodoa, BBGLOW, radiofrekuentzia, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!



Santiago, 59 behea - Elizondo - Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81

Instagram, Facebook, Twitter icons

EGUBERRI ON FAMILIA!



Promoziok, zozketak, deskontuak eta
Gabonetako produktu bereziak gure
dendetan eta webgunean.

  [ventabiok.com](https://www.ventabiok.com)

BIOK
EXPERIENTIAL SHOPPING

Eskuz egindako opariak dira berezienak



Aunitzek uste dutenaren kontra, Eguberrietako opariak ez dute garestiak izan beharrik. Are gehiago, ez dugu sosik gastatu beharrik opari berezi bat egiteko. Izan ere, etxean eskuz egindakoa baino opari pertsonalagorik al dago? Noski, bakoitzaren trebetasunen arabera, emaitza politagoa edo traketsagoa izan da, baina garrantzitsuena asmoa da, ez?

Oroitzapenak opari ezin hobeak dira, hutsik egiten ez dutenak. Hortaz, elkarrekin pasatutako egun eder haren argazkiekin egindako collage edo album bat oparitzen ziur asmaturiko dugula. Argazkia ikusten

duen aldiro egun hori gogoratzen ahalko du. Ordenagailuarekin trebeak direnek, berriz, pauso bat harago joan eta bideo bat sortu dezakete, oroitzapen onak dakarkiten argazkiak eta bideoak elkartuz. Gainera, gustuko duen musika erabil daiteke bideoan, oparia are pertsonalagoa izateko.

Eskulanak bertze aukera on bat dira. Gaur egun, birziklatutako materialekin mila gauza egin daitezke; bitxiak, apaingarriak, jostailuak... opari merkeak eta jasangarriak dira, beraz, gure sakelari eta ingurumenari mesede egingen diogu.

Joskintza gustuko dutenek, berriz, puntu-lanak eta brodatuak sor ditzakete. Arropak, panpinak eta bufandak, bertzeak bertze, garai honetarako aproposak dira, eta eskuz eginak izateak bereziagoak egiten dituzte. Gainera, gurutze-puntu lanak egiteko gai baldin bagara, marrazki eta esaldiak brodatu ditzakegu, oparia pertsonalagoa izan dadin. Makramearekin trebeak direnek, berriz, lepokoak eta eskumuturrekoak egin ditzakete.

Etxeke artistek, berriz, marrazkiren bat edo koadroren margotu dezakete. Baina marrazkiak ez du paperean izan beharrik; kamiseta batean, koaderno bateko azalean, katilu batean... horrela, oparia polita eta erabilgarria izan da.

Azkenik, musikazaleek abesti bat sor dezakete. Kantu eza-gun baten letra aldatzen, bertso bat idazten edo abesti berri bat konposatzen, une atsegin bat izan dugu maite ditugunekin, eta ahoa bete hortz utziko ditugu esperoko ez duten opari honekin.

Laburbiltzen, batzuetan opari on bat egiteko ez dugu dirurik beharrik, sormena baizik. Oparia norberak egiteak denbora gehiago eskatzen du, baina emaitzak merezi du eta ziur eskertuko digutela.

ERROSKAK ETA EGUBERRIETAKO PRODUKTUAK

Eguberri on !!

Goxune Kafetegia

Sara Kafetegia

IREKIA abenduak 25 eta urtarrilak 1 09:00-13:00
Errege eguna **IREKIA** 08:00-13:00

ITXITA abenduak 25 eta urtarrilak 1
Errege eguna **IREKIA** 08:00-13:00

Sara karrika, 7 BERA - 948 630 235

Hurlandeta, 6 BERA - 948 625 673

carroba
okindegia gozategia

Panettoneak
Errege erroskoak
Turroiak
Txokolateak
Bonboiak
Polboroiak
Pastak

eguberri eta urte berri on!

Ezdegara 25, Bera 31780 Nafarroa T: 948 630 899

@sarobe_okindegia_gozategia | www.sarobe.net

EGUBERRI ON!



LURRINA, KOSMETIKA, MAKILLAJEA

Eskuratu %40-ko deskontua bigarren alean

IDOIA
LURRINDEGIAK

perfumeriasidoia.com

«Poliki egiten diren gauzak arrakastatsuagoak izaten dira»

Iñigo Sarobe Santesteban



Opariak ez ezik, bazkariak eta afariak egiteko egunak dira Eguberriak, eta otordu batean ezinbertzekoak dira garai honetako gozoak.

1952an ireki zen Berako Sarobe okindegi eta gozotegia, eta hirugarren belaunaldia da Iñigorena; «Silverio Sarobe aitona eta familia Arantzatik Berara etorri ziren eta bertan ogia egiten hasi ziren, eta gaur arte». Geroztik herriko okindegiatako bat da, baina hainbat aldaketa izan ditu denborarekin; «lehen, ogiaz gain, baserrietarako pentsuak ere saltzen zituzten. Pentsuak uztean ogia bakarrik egiten zuten, gozogintzan hasi ginen arte».

Etxean ikusi eta ikasitakoa kanpoko formakuntzarekin uztartu du Sarobek; «argi nuen hemen lan egin nahi nuela, eta Miarritzen gozogintza ikasi nuen. Lantegian instalazio berriak egin genituen: labeak, ganbera hozkailuak... eta ikasitakoa martxan jarritz, ikastaroak eginez eta han eta hemen ibiliz, gozogintzarekin hasi nintzen».

Sarobek argi du kalitatezko produktuak egiteko, kalitatezko lehengaiak behar dituztela; «gurina, azukrea, baserriko arroltzeak... ahal den heinean bertako eta gertuko hornitzaile eta lehengalekin lan egiten saiatzen gara».

Ogia txuria da Sarobeko izarra: «betiko okindegia izanda, aunitz saltzen dugu». Eta ez da guttiagorako, izan ere, 2019an La Ruta del Buen Pan aukeraketak estatu mailako 80 ogi onenen zerrendan sartu zuen. «Irina, gatza, legamia eta ura bertzetik ez dira behar ogia egiteko, ez du inongo sekreturik, baina kalitatezko irina erabiltzeak, masari behar duen denbora uzteak, legamia portzentaia zehatza izateak eta ama oreka erabiltzeak alde handia egin dezake iraunkortasunean, zaporean... poliki egiten diren gauzak azkenean arrakastatsuagoak dira». Baina ogitik haratago, pastelak, opilak eta tartak ere dituzte bertan; «hostopilak batez ere asko gustatzen zaizkio jendeari».

Eguberriei begira, «panettonea prestatzen dugu duela urte batzuk, Italiako postre tipikoa. Duela gutti arte ez zen hagitz ezaguna hemen, baina arrakasta handia du eta jendeari asko gustatzen zaio. Lehen Eguberrietan jaten bazen ere, orain orokortzen hasi da eta urritik aitzinera jaten da. Gainera, Gabonen aitzine-tik errazago jaten da, Eguberrietan jendea asetua ailegatzen baita postrera». Honez gain, abenduko zubiaz geroztik turroiak, errege-erroskak eta Eguberrietako gozoak prestatzen hasten dira; «jendeak gustura hartzen ditu».



*Eguberri eta Urteberri on
lagun eta bezero izan zaituzteguno!*

**Abenduaren 19tik
martxoaren 15era arte ITXITA
ondotik indarberrituak etorriko gara!**

Iruñea - Irun errep. 60km - 31760 ETXALAR
T. 948 635 000 - F. 948 635 263
info@etxalar.com - www.etxalar.com



*Ezkontzak, jaunartzeak,
lagunartzeak, hiru bestak,
familia ospakizunak...*

zure ospakizunak Etxalarke Bentan



**«Panettonea
Italiako
postre tipikoa da.
Duela gutti arte
ez zen hagitz
ezaguna hemen,
baina arrakasta
handia izan du
eta jendeari gero
eta gehiago
gustatzen zaio»**

Jostailuek ez dute generorik

Haurrek inork baino gehiago disfrutatzen dituzte Eguberriak, Olentzeroren bisitak emozioz betetzen baititu eskualdeko etxeak. Jolastea haien heziketaren parte da, eta beraz jostailu eta jokoek garrantzi handia dute prozesu honetan.

Horregatik, ezinbertzekoa da haurrari aditzea, gustuko duena ezagutzea, eta horren arabera egitea oparia. Inportantea da bere gustuak errespetatzea eta bere interesa piztu dezakeen alternatibak eskaintzea, erabakia berak har dezan. Izan ere, 'mutilentzako' eta 'neskentzako' jostailuak desberdintzean, gizarteko estereotipo sexistak finkatzen ditugu. Berdintasuna etxeko heziketarekin hasten da.

Haurraren sormena eta irudimena indartzen dituen jostailuak bilatu behar ditugu, bere talentu eta gaitasunak sustatzeko; ipuinak, mozerroak, panpinak, musika tresnak, eskulanak... jokoekin ikastea garrantzitsua baita. Ohitura onak sustatzeko, kirola egitera eta mugitzera animatu behar ditugu, pantailen aitzinean pasatzen dituzten orduak mugatuz.

Jostailuak ez dira opari hutsak, haurrei baloreak helarazteko tresnak baizik, eta balore horiek zeintzuk diren pentsatzen hasteko ordua dugu.




Miguelena
SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25
Ameztieta zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE
www.electrodomesticosmiguelena.es





Euskarazko Produktuen Katalogoa

Urteko garai hau seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailuak oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako 100 Euskara Zerbitzuz baino gehiagok Euskarazko Produktuen Katalogoaren 24. edizioa osatu dute.

Web-orriak eta paperezko edizioak itxura berriak estreinatu dituzte, eta jasotako produktuak bi ataletan dituzte sailkatuak: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin.

Paperezko edizioaren 70.000 ale banatuko dira egunotan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Azkeneko urteotan bezala, bi azal izanen ditu, katalogoaren bi atalei sarbidea errazteko.

Katalogoko artikulua guzti-guztiak ikusi nahi dituztenek, berriz, webgunera jo beharko dute. Etengabe eguneratzen da eta bi adin tartetako atalen artean, 7.400 produktu inguru biltzen ditu. Atal bakoitzak bere direktorioa du, eta produktu motaren arabera bilaketaren bidez, tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bila daitezke.

Azken nobedadeen berri izan nahi dutenek buletin elektronikora harpidetzeko aukera dute web-orrian. Harpidetuen urte osoan hamar buletin jasoko dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziekin. Izan ere, horixe da KATALOGOA.EUSen helburua: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea.



Haurrak



Gazteak

sartu webgunera
www.katalogoa.eus

Kalea Melon
liburu & jostailuak

Jostailu jasangarriak generorik gabeko liburuak eta bihotzak inektzeko liburuak.
Hazkuntza kontzientea.
Haurra sosean eraman nahi duzu?
Etorri eta aholkuak ematen dizkizugul!

Ospatu Gabonak Gurekin!

Jaipe Urte 29 (Ezondo 14)
T 945580058 M 620480445 - kalea@kaleamelon.com

hotel-balneario
elgorriaga
hotel-balneario

TOP 10

Espainiar Estatuko
10 bainuetxe
onenetarikoen
artean

Eguberrietan opari bonoak!

Informazioa eta erreserbak:
www.balnearioelgorriaga.com | 948 456 045
reservas@balnearioelgorriaga.com

Gure Txokoak ez du zuzendaritza taldea berritzea lortu

Abenduaren 17an eginen dute berriz ere batzar orokorra zuzendaritza taldea aldatzeko

A.LARRETXE

Gure Txokoa Elkarateak zuzendaritza aldatzeko batzar orokorra egin zuen azaroaren 12an Iamotenean. 20 bat lagun elkartu ziren batzarrean, elkarateak duen bazkide kopuritik hagitz urruti, egun 1.800 bazkide baino gehiago baititu. Batzarreko puntu nagusia zuzendaritza taldea berritzea zen, egindako bileran, ordea, ez zen zuzendaritza sartzeko ez norbanako ez talderik aurkeztu. Hori ikusita, bertze batzar baterako deia egin du elkarateak abenduaren 17rako.

Egungo zuzendaritzako bi kide prest agertu dira bertze urtebetez segitzeko, eta zuzendaritza sartuko diren bazkide berrien lehen urtean kudeaketarekin laguntzeko. Guttienez lau lagun behar dira zuzendaritza sartzeko, hala ezarria baitago elkaratearen oinarrietan. Hala ere, lau lagun baino gehiagok ere har dezakete elkaratea kudeatzeko ardura. Interesa duen norbanakoa bakarrik aurkez daiteke talderik gabe ere, eta egoera berean dauden bertze batzuekin osa daiteke taldea.



Ricardo Baroja eskolako 4. mailako ikasleak Elexpurrekin. UTZITAKOA

Ricardo Baroja eskolako ikasleak udalaren jarduna ezagutzen izan dira

TTIPI-TTAPA

Ricardo Baroja eskola publiko laugarren mailako 22 ikasle udaletxean izan ziren urri bukaeran alkatea ezagutu, egiten duten lana ikusi eta eskaera bat egiteko.

Aitor Elexpuru alkateak alkate izan aitzinetik, zinegotzia izan zela kontatu zien, eta gaur

egun jardunaldi osoz aritzen dela lanean.

Funtzionamenduaren berri eman zien, eta urteko kopuru zehatz bat izaten dutela inbertsioak egiteko. Ikasleek herriko igerilekua konpondu eta txirrista paratzeko eskaera egin zioten agiri ofizial baten bidez, eta eskaera erregistratu zuten.

PAGOLA
Harategia - Hestebeteak

Altzate Plaza, 2 · Bera · T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

JAIONE - COXOTECIA

Etxean egindako produktua

948 630 786
Altzate, 21 · BERA

Urte xaharra Churrut Jatetxean, bai ederki!!

Hotel Churrut
HOTEL

Foruen plaza | BERA | T. 948 62 55 40
T. 948 62 55 42
www.hotelchurrut.com

Oporrengatik itxia:
Urtarrilaren 9tik otsailaren 9ra (biak barne)

2022ko Urte Zahar Gaueko Menua

Guijuelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin,
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin,
Ganbolak plantzan.

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko kremazko tututxoak,
txokolate bero eta mandarina-izozkiarekin,
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Alkorta ardo beltz ondua (Erricea), Las Campanas ardo gorria (Garnatxa), Las Campanas ardo zuria (Chardonnay), Codorniu Brut Cava, Kafea eta likore kopa.

Prezioa: 85€+ BEZ

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

LABE ZAR

Astrolabioetik
ortzira: 07:15etik
aitzineria

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzineria

948 631 076 · BERA

Ezkerra bertsolariari buruzko solasaldia abenduaren 2an

'Joxe Mari Ezkerra, XIX. mendeko bertsolariaren misterioa' hitzaldia eskainiko dute Joxan Elosegik eta Aitor Errazkinek


A.LARRETXE

Aurten ere *Uscaldunac* garen *ezqueroekimenaren* barrenean solasaldi bat antolatu dute Berako Udaleko Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlanean. Solasaldia Bera-landetan izanen da, abenduaren 2an, 18:00etan, Joxan Elosegiren eta Aitor Errazkinekin eskutik.

Elosegik eta Errazkinek Ezkerra bertsolaria ikertu dute, eta haren ibilbidearen eta bizitzaren gaineko informazio aunitz bildu dute. Ezkerra XIX. mendearen lehen zatian Euskal Herriko bertsolari garrantzitsuenetariko bat izan zen. Beratarra zela gaur-gaurkoz ezin ziurtatu bada ere, badi-rudi zantzu fidagarrienek hori diotela. Bertsolari oparoa izan zen, eta solasaldian haren

zenbait bertso sorta ere eza-gutzera emanen dituzte.

Berako udal artxiboan gordetako 1882ko eskuizkribu baten aitzakian hasi ziren antolatzaileak hitzaldiak eta bertzelako ekitaldiak antolatzeko. Eskuizkribu hori orain arte euskaraz aurkitutako testu administratibo bakane-takoa da, eta horren edukiak eta xehetasunak ikertzen ibili ziren Ekaitz Santiziliak eta Mikel Tabernak eskaini zuten lehen hitzaldia. 2021ean ekimenaren ardatza oikonomia izan zen, hau da, etxeen izenak. Orduko hartan *Etxe izenak: ezaugarri orokorrak eta Berako erabilera* hitzaldia eskaini zuten Paxkual Rekalde eta Andres Iñigo euskaltzainek, eta Oskar Alegriaren *Emak bakia* dokumentala ikusteko aukera izan zen.



Etxepare ezkerretik hasita lehena, bertze ikerlariekin. NAFARROAKO UNIBERTSITATE KLINIKA

Mirari Etxepare, biriketako minbiziaren aurkako tratamenduan ikerlari

A.LARRETXE

Nafarroako Unibertsitateko Cima ikerketa guneko ikertzaileek immunoterapiarekiko erresistenteak diren biriketako tumoreek tratamenduari erantzutea lortu dute. Ikerketan parte hartu duten ikerlari horien artean dago Ciman doktoretza tesia egiten ari den Mirari Etxepare beratarra.

Zientzialariek ikusi dute biriketako tumoreen ahulgunea DSTYK inhibizioan dagoela, tumorearen garapenean inplikatutako proteina mota batean. Proteina hori pazienteen ehune-ko handi batek aldatuta

dutela ondorioztatu dute ikerlariek. Azterketa honek lehenengo erlazioan du DSTYK proteinaren eta biriketako minbiziaren arteko mendekotasuna. Aurkikuntza horrek immunoterapiari erantzungo ez dioten pazienteak identifikatzea ahalbidetzen du.

Biriketako minbizia da minbiziarekin lotutako heriotza-kausa nagusia munduan. Onkologia Medikoen Espainiako Elkartearen azken txostenaren arabera minbizi mota horrek eragiten du minbiziak munduan eragindako heriotzen % 18.


BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA


LOREAK ETA LANFAKAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826


BI SASKIREN ZOZKETA ABENDUAREN 31RA BITARTE!



Nafarroa hegoaldean
elakitateko produktuk,
bertako ekoizpena sustatzen



Zuberoan elakitateko produktuk,
bertako elakitateko laguntza

948 630 981 • 620 828 757
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA


Letxunborro hirib. 86, IRUN - (bezeroentzako parking estalia)


JOLASAREN MAGIA



Jauzena

Zure oparia hemen!!!

T. denda 948 631 217 - T. 630 136 863 - Julio Caro Baroja, 6-BERA - jaurenabera@gmail.com

IGONE

LIBURU-DENDA | PAPER-DENDA
JOSTAILU-DENDA | MARGO-DENDA

KANTTONBERRI, 4 BERA | T. 948 630 626
papeteriaigone@gmail.com

- 30€-tik gorako erosketetan %5eko deskontua Ttipi-Txartelarekin.
- Famili ugariarentzat deskontuak.

Logos: B., Obell, mibee's birth, LUDU, DJECO, Doudou, KAPLA, dena, BIODUPP, BS, EverEarth.

URKILÄ

HARATEGIA

HARATEGIA | CARNICERÍA | BOUCHERIE

Kanttonberri, 12 - BERA
T. 948 630 439 - 666 407 210

moda-opariak

topshop

xulufraia

Altzate 18, Bera

SMAZIZIOR
edariak

BERA
SILVIA MAZIZIOR S.L.
Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA
Tel: +34 948 63 15 57
+34 676 05 16 60
maziziorsenper@gmail.com

Nahi al duzu sorta bat erosi edo zure gustura egin?

San Jose zahar etxeak diru bilketa hasi du

Fundazioaren egoera ekonomikoa «txarra baino txarragoa» dela jakinarazi dute

A.LARRETXE

San Jose adinekoen egoitza kudeatzen duen San Jose Fundazioak diru bilketa abiatu du egoitzak dituen gabeziak asetzeko. Gaur egun 40 egoiliar ditu egoitzak, bertze bi erabiltzaile daude eguneko zentroan. Egoiliarretatik bik bakarrik jasotzen dute euren plaza ordaintzeko dirulaguntza, eta fundazioak udalaren diru laguntza «ttiki» bat jasotzen du.

Fundazioak jakinarazi duenez, egoera ekonomikoa «txarra baino txarragoa da», eta

kezkaturik daude ezin dituztelako egoitzak dituen beharrak ase: komunak birgaitzea, atek aldatzea, armairuak berritzea, komungeriatrikoak berritzea... Lan horiek «nahitaez» egin beharrekoak direla diote.

Laboral Kutxa banketxean kontu bat ireki dute diru ekarpenak biltzeko: ES22 3035 0135 92 1350019245. Gainera, bizum bidez ere egin daiteke ekarpena 06329 kodearen bidez.

Ekarpena fundazio batentzat izanen denez, emandakoaren %25 itzultzen da hurrengo errenta aitorpenean.

Bortzirietako Bertso Eskolaren taldekako txapelketa abenduaren 10ean

A.LARRETXE

Bortzirietako Bertso Eskolak taldekako txapelketaren XXIII. edizioa egingen du abenduaren 10ean Beran eta Lesakan. 12:00etan hasiko da lehia Katakun, eta bertan bertsolariak banaka ariko dira. Ondotik, taldekatzeak egingen dituzte,

eta taldeetan ariko dira. Finalerdiak Lesakan jokatu dituzte 16:00etan Zialdon eta Antoiun 17:30ean. Finala, berriaz, Arranon egingen dute afalondon. 15 euroko prezioa du finaleko afariak eta 618 963 011 zenbakira mezu bat bidali behar da apuntatzeko.

Triki poteoa eta patata tortilla lehiaketa abenduaren 3an

A.LARRETXE

Herriko besten ondotik sortu zen Barraskilo Gazte Taldeak antolatuta, abenduaren 3an Nafarroaren Eguna eta Euskararen Eguna ospatzeko triki poteoa eta patata tortilla lehiaketa egingen dituzte herriko gazteek.

17:00etan hasiko da triki poteoa Auzoan eta handik Lixoia, Katakun, Bidaxka, Ikulua eta Errekalde ostatuetatik pasa eta Toki Onako estalpean bukatuko da. Bertan hasiko da 18:30ean patata tortilla lehiaketa.

Talde bakoitzean hiru parte hartzaile izanen dira, eta antolakuntzak 8 arroltze, patatak, olioak eta gatza emanen dizkie lehiakideei. Kozinatzen tresnak norberak ekarri beharko ditu, eta ordu eta erdiko denbora izanen dute tortillak prestatzeko. Gainera talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.

Azken asteetan logo lehiaketa egin dute, eta eguna aprobetxatuko dute aurkeztutako logoen artean taldearen logoa aukeratzeko.



UTZITAKOA

Sallesko herritarren bisita

Sallesko herritarren bisita izan dugu berriki. Sallesko txirrindulari talde bat bizikletan etorri zen Berara eta azken zatia beratar batzuekin batera egin zuten. Astebete beranduago, aldiz, Sallesko ikasle talde baten bisita izan zuten. Herriko hainbat txoko ikusi zituzten, eta inguruko herrietara txangoak ere egin zituzten.

Zuei esker
gaude gu hemen!
MILA ESKER!

Ostargi optika

Bea Artola Ferran Optiko-optometrista kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

2. eskuko bizikletak

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
korrika egiteko zintak...



Kanttonberri, 1 | BERA
Tel. 948 631 218
joxemi@kateabike.com



www.kateabike.com





Javier Igoak lehen saria lortu zuen ekainaren 4an Elgoibarren. [BARREN.EUS](http://barren.eus)

Javier Igoak hainbat sari lortu ditu aurten margo lehiaketetan

Elgoibarren ekainean lortutako lehen sariaz gain, bigarren izan da Elorrión eta Lakuntzan eta hirugarren Soroluzen eta Ziraukin

AITOR AROTZENA

Margotzea afizioa du Javier Igoak eta aspaldiko urtetan margo lehiaketa azkarretan parte hartu du. Aunitzetan sariak ere lortu ditu. Aurten ere ibilia da harat-honatean eta zenbait sari lortu ditu. Honela, udaberrian, Soroluzen (Gipuzkoa) hirugarren saria

eskuratu zuen maiatzaren 9an eta Elgoibarren (Gipuzkoa) sari nagusia ekainaren 4an.

Udako atsedena diaren ondoren, udazkenean ere lehiaketetan ibili da eta aste guttiren barruan sariak lortu ditu. Honela, Ziraukin (Nafarroa) hirugarren saria eskuratu zuen urriaren 23an, Elorrión (Biz-

kaia) bigarren saria urriaren 29an eta Lakuntzan (Nafarroa) bigarren saria azaroaren 5ean.

Guztietan, hainbat estilotan margotzen duten margolari onenekin lehiatu da, baina Igoak dioenez, «ez da karrera bat bezalakoa, horregatik, gero eta zailagoa da podiuma egitea». Adibidez, parte hartu duen azken lehiaketan, Lakuntzan, lehenbiziko saria eskuratu zuen margolana guztiz errealista zen, eta bigarren, saria, Igoarena, «inpresionista totala». Margolariak aipatu digunez, «guk koadroa egiten dugu, gero bertzeen eskutan gelditzen da hori baloratzea». Hori bai, «gero eta gogorragoa» egiten zaio. «Goizeko seietan goiti –dio Igoak–, gosalduta, traste guztiak prestatu, ordu edo ordu eta erdiko bidea egin, sinadura, margotzeko lekua harrapatu, ea zer eguraldi egiten duen, eguzkia, haizea, euria... Presaka margotu behar da, metroko koadroko lientzoa bete behar, ordu bietarako bukatu, deusetarako denborarik gabe...» Halere, gustuko lana duela onartu digu eta «azkenean, hagitik kontent, suertea handia izan dut epaimahaiekin eta nire lana baloratu dute».

40. urteurrena ospatuko du abesbatzak abenduaren 18an

Lesakako Abesbatzak bere 40. urteurrena ospatuko du abenduaren 18an elizan, meza batekin (11:30ean) eta ondoren, kontzertu batekin. 1982an sortu zenetik bere erreperatorioko obra garrantzitsuenak interpretatuko ditu.

Abesbatzaren lehen kontzertua Santa Zezilia egunean izan zen, 1982an. Orduetik, Euskal Herri osoan (Basauri, Gasteiz, Burlata, Azkaine, Hendai, Iruñeko Gaiarre antzokia eta katedrala, Erronkari, Zumarraga, Miranda Arga, Aiegi, Biarritz, Lizarra...) abestu du, eta Euskal Herriatik kanpo, Cuencan, Kantabrian, Toledon, Burgosen, Errioxan, Salamancan... Abesbatzak aktiboki parte hartzen du herriko kultur bizitzan, ekitaldi herrikoietan eta bertze musika taldeekin batera ekitaldiak antolatzen. Gaur egun 38 koralistek osatzen dute abesbatza, Zuzendaria Marisol Pérez Olaetxea da, Maider Goizueta Sarratearen laguntzarekin.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidade
www.kulturkari.com

2023ko egutegiak
Hainbat modelo
Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gainekoak, posterrak, hozkailuko imanak...

Osatz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARRAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altxate 1 BERA

TXIRULA
OPARI TXARTILA
Zurte 6300

- Eguberrietako Pazko lore aukera ezberdinak
- Etxea apaintzeko gaiak
- Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUSI!!
Albistur 39 **LESAKA** · T. 948 627 542

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Arnasguneak antzerki-beka irabazi duen lana estreinatu du Mairuk. KULTURAZ

'Intxaurra' estreinatu du Mairu antzerki tailerrak

Azpeitian azaroaren 18an egindako emanaldiaren ondotik, abenduaren 3an Iruritan eta 10ean Harriondoan izanen dira

AITOR AROTZENA

Azaroaren 18an estreinatu zuen Mairu antzerki tailerrak *Intxaurra* antzezlanak, Arnasa Gara egitasmoaren Arnasguneak antzerki-bekaren irabazleak. Azpeitiko Antzerki Topaketetan izan zen lehen emanaldia eta ondotik hainbat udalerritan ikusi ahal izanen da. Iazko abenduan irabazi zuten antzerki-beka, eta antzezlanak prestatzeko egonaldia Azpeitiko Dinamoa Sormen Gunean egin dute.

Gaixorik dagoen intxaurren doaren iruditik abiatuta, enborra biziberritzearen beharra islatzen du *Intxaurra* antzezlanak, gainerako adarrek ere osasuntsu iraun dezaten. Horrela, euskararen arnasgune diren herrien ezaugarriak, kezkak, mugak, iragana eta etorkizuna agertuko dira istorioan barrena. Mairu antzerki tailerreko Gaizka Sarasolak idatzi du testua, eta Manex Fusch aritu da zuzendaritza lanetan.

Gaizka Sarasolak azaldu duenez, Dinamoko egonaldiak albaindua zuten lana borobiltzen lagundu die: «Aukera

paregabea izan da hainbertze egunez espazioa eta baliabide teknikoak eskura izatea. Lana egin eta ongi pasatzea gauza ederra da. *Intxaurrak* forma hartu eta taldea indartzeko balio izan digu». *Intxaurra* sortzeko arnasguneen gaiak antzerki taldean zer eragiten duen izan dute abiapuntu; zein kezka, zalantza, oroitzapen, irudi, hitz, ideia, metafora... eta osagai horiekin guztiekin ondu dute istorioa. Sarasolaren ustez, *Intxaurra* ikusten dutenek «aukera izanen dute hunkitzeko, irri egiteko edota hausnartzeko», eta adierazi du batean eta bertzean emanaldiak egiteko irrikaz daudela: «Normalean gure komunitatetik edaten dugu gure antzezlanak sortzeko, gure inguru hurbilenetik, bere ezaugarri eta iruditegietatik.

Orain, UEMAko herrietan eta bertze batzuetan lan hau eskaintzeko aukera izanen dute. Eskualdean, abenduaren 3an Iruritan Gizarte Bilgunean eta 10ean Lesakako Harriondoan izanen dira, Mairuk antolatzen duen Keinu Leihoak zikloaren barrenean.

18. Keinu Leihoak zikloa abiatu da

Mairu Antzerki tailerrak Lesakako udalaren eta Arrano elkartearen laguntzaz antolatutako Keinu Leihoak Antzerki zikloaren hemezortzigarren edizioa abiatu da. Azkenean heldutasunera heldu direla ospatzeko edo, hiru emanaldi eskaini beharrean lau prestatu dituzte. Mairu antzerki tailerretik diotenez, «helduak gara, baina ez dugu gaztetxoek 'kontra' egiteko izpiritua galdu nahi. Izan ere, zerbaiten kontra altxatu edo oihu egiteko motiborik baden bitartean, iraunen baitu antzerkiak». Lehen emanaldia azaroaren 27an, joan den igandean egitekoa zuten Harriondoan. Artedrama eta Axut! antzerki taldeen eskutik, Arkaitz Cano idazleak idatzi eta Ximun Fuchsek zuzentutako *Hondamendia* antzezlanak ikusgai izan zen.

Abenduan hiru gehiago

Abenduaren 2an, ortziralean 20:30ean, Katuska taldeak *Armiarma* antzezlanak taularatuko du Arrano elkartearen Sarrera doan izanen da.

Abenduaren 10ean, larunbatean 19:00etan Harriondoan kultur etxean, *Intxaurra* lana eskainiko du Mairu antzerkitailerrak. Sarrera 6 euro gostako da.

Azkenik, **abenduaren 17an**, larunbatean 19:00etan Metrokoadroka antzerki taldearen *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* antzezlanak eskainiko du Harriondoan. Sarrera 6 euro gostako da.

**LESAKAKO ZERBITZU
ETA KOMERTZIOEN...**

**Eguberrietako
azoka**

PARTEHARTZAILEAK:

- Kattagorria
- Txinela
- Amura
- Pittin
- Intzuri
- Bixkiak
- Oreaka
- Ortzader
- Comercial Maria Jesus

**ABENDUAREN 4AN
BEHEKO PLAZAN
10:00-18:30**

LESAKAKO ZERBITZUEN ELKARTEA

Lesakako Udala

Gobierno de Navarra

Eguberrietako Haur Txokoa apuntatzeko epea abenduaren 5ean bukatuko da

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak eguberrietako oporetan Haur Txokoa antolatu du. Haur Txokoa hurrek bere denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune bat da, solidaritatean

eta berdintasunean oinarritzen dena. Bidenabar, gurasoei aukera ematen zaie seme-alaben heziketa euren lanarekin edota denbora librearekin bateratu ahal izateko.

3 eta 12 urte bitarteko haurrei bideratuta dago eta eguneroko haurrak hiru orduz ego-

nen dira bertan, abenduaren 23, 27, 28, 29 eta urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte. Arantzako eskolako gimnasioan, Berako Beralandetan, Etxalarko eskola zaharretan, Igantziko eskolako gimnasioan eta Lesakako komentuan izanen dira Haur Txokoak.

Izena emateko www.igantzi.eus webgunean agertzen diren jarraibideen arabera eginen

da. Formularioa bete behar da eta berdintasuna@bortziriakberd.eus helbidera edo 722 69 30 78 WhatsApp zenbakira bidali behar da edo inprimatu, bete eta Igantziko udaketxera eraman (Berdintasun saileko bulegoa beheko solairuan dago) abenduaren 5a bitarte. Prezioa 20 eurokoa da eta Dindaiako monitoreei eman behar zaie lehen egunean.



Roqués organoa zaharberritzeko lanen lehen fasean ari dira. ARTXIBOKOA

Lesakako organora bisita gidatua abenduaren 4an

Igandean 18:00etan Ruben Perez Iracheta organogilea egiten ari den zaharberritze prozesua erakutsiko dute

AITOR AROTZENA

Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkartek bisita gidatua antolatu du abenduaren 4an, igandean 18:00etan, Ruben Perez Iracheta organogilea San Martin elizako Roqués organoan egiten ari den zaharberritze prozesua erakusteko.

Bisita gidatuan zaharberritze prozesuaren irudiak proiektatuko dituzte eta organora hurbiltzeko aukera izanen da. Bisitaren helburuetako bat herritarrak kultur ondare materialaren –organoa– balioan hezte da, bai eta immaterialaren balioan ere –organogin-

tza–, kulturarako sarbidea sustatuz.

Elkartek Mezenasgo Kulturalari (MECNA) egindako ekarpenekin jasotako laguntza eskertu du. Ekarpenera horiei esker eta Nafarroako Gobernutik hartutako dirulaguntzarekin batera, proiektuaren lehen fasea gauzatu ahal izan da.

Aurten, 2022an, elkartek MECNA zigilua eskuratu du berriro, bigarren fasea finantzatzeko eta zaharberritzea bukatzeko. Hau da aurreikusitako azken mezenasgo-kanpaina.



Zure hurbileko kuttunak entzutearen gozamina



Entzun bai, baina ulertzen ez baduzu, Inguruan zarata dagoenean elkarriketak jarraitzea kosta egitea bazaizu, Ahopean hitz egiten dutela iruditzen bazaizu, Telebistaren bolumena goratzen baduzu.



Lagundu zaitzakegu



BAI, DOAKO KONTSULTA NAHI DUT



IRUN

943 633 305

Paseo Colón, 27



HERNANI

943 386 962

Elkano Kalea, 35



Gomendatu diren osasun-neurri guztiak hartzeko konpromisoa ziurtatzen dizugu Auditek-en.

auditekcentroauditivo.com



AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

Asociación Nacional de Audioprotesistas
Asociación Nacional de Audioprotesistas





Aurten gutitan hedatu dituzte sareak. LAURA ELIZAGOIEN

10 dozena uso harrapatuta bukatu da ehiza denboraldia

Usazaleentzat urte kaxkarra izan da, baina bisita gidatueta 270 lagunek parte hartu dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Aurtengo denboraldia txarra izan da usazaleentzat. Urriaren 1ean hasi eta azaroaren 20a arte hamar dozena uso harrapatu dituzte sareetan. Uso guti pasatu dira Etxalartik, gehiena itsaso aldetik pasatu baita. Sasoiko egun gehienetan haizegoa egin du eta ezin izan dituzte sarerik paratu egun aunitzetan. Uso pasa izan denean, berriz, altuegi etorri dira. Ohiturari eutsiz, larunbathonetan, abenduaren 3an, Pirinioetako sareetako usazale guztien (Etxalar, Sara, Napal, Oskix, Lanne, Lantabat,



Usazaleen lanaren berri ematen.

Lekunberri eta Aldude) bazkaria egingen dute Alduden.

Bisitei dagokienez, 270 lagun inguruk egin dituzte bisita gidatuak. Bisitetarako bai, eguraldi ederra izan da.

Tarraco-Oiasso bide erromatarrari buruz aurkezpena

Tarraco-Oiasso bide erromatarra Nafarroan eta beste meatzee-bide batzuk liburua erromatar aurkezpena izan zen azaroaren 18an Kultur Etxean. Aranzadi elkartearen eskutik, Etxalarko udala eta Kultur Etxeak lagunduta, Juan Mari Martinez Txoperena eta Rafael Zubiria Mujikak liburua aurkeztu zuten. Egileen hipotesiaren arabera, gaur egungo Tarragona eta Irun arteko bide hau gure eskualdean Txarutako lepotik jausten zen Doneztebera eta Bidasoa bazterretik Iruneraino ailegatzen zen.

Eguberrietako Haur Txokoan apuntatzeko azken egunak

Bortzirietako berdintasun zerbitzuaren eskutik Haur txokoa prestatu dute eguberrietarako. Etxalarko 3 eta 12 urte bitarteko haurrek ere aukera izanen dute abenduaren 23, 27, 28, 29, 30 eta urtarriaren 2, 3, 4 eta 5ean goizeko 10:00etatik 13:00etara Etxalarren haur txokoaz gozatzeko. Eskola zaharrean izanen dira. Izen-ematea abenduaren 5a arte egin daiteke www.igantzi.eus helbidean. Prezioa 20 eurokoa da eta xehetasun gehiago 34. orrian topa daiteke.

Adriaan Labadieren arte lanak ikusgai kultur etxean

Kultur Etxearen 20. Urteurreneko ekitaldien barrenean azkena, abenduaren 12tik 20ra Adriaan Labadieren arte lanak ikusgai egonen dira kultur etxean. Astegunetan (16:00etatik 19:30era), larunbatean (12:00-14:00 eta 18:00-20:00) eta igandean (12:00-14:00).



UTZITAKO ARGAZKIA

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

zelain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

LIDERA
HORIZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Itzurunzubiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es @liderahortzklina

Kultur Aste mugitua dator abenduaren 6tik 11ra

Bakarriketak, solasaldiak, lehiaketak, dokumentalak, zinema, dantzak eta tailerrak izanen dituzte egitarau oparoan

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Abenduaren 6tik 11ra izanen diren kultur egunak umorez hasiko dira. **Abenduaren 6an**, asteartean 18:30ean Baratzondon, *Luze edo motz* emanaldia eskainiko dute Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak.

Abenduaren 7an *Etxe-izenen nondik norakoak eta Igantziko adibideak* solasaldia emanen du Andres Iñigo euskaltzainak 19:00etan Eskolzarren.

Abenduaren 8an goiz-arratsaldean izanen dira ekitaldiak. 11:00etan hasita patata tortilla txapelketa izanen da frontoian, eta ondotik pintxopotea. Txapelketan parte hartzeko egun berean eman behar da izena, eta osagaiak eta sua norberak eraman beharko ditu. 16:30ean, haurrentzako gozo tailerra izanen da, eta ondotik merienda Biltokin.

Ortziralean, **abenduak 9**, ginkana izanen da, 16:30ean frontoitik abiatuta. 19:00etan, *Urak aske* dokumentala ikusteko aukera izanen da, Baratzondon. Artikutzako urtegia botatzeak bertan desagertzear zegoen espezie bati, mutur-

luze piriniotarrari, babesleku segurua eskaini dio.

Abenduaren 10ean, larunbata, haurrentzako zine emanaldiak izanen dira. Lehenik ttikienentzako (3-6 urte, 16:30ean hasita, eta 17:30etik aitzinera 7 urtetik goitikoena. Joaten direnek krispetak izanen dituzte.

Azken egunean, **abenduaren 11n**, herriko dantzarien txanda izanen da, 11:30ean hasita. Plazako jaialdia alde batera utzita, oraingo honetan herrian barrena eskainiko dituzte beraien dantzak. 16:30ean gimnasioan, *Geure liburuak erakitzen* haurrentzako ipuin tailerra izanen da, Berako Trini Mikelarena idazle eta ilustratzailearen eskutik. Ordu berean, Baratzondon, mus eta partxis txapelketak jokatu dituzte. Izena emateko bikoteak 10 euro ordaindu beharko du.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Udala, Biltoki, Biltoki Ttiki, eskola, Baratzondo Jubilatuen Elkartea eta Igantziko Dantza Taldea eta zenbait herritar aritu dira antolatzen.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Guraso eskola arrakastatsua

Nafarroako Guraso Eskolaren eskutik eta Guraso Elkartearen bidez egin zen guraso eskola. *Hazkuntza positiboa: Eguneroko jarduna errazteko gakoak* izenburupean hemezortzi lagunek hartu zuten parte eta erran digutenez, ikastaroa hagitz interesgarria eta polita izan zen



UTZITAKOA

Maitasun erromantikoa deseraikitzen

Maitasun erromantiko deseraikitzen goiburupean egindako solasaldian hemeretzi lagun bildu ziren herriko etxeko goiko aretoan azaroaren 11n. Bi orduz gustura aski aritu ziren, Idoia Lekuren gidaritzapean ideiak elkarbanatzen eta solasean.

Fermín Matellanes doktorea
Otorrinolaringologia
 Laser kirurgia eta irrati-frekuentzia

Bertigoaren diagnostikoa eta tratamendua 3D bidez

BERTIGOAREN ETA OREKA ALTERAZIOEN UNITATEA

Artzai Onaren Plaza, 7. Donostia.

T. 943 322 646 - 691 775 458

R.P.S.: 116/15

Donato Larretxearen omenaldia larunbat honetan

Herri kirolak, bazkaria, bertsolariak eta musikariak izanen dira eguneko osagaiak

NEREA ALZURI

Aspalditik kanpoan bizi baldin bada ere, herrian sortua da Donato Larretxea Lizardi aizkolari ezaguna. Euskal Herrian eta gure lurretatik kanpo ere, aizkolari ospetsua da eta sari aunitz hartu ditu bere herri kirol ibilbidean.

Norberak bere sorterria betiko duela pentsatzen du nire gisara Perikoren bordako Donatok ere. Sorlekua ezin baitaiteke bertze herri batekin ordezkatu. Herriak ere maite du Donato eta bere omenez egun ederra prestatu da larunbat

honetarako. Udalak eta Gure Kirolen Klubak antolatuta, omenaldi ekitaldiaren baitan, 12:00etan herri kirol saioa izanen da. 14:30ean, Manolo Arozena, Julen Zelaieta eta Bittor Elizagoien bertsolariek eta Beñat eta Andoni Mitxelena anaia musikariak giro tutako herri bazkaria izanen da frontoian. Berogailua ere paratuko dute frontoian.

Donatok eta herriak goxoki oroitu dute egun hau. Zorionak Donato! Oraindik leitu ez baduzue, Donatori eginiko elkarriketa 8. orrialdean duzue.



Duela zazpi urte eskolako antzerkietan ateratako argazkia. ARANTZAKO ESKOLA

Eskolako antzezlanak abenduaren 16an egingen dituzte

N. ALZURI

Aspaldiko ohiturarekin segituz, antzezlanak lantzen ari dira eskolan. Abenduaren 16an, etxeko eta lagunen aitzinean ariko dira aktore gaztetxoak. 15:00etan eginga dute hitzordua.

Ondoko antzezlanak taularatuko dituzte: Haur Hezkuntzakoek *Krokodilo lagunak*;

Lehen Hezkuntzako lehenbizi-ko, bigarren eta hirugarren mailakoek *Pirata eskola*; eta laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek *Oto be-jetarianoak*. DBHko ikasleak, berriz, aurkezle lanetan ariko dira. Antzerkien ondotik, familien ekarpenekin osatutako zareen zozketa egingen dute.

Hainbat jarduera egin dituzte eskolako lagunek

N. ALZURI

Antzerkiak prestatzearekin batera, abenduko bertze hitzordu baterako prestaketak egiten ere ari dira eskolan. DBHko ikasleak, erraterako, Olentzero berria egiten ari dira abenduaren 24rako dena prest izateko.

Bertzetik, udazken honetan gaztainak biltzen ere ibili dira eskolako lagunek, adinaren arabera taldetan banatuta. Eta bildutakoak danbolinean erreta jan dituzte! Haur Hezkuntzakoek bizkotxo goxo bat ere prestatu dute elkarrekin, baita jan ere!



Haur Hezkuntzakoak gaztainak biltzen. ARANTZAKO ESKOLA

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK

· BOLETIN INDUSTRIA
 · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

EGUNEKO MENUA
 SAGARDOTEGI MENUA
 KARTA
 OGITARTEKOAK
 PLATER KONBINATUAK ...
 T. 948 625 472
 Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
 Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Delitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzaillea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

103 urte osasunez bete ditu Latsako Isabel Inda Arregik

1919ko azaroaren 18an Gazteluko Senpernean sortua, Sunbillara ezkondu eta 30 urte zituenetik bertan bizi da

MAIDER PETRIRENA

Isabel Inda Arregi 1919ko azaroaren 18an sortu zen Gazteluko Senpernean. 30 urterekin Sunbillako Jose Mari Elizondo Bazterrikarekin ezkondu zen eta Latsa baserrira etorri zen bizitzera. Latsako eskolan hamar urtez sukaldari lanak egin zituen. Eskola itxi zenean etxea eta umeak zaintzen segitu zuen. Bortz seme-alaba, zazpi biloba eta hamabi birbiloba izan ditu. Joan den ortziralean 103. Urtebetetzea ospatu zuen etxekoekin. Duela hiru urte, ehun urte bete zituenean,



Isabel Inda 103. urtebetetzean.

Sunbillako ohorezko alkate izendatu zuten.

Herriko trikitilari gaztetxoak Aurtizko bestetan

Ikasturte berria hasi eta Aurtizko bestetan, Mendaurren trikitixa-pandero eskolak antolatutako emanaldian parte hartzeko aukera ederra izaten dute herriko Aurkene Iturralde Ezkurra, Haizea Larzabal Arriola eta Ainhoa Armendariz Aizkorbe trikitilariak.



Trikitilariak Aurtizen. OIHANA ARRIOLA



JUAN ANTONIO IBARRA

Jubilotekan ate irekiak

JubiloteKaren funtzionamendua ezagutzeko, Malerreka herrietan ate irekiera egunak antolatu zituzten. Sunbillan, azaroaren 15ean 10:00etatik 12:30ak bitarte izan zen eta bertan egiten dituzten lanak erakusteko aukera izan zuten bertaratutakoei, baita funtzionamendua ere.



ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako aretxea ezagutzen eskolan

Nafarroako aretxea elkarteak emandako hitzaldia eta ekimena aitzinera eramateko aukera izan zuten Sunbillako eskolako Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoek. Bertako komertzioan erostearen, naturaren eta elkarlanaren garrantziaz hausnartu eta legoekin jostatu zuten.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Karrika, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Eltzeta, 20
31770 LESAKA
T. 948 638 077

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

Hilaren 11n egingen dute Santa Luzia eguneko azoka

Abenduaren 11ko azokaz gain, 13an meza eta hamaiketakoa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Santa Luzia egunaren aitzakian hainbat ekitaldi izanen dira Donezteben heldu den egunetan. Berez, Santa Luzia eguna hilaren 13an bada ere, egun hori asteartea izaki, ohiko azoka igandean, abenduaren 11n egingen dute Santa Luzia plazan eguraldi ona bada, eta frontoian txarra bada.

Hainbat postu egonen dira goizean Doneztebeko karriketan. Arratsaldean ere ekitaldiren bat izanen da, baina, orri hauek idazterakoan oraindik ez dute zehaztu zer ekitaldi egingen duten.

Santa Luzia eguneko postuen artean Doneztebeko eskolako Erreka Guraso Elkartek postua paratuko du. Azaroaren 28an eta 29an jostailu eta liburu bilketa



Guraso elkarteak postua paratuko du.

egitekoa zuten, eta bildutako produktu horiek denak abenduaren 11n paratuko dituzte salgai. Bildutako dirua Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari emanen diote.

Abenduaren 11ko azokaz gain, hilaren 13an Santa Luzia Egunean, ohitura duten gisan, meza izanen dute eguerdian, eta ondotik meza bertaratutakoendako hamaiketakoa emanen dute.

Alboko esklerosi amiotrofikoaren aldeko futbol lehia hilaren 6an

TTIPI-TTAPA

Laugarrenez EAE Alboko esklerosi amiotrofikoaren aldeko futbol torneoak egingen dute Donezteben abenduaren 6an. Torneo solidarioa izanen da, eta bildutako dirua Ane-la Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Nafarroako Elkarteari alde izanen da. Torneoaren bidez, gainera, gaitzari ikusgarritasuna eman nahi diote.

Infantil mailako taldeak ariko dira jokoan torneoan, tartean baita herriko futbol taldeko gaztetxoak ere. Doneztebeko taldeaz gain, Baztango taldea ere ariko da, eta baita Realeko, Athleticeko, Osasunako eta Aleveseko infantil taldeak ere.

09:30ean hasi eta 12:00ak arte sailkapen faseko partidak jokatu dituzte, 12:30ean finalerdia eta 13:30ean finala. Ondotik, sari banaketa egingen dute eta hamaiketako izanen da parte hartzaileen zat.

Bertso afaria abenduaren 2an Santa Marian


Lapaitza Gazte Asanbladak, Euskaraldiko Batzordeak, Malerreko Bertso Eskolak eta Malerreko Mankomunitateak antolatuta, Euskaraldiari bukaera emateko bertso afaria egingen dute abenduaren 2an Doneztebeko Santa Maria jatetxean. Hiru bertsolari nafar ariko dira kantuan: Xabat Illarregi leitzarra eta Maddi Ane Txoperena eta Josu Sanjurjo le-sakarrak.

Afariaren aitzinetik 19:00etan trikipotea egonen da.

Santa Mariako Joxe Apeztegia sukaldaria saritua

Alimenta Navarra sariketako Nafarroako Produktuaren Enbaxadore Berria saria eskuratu du berriki Santa Maria jatetxeko Joxe Apeztegia sukaldaria. Saria hartzerakoan birramatxi, amatxi eta ama izan zituen gogoan Apeztegiak.





ONDIKOL

Jende aunitz ibili da ferietan

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, giro ederra izan zuten azaroaren 18an ospatutako ferietan. Aziendak eta merkatarien postuak ikusteko aukera izan zen goizean, eta arratsaldean frontoia bete egin zen herri kirolak ikusteko. Horren inguruko informazio gehiago 61. orrialdean.

Errekaren Mendiaren Eguna «handia» izan da aurten ere

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 12an ospatu zuten Erreka Elkartaren Mendiaren Eguna. Ibai Marizkurrena, mendi ataleko arduradunaren erranetan egun «handia» izan zen. Goizean irteera egin zuten Bonozorrotzera, ondotik potea eta bazkaria, eta eguna

borobiltzeko Alex Txikon izan zen *Anwar* pelikula aurkezteko: «Izugarritzko egun ederra pasatu genuen. Eskerrak eman ekitaldietara etorritako jende guztiari, horrelako egunekin gogotsu jarraituko dugu berriz ere heldu den urtean bertze zerbait antolatzen!».



Gaztetxoen pilota partidetan parte hartu zuten pilotariak. UTZITAKOA

Giro ederra izan dute Aurtizko San Martin bestetan

Alde iluna ere izan dute bestek, herriko bazter batzuetan kalteak eragin baitituzte batzuek

ARKAITZ MINDEGIA

Aurtengo San Martin bestak ederki ospatu dituzte Aurtizen. Ekitaldiz beterik zeuden azaroaren 10etik 13ko egunak, eguraldia erelagun izan genuen. Ortzegunean txupinazoa bota ondotik, herritarren arteko herri kirolak, haur jokoak, XX. trikitixa jaialdia, motozerra erakustaldia, gaztetxoen eta profesionalen pilota partiduak, eta dantzaldiak osatu zuten programa. Gainera, bestetan falta ez diren otorduak ere izan zituzten; zopak, herri bazkaria Ander Lizarralde eta Sebastian Lizaso bertsolariekin, gazte

bazkaria eta postre eta tortilla lehiaketa. Giro onean ospatu dituzte herritar guztiak eta bertaratu direnak ere. Alde txarra ere eduki dute, batzuek herriko bazter batzuetan kalteak eragin zituzten. Orain hurrengo urteko besten esperoan geldituko gara, inauterietarako guttiago falta baita.

Kirolariak sasoiko

Herriko kirolariak sasoiko dau-de. Behobia-Donostia lasterketa egin du Oier Mikelarenak. Ugaitz Elizalde pilotaria, aldiz, Garfe enpresaren lau eta erdikoa jokatzen ari da.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA

- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERTAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A - Km 48,8 - DONEZTEBE - T. 948 450 272 - 948 450 787

Guillermo LARRAÑAGA doktorea

KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak

Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



Doneztebeko Kurkuma taldea izanen da Piz&Lohi jaialdian.

Piz&Lohi musika jaialdia prest dute astebururako

Ostiral arratsean adituko dira lehen musika soinuak, baina igande arratsaldean hainbat taldek kontzertuak emanen dituzte

FERMIN ETXEKOLONEA

Piz&Lohi musika jaialdia antolatuko dute herriko gazteek asteburu honetarako.

Abenduaren 2an, ostiralean 20:00 aldera hasiko da giroa berotzen, Satelitik, Madame Birrots eta Harat taldeen musikarekin. Gero, estalpean talo-jatea izanen dute.

Halere egun handia **abenduaren 3a** izanen da, larunbata. Nafarroako zaindariaren eta euskararen eguna ez ezik, eskualdeko eta inguruko musika taldeen lana ezagutzera emateko eguna ere izanen da Zubietan. Eguerdian partean

aperitiboa izanen da eta aldi berean, Espainiako Guadalajaratik etorritako Zorromono DJ izanen da musika jartzen. 14:00etan bazkaria izanen da. Normalean antolatzaileak eta musikariak biltzen dira, baina nahi duen guztiarentzat irekia izanen da. 18:00etan berriz ere musika doinuak zabalduko dituzte Ajataka, Kurkuma, Goroldio, Ziek, Larba eta Aho Zakil Konekxion taldeek. Besta akitzeko Djak izanen dira. Estalpean taberna ere antolatuko dute eta bakoitzak norbere edalontzia eramateko aholkua eman dute.



Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
imprimircasaoostiz@gmail.com

OSTIZ

ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA




3.676 ahobizi eta belarriprestek eman dute Euskaraldian izena eskualdean

	2020	2022	2020	2022	2020	2022	2020	2022
BAZTAN	1.176	880	1.039	792	137	88	70	78
Almandoz	7	8	7	8	0	0	0	1
Amaiur	45	33	40	30	5	3	1	2
Aniz	23	16	23	16	0	0	1	1
Arizkun	54	54	52	50	2	4	2	3
Arraioz	42	34	39	29	3	5	1	1
Azpilkueta	28	17	27	17	1	0	0	0
Berroeta	26	28	26	28	0	0	0	0
Elbete	26	22	21	17	5	5	1	1
Elizondo	515	342	432	301	83	41	47	48
Erratzu	143	113	131	105	12	8	5	6
Gartzain	41	28	34	25	7	3	0	1
Irurita	116	89	104	79	12	10	4	5
Lekaroz	48	38	46	35	2	3	5	6
Oronoz	37	39	35	35	2	4	2	2
Ziga	25	19	22	17	3	2	1	1
BORTZIRIAK	1.189	1.151	1.056	1.027	133	124	90	84
Arantza	181	204	174	191	7	13	7	11
Bera	478	494	402	428	76	66	28	28
Etxalar	105	66	92	62	13	4	11	10
Igantzi	95	69	81	57	14	12	9	6
Lesaka	330	318	307	289	23	29	35	29
MALERREKA	569	626	520	561	49	65	21	51
B. Labaien	10	20	10	18	0	2	0	1
Bertizarana	65	71	59	62	6	9	2	4
Donamaria	80	73	74	65	6	8	1	2
Doneztebe	168	176	150	155	18	21	13	31
Elgorriaga	31	0	28	0	3	0	0	0
Eratsun	13	31	13	28	0	3	1	1
Ezkurra	3	1	2	1	1	0	1	1
Ituren	76	87	71	80	5	7	0	2
Oiz	2	5	1	3	1	2	0	1
Saldias	8	7	8	7	0	0	1	2
Sunbilla	63	75	56	72	7	3	2	5
Urroz	9	20	9	16	0	4	0	0
Zubieta	41	60	39	54	2	6	0	1
LEITZALDEA	854	749	812	688	42	61	62	65
Arano	28	29	25	25	4	4	1	1
Areso	56	45	55	42	1	3	2	2
Goizueta	275	197	265	186	10	11	17	16
Leitza	495	478	467	435	28	43	42	46
XARETA	306	270	257	227	49	43	12	13
Urdazubi	82	78	71	74	11	4	0	1
Sara*	113	88	93	75	20	13	4	4
Senpere*	113	104	93	78	18	26	7	7
Zugarramudi*	-	-	-	-	-	-	1	1
GUZTIRA	4.094	3.676	3.684	3.295	410	381	255	291

*2020an bezala, aurtan ere zugarramurdiarrek ondoko herrietan eman dute izena. Bertalde, Sarako eta Senpereko datuak behin-behinekoak dira.

DONAMARIAKO HERRIKO OSTATUA

Etxeko janaria, plater konbinatuak, eguneko menua, asteburuko menua...

T. 948 45 08 90
@donamariko_ostatua



MALERREKA-BERTIZARANA

30.000 euroko inbertsioa zaborra murrizteko

Malerrekako Mankomunitateak 30.000 euroko inbertsioa egin du hondakinen sorrera murrizteko kanpainak egiteko

TTIPI-TTAPA

2022an Malerrekako Mankomunitateak hainbat ekintza eta kanpaina garatu ditu hondakinen sorrera murrizteko etasortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko. Zehazki Malerrekako eskoletan elikagaien xahuketa murrizteko, hondakinen sorreraren prebentzioa bultzatzeko, biohondakinen birziklapena sustatzeko eta gainerako hiri-hondakinen kudeaketa hobetzeko kanpaina espezifikoak garatu dituzte. Guztira, 2022an, Mankomunitateak 30.000 euro

baino gehiago inbertitu ditu ekintza horiek guztiak egiteko, eta gehienak 2022ko Hondakinen Urteko Funtsak diruz lagundu ditu.

Hondakinen Urteko Funtsa Nafarroako Mankomunitateek zabortegira bideratzen duten hondakin tona bakoitzeko ordaintzen duten kanonaren bitartez hornitzen da. Urte osoan bildutako dirua entitatei itzultzen zaie hondakinen kudeaketa hobetzeko aurrera ateratzen dituzten ekintzen, hondakinen murrizpen edota birziklapen datuen arabera.

Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte Ezkurran

JAIONE ZABALO

Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte Ezkurran. Euskararen Egunean berean, abenduaren 3an izanen dituzte lehenengo ekintzak. 16:00etan txapak egiteko aukera izanen dute, gero 17:00etan DJ Porruk alaituko du giroa eta eguna bukatzeko 18:00etan txokolatada egingen dute. Abenduaren 10ean jarraituko dute ospakizuna, Barranka jate-txeko triki bertso afariarekin. Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo bertsolariak ariko dira kantuan eta Joxe eta Iñaki trikitilariak musika jotzen.

Jubiloteakako ate irekiak

Azaroaren 17an jubilotekako ate irekien eguna ospatu zen Ezkurran. Parte-hartzaileek urte osoan egin dituzten lan



Jubiloteakako ate irekiak. JAIONE ZABALO

guztiak, egiten dituzten ariketa fisikoak eta mentalak ere erakutsi zizkieten bisitariei, eta, amaitzeko, jubilotekan ikasitako abestiak kantatu zituzten.

Bisitariak ez ziren eskuak hutsik joan, eurek egindako orrialde-markatzaile bat eraman zuten opari. Gainera, bisitariei gonbidapena luzatu zieten jubilotekan izena emateko eta bertan parte hartzeko.

Malerrekako Txuri-Urdinak peñaren aurkezpena hilaren 11n

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Txuri-Urdinak peñak inaugurazioa besta egingen du abenduaren 11n, igandea. 12:00etan paratu dute hitzordua Julia gozotegian, eta bertatik hasita poteoa egingen dute txistulari eta trikitixarekin. Ondotik, 13:30ean

sorpresa iragarri dute zineman. Eguna borobiltzeko, bazkaria izanen dute Donamariakobentan. Izena emateko azken eguna abenduaren 4an izanen da, eta ondoko zenbakietara deituta egin behar da: 616 344 433 (Juan Ramon) eta 639 131 170 (Mathias).



NEREA MEOKI

Legasako eskolaren III. Azoka Eguna

Legasako eskolak antolatuta, III. Azoka Eguna ospatu zuten azaroaren 17an. Ikasleek, eskulanak eta postreak prestatu zituzten eta hauen familiek ere parte hartu zuten. Jende multzo polita hurbildu eta ortzegun goiz polita pasatu zuten. «Mila esker azokan parte hartu eta hurbildu zineten guztiei» adierazi dute.



UTZITAKOIA

Arotzenea eskola Euskaraldiarekin bat

Abenduaren 2ra bitartean izanen da Euskaraldiaren hirugarren edizioa eta eskualdean aunitz dira Euskaraldiarekin bat egin dute norbanakoak eta entitateak. Narbarte Arotzenea eskola ere bat egin du, eta horretarako ikasleek argazkia atera zuten Euskaraldiko lehen egunean.



Mendizaleak Arantzako Putzubeltzan. UTZITAKOA

Arantzako Putzubeltzan izan dira mendizaleak

37 bazkidek hartu zuten parte Arantzan egindako mendi ateraldian

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko hirugarren as- tearteko ohiturari jarraituz, Arantzan elkartu ziren azaroaren 16an Arkupeak elkar- teko 37 bazkide mendi buel- taxa bat emateko. 09:00etan egina zuten hitzordua. Hasieran Mendieder aldera joateko intentzioa zuten, baina, izugarrizko haizea zebilen, eta bertze ibilbide bat osatzea pentsatu eta azkenean Putzubeltzera joan ziren.

Arantzako aterpetik atera eta marka urdin eta xuriak jarraituz Gaisenberreko gain- ean barna, Azkilarrea au- zotik barna joan ziren. Arru- neko bordako iturriko aska- tik pasa ondotik gosaldut- zen. Euri pixka bat hasi zuen orduan, eta agudo mu- gitu ziren beren helmugara. Oinez pixka batean ibili, eta Semearen bordatik beheiti Putzubeltzera ailegatu zen mendizale kuadrilla.

Putzubeltzera iritsi zirenean atertu zuen eta bakarren bat uretara ere sartu zen. Argaz- kiak atera eta bide beretik Arantzara bueltatu ziren.

Hamaika kilometro inguru eta hiru ordu eta erdi ibili ondotik Arantzako Pabloenea jatetxean bazkari eder bate- kin bukatu zuten eguna. Hu- rrengo ateraldia abenduan izanen dute, ohiturari segituz hilaren hirugarren asteartean elkartuko dira mendira joa- teko.

Pablori agurra

Pablo, gaitz baten ondorioz utzi gaituzu. Arkupeak jubilatuen elkarteko bazkide eta idazkari zinen. Aurtengo maiatzean mendira joan zinen elkarteko mendizaleekin, eta ederki pasatu, baina hurrengo egunean sumatu zenuen ez zegoela ongi zure gorputza.

Jubilatuen elkartean asko lagundu diguzu. Proposatu genizunean Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, galdera hauxe egin zenuen: baina zergatik ni?, zergatik proposatzen didazue niri?. Gure erantzuna: Ikusten

Arrakastatsuak izan dira egoitzei buruzko hitzaldiak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 16an elkar- teak an- tolatuta *zahar etxeak, egune- ko egoitzak eta pisu tutelatuak* hitzaldiak eskaini zituzten Leitza- n, Beran, Elizondon eta Donezteben. Arrakastatsuak izan ziren hitzaldiak, eta hu- rrenez hurren Donezteben 42

lagun, Leitza- n 53, Elizondon 30 eta Beran 45 elkartu ziren. Hitzaldiak «hagitz ongi» atera ziren, eta ia bi ordu egon ziren, gainera, jendearen galderak ere erantzun zituzten. Elkar- teak eskerrak eman nahi dizkie Pablori, Jokini, Junkali eta Edurneri beren lanagatik.

Jose Elizalde eta Roman Matxiñena mus txapel- dunak

Azaroaren 10ean jokatu zituzten Donezteben aurtengo mus txapelketako finalak. Lehen postuan Jose Elizalde eta Roman Matxiñena gelditu ziren, bigarren Matias Arriada eta Nicolas Alkasena eta hirugarrenean Juan Sagastibeltza eta Juan Estanga.



Pablo Irastortza Ugaldebere.

dugu beti prest zaudela laguntzeko, eta elkartean horrelako jendea behar dugu. Bizia egokitua zenuen: mendizalea, kirolaria, familia

zaintzen, famili- az gozatzen... Hala ere, egun batzuk pasatu, eta pentsatu ondotik, baiezko erantzuna eman zenuen. Eta gero horrela gertatu da. Laguntza handia eman diguzu, ez bakarrik zure karguan, idazkari lanetan, baizik eta elkarteko beste zereginetan ere, adibidez, bidaiak, mendi irteerak eta abar prestatzen, beti borondate onarekin, eta irribarrean aurpegian. Horiek izan dira, besteak beste, zure ezaugarriak gure artean.

Pablo, eskerrak aunitz, eta eskerrik asko eta doluminak familiari. Goian bego.

Jeiki abesbatzak kontzertua emanen du larunbatean

Horrez gain, asteburuan zinema euskaraz izanen da, eta tartean 'Black is beltza II, Ainhua' ikusteko aukera izanen da

TTIPI-TTAPA

«Jeiki abesbatza haunditzen-haunditzen...». Horixe bera iragarri zuen duela gutxi abesbatzak sare sozialetan, zazpi kide gehiago bildu direlako taldera. «Elkarrekin abes-tuz uzten dizkiguten txoko guztiakalaituko ditugula» zioen abesbatzak eta larunbat honetan, abenduaren 3an, izanen du horretarako aukera. Euskararen Nazioarteko eta Nafarroako egunen harira, kontzertua emanen du Herri Aretoan. Emanaldia 12:00etan hasiko da.

Jeiki abesbatzaren kontzertua ez da asteburu honetako hitzordu bakarra izanen, zinema ere izanen baita. Kasu honetan ere Euskararen Nazioarteko Egunaekin bat eginenez, bi pelikulak euskaraz izanen dira, bai larunbatean, baita igandean ere. 16:30eko saioetan *Nire zirkua* ikusteko aukera izanen da eta 19:00etan *Black is beltza II, Ainhua*.

Abenduaren 11n, berriz, Artedrama eta Axut konpainiek *Hondamendia* antzezlanataularatuko dute Herri Aretoan, 19:00etan.



ENERITZ IRAOLA

Jende ugari produktuen azokan

LeitzEKO kontsumo taldeak antolatuta, Leitzako eta Aresoko produktuen azokaren zortzigarren edizioa egin zuten azaroaren 13an. Eguraldia lagun, plazan egin ahal izan zuten azoka eta itxura ederra hartu zuen. Produktuetan aukera zabala izateaz gain, inoiz baino azienda gehiago bildu zen.



Mikel Nieve. CAJA RURAL

Kirol Merituaren zilarrezko domina hartu du Mikel Nievek

TTIPI-TTAPA

Txirindularitza profesionalean egin duen hamalau urteko ibilbidea saritu nahian, Nafarroako Gobernuak Kirol Merituaren zilarrezko domina eman dio Mikel Nieve Iturraldei. Aurten hartu du erretiroa Nievek, eta bere ibilbidean, Italiako Giroan lortutako hiru etapa garaipenak eta Espainiako Vueltan irabazitako etapa azpimarratu dituzte, baita hiru itzuli handietako sailkapen orokorrean hamar lehenbizikoen artean sei aldiz sailkatu izana ere.

Domina hauek Nafarroako Gobernuak kirola arloan eman ditzakeen sari gorenak dira. Urrezko eta zilarrezko dominak emanez, kirol ibilbiderik onenak bereizi nahi izaten ditu, bai banakako kirolarien artean, baita teknikarien edo zuzendarien artean ere, betiere Nafarroako kirolaren sustapenean nabarmendu baldin badira. Sari banaketa azaroaren 30ean egitekoa zuten.



Joanes Illarregi. BDB

Larunbatean Bilbon jokatu den saioan ariko da Joanes Illarregi

TTIPI-TTAPA

«Txapelketari begira dudana helburua gozatzea da, bertotan gustura eta ongi egitea. Eta hortik aurrera, zertan gezurrik esan, ahal den urrutien ailegatzea ere bai». Halaxe zioen Joanes Illarregi Marzol bertsolariak Bertsolari Txapelketa Nagusia hasteko atarian. Bada bai, urruti ailegatu da; aurreneko fasean 711 puntu lortuta finalaurreko bigarren itzulira sailkatzea lortu duten 18 bertsolarietako bat bera izan baita.

Larunbat honetan, Bilboko Bizkaia frontoian jokatu den azken finalaurrekoan ariko da Illarregi eta berarekin batera, Amets Arzallus Antia, Aitor Mendiluze Gonzalez, Jone Uria Albizuri, Maddalen Arzallus Antia eta Saioa Alkaiza Guallar ariko dira. Puntuazioak gehituta, puntuazio altuena duten zazpi bertsolarien lortuko dute Iruñeko finalean kantatzeko txartela. Zortetik onena opar diogu Illarregiri!



Maria Feo Espainiako zailtasun eskaladan hirugarren

20 urtez azpikoen kategorian podiuma zapaldu du 18 urteko herritarrak

TTIPI-TTAPA

Urrutira joan gabe, eskalada munduan bada nabarmendu beharreko izen bat: Maria Feo Miguela 18 urteko herritarrena. Joan den azaroaren 19an Getafen (Espainia) jokatu zen Espainiako zailtasun eskalada txapelketako azken proba, eta

Feo, Nafarroan federatua izanik, Nafarroako taldearekin joan zen. 20 urtez azpikoen kategorian, podiuma zapaldu zuen, Haizea Oses eta Garazi Gurrutxaga beste bi euskaldunen atzetik hirugarren postua lortuz. Zorionak eta segi horrela!



Maria Feo –eskuinetik hasita aurrenekoa– Getafeko podiuma. PABLO FEO

Basozainen bulegoa itxi eta Irurtzunen zentralizatu nahi du gobernua

TTIPI-TTAPA

Leitzako udaletxean dagoen basozainen bulegoa itxi eta Sakana eta Larraun-Mendialdeko bulegoak Irurtzunen zentralizatu nahi ditu Nafarroako Gobernuak. Hala jakinarazi dio Leitzako Udalarai. Azken honek, ordea, ez du begi onezikusi eta Aresoko, Aranoko eta Goizuetako udalekin batera, basozainen bulegoa ez ixteko eta zerbitzua indartzeko eskatu dio gobernuari: «giza baliabide eta baliabide materialak handitu ditzala, eta eskualdean dauden gainerako tokiko erakundeekin

eta eragileekin, hau da, udalekin, suhiltzaile boluntarioekin, ehiztariekin, baserritarren batzordeekin eta elkarteekin elkarlana indartu dezala, gure basoen zaintza eta suteen aurkako neurriak indartzeko».

Azken boladan zerbitzua murriztu dutela salatu dute lau udalek, «2019an bulegoa ixteko saiakera izan zen, eta azkenean irekia mantentzea erabaki bazuten ere, ordutegia asko murriztu zen». Orain bulegoa erabat ixteko asmoa du gobernua. Horren kontra, elkarretaratzea egitekoa zuten azaroaren 28an.

Zeinuen hizkuntzari buruzko tailerra abenduaren 15ean

Urriaz geroztik hainbat gailantzeko tailerrak eta hitzaldiak egin dituzte familia txokoaren barne, eta aurtengo azken saioa abenduaren 15ean, osteguna, egingen dute. Zeinuen hizkuntzaz aritzeko tailerra izanen da, hitz egiten ikasi ez duten haurrekin zeinuen bidez nola komunikatu ikasteko.

Leitzan egin diren orain arteko hitzorduak bezala, abenduaren 15eko tailerra ere udaletxeko bigarren solairuan dagoen batzar aretoan egingen dute, 16:00etan hasi eta 17:30 aldera arte.

Bertsolari Txapelketa Nagusira joateko autobusa

Abenduaren 18an jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Iruñeko Nafarroa Arenan, eta Bertsosale Elkarteak autobus zerbitzua antolatu du hainbat herritatik, tartean Leitzatik. 15 euro balio du autobus txartelak, edozein tokitatik abiatzen dela ere eta www.bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke abenduaren 4ra bitarte. Bertsosale Elkarteak abenduaren 11n publikatuko du abiapuntuaren ordutegia. Dena den, autobusak 09:00-10:00 aldera ailegatzea aurreikusi dute.



MANUELA ARIZTELA
Euskal Produktuak

LIKIDAZIOA URTARRILAREN 31ra arte

Baserritar arropak
Oihalak (aukera zabala)
Ohe eta etxerako arropa
Bularretakoak
Dekorazioa

Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa) - T. 948 61 06 11 - www.manuelaariztela.com






Urumean udan izaten diren arazoei soluzioa bilatu nahian

Aranon eta Goizuetan batzar bana egin dute herritarren ekarpenak biltzeko

TTIPI-TTAPA

Arazoa ez da oraingoa, baina kezka haunditzen ari da. Udan ohiko irudi bihurtu dira Urumea erreka inguruan auto pilaketak, zaborrak.... Horri soluzioa eman nahian elkartu dira Goizuetako eta Aranoko udalak, eta dagoeneko bi batzar egin dituzte *Gure bainu guneak jasangarriagoak nahi ditugu* izenburupean. Azaroaren 17an egin zuten Goizuetako saioa udaletxeko ganbaran eta 18 lagun elkartu ziren.

Unai Miranda alkateak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «jendeak batzarrean parte hartu zuen eta herritarrek ekarpenak egiteko gogotsu ikusi genituen, baina aldi berean, irtenbide errazik eta azkarrik ez dagoela jakitun».

Hala ere, pausoak ematen hasiak dira eta Nafarroako

Gobernuak dirulaguntzarekin, prozesua bideratzeko Bizi-Biziki enpresara jo dute bi herriek, bere garaian gai bera lantzeko Ereñotzuko eta Hernaniko udalek egin zuten bezala. Kasu honetan, Nafarroako Gobernua ari da prozesua

Ekintza plana heldu den urteari begira

Azaroaren 3an Aranon eta 17an Goizuetan egindako batzarretatik ateratako ondorioekin txostena prestatuko du orain Bizi-Biziki enpresak, eta alkateak gaineratu duenez, «horren ondoren, lehen tasunen arabera, heldu den urtean martxan jartzeko ekintza plana garatuko dute. Gero, ekintza horiek aurrera ateratzeko finantziazioa bilatu beharko da».



FELIX LOIARTE

Giro ederra bertso musikatuaren saioan

Azaroaren 11n bertso saio musikatu izan zen udaletxeko ganbaran. Uxue Alkorta, Haizea Arana, Maider Altuna eta Aner Peritz *Euzkitze* aritu ziren kantuan, Ane Apezetxea herritarra gai jartzaile eta Leire Retegi leitzarria musikari. Giro ederra izan zuten, eta herritarrek ere kantuan bukatu zuten.

Ekain pailazoak ikuskizuna egingen du abenduaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Azaroako kultur ekitaldiak atzean utzita, abenduan ere ez da aspertzeko tarterik izanen. Abenduaren 10ean, esaterako, Ekain pailazoa gonbidatu du kultur taldeak.

Ekain Ibarguren Gure Zirkuko artistak *Aho bete hortz*

ikuskizun «dibertigarria eta eroa» egingen du abenduaren 10ean, larunbatarekin, udaletxeko ganbaran.

Emanaldia 18:30ean hasiko da eta sarrera libre izanen da. Dudarik gabe, arratsalde atsegina pasatzeko aukera ezin hobea!



FELIX LOIARTE

Elkartea beteta jubilatuen egunean

Jubilatuaren egunak ez zuen hutsik egin azaroaren 19an eta 20an. Truk txapelketan txapeldunak Felixa eta Pakita izan ziren eta bigarrenak Mari Karmen eta Dolorex. Musean, Antonio eta Juanitok irabazi zuten eta bigarrenak Ixabel eta Eduardo. Biharamuneko bazkarian elkartea bete egin zen.



FELIX LOIARTE

Felisa omendu dute etorkinen egunean

Indartzen ari den ohiturari eutsiz, 30 bat lagun elkartu ziren azaroaren 19an etorkinen eguna ospatzeko. Bazkaldu aurretik, Arantzatik Goizuetara etorri zen Felisa Iparragirrerri omenaldia egin zioten. Oroigarria eta lore sorta eman, aureskua dantzatu eta bi bertso kantatu zizkion Josu Garmendiak.

Gaztazenekoei laguntzeko diru bilketa hasi dute

Suak kalte material haundiak eragin zituen etxean eta diru ekarpenak egiteko kontu zenbakia ireki dute

TTIPI-TTAPA

Ez dute erraz ahaztuko urriaren 25etik 26rako gaua herri-tarrek, eta are gutxiago Gaztazenekoei. Sutearen ondorioz, erabat errea gelditu zen Goiko Herrian dagoen etxea. Zorionez, bertako familiak ez zuen kalte pertsonalik izan, baina kalte materialak oso haundiak izan ziren.

Horregatik ireki dute etxekoei laguntzeko kontu zenbakia. Norbaitek bere ekarpena egin nahi badu kontu zenbaki honetan egin dezake: ES92 2100 4700 9001 0004 2185.



NAFARROAKO SUHILTZAILEAK



AINHOA ANSA ETA MIKEL RUIZ

Sanmartinak giro ederrean

Ibaia ez da toki bat dokumentalarekin hasi ziren San Martin Eguneko ekitaldiak. Talo eta gatzaina jatea oso arrakastatsuak izan ziren, jende asko hurbildu baitzen, eta bertso entrenamenduaren formatua ere ederra izan zen. Bertsolariak herriarrek hitz eginez aritu ziren eta giro goxoa sortu zen.



Tuper berdeak arraindegietan eta gorriak harategietan erabiltzeko dira.

Arraindegi eta harategietarako tuperrak banatu ditu Mendialdea Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Gauregungo araudiak debekatu egiten du erabilera bakarreko plastikoak erabiltzea, eta hala, Mendialdea Mankomunitateak «nahitaezkoa» ikusi du «irtenbide iraunkor bat bilatzea erosketa modu eroso eta jasangarrian egiten jarraitzeko».

Horregatik banatu ditu tuperrak Aranon, Areson, Goizuetan, Larraunen, Leitzan eta Lekunberrin; tuper gorriak harategietan erabiltzeko eta berdeak arraindegietan erabiltzeko dira eta gisa honetara, «erositako produktuak modu seguruan kontserbatu eta garraiatzea» nahi du mankomunitateak.

«Ahalik eta pertsona eta establezimendu gehienek eskualdeko saltokietan erosketak egiterakoan bilgarri berrerabilgarri hauek erabiltzea» nahi du mankomunitateak. Gogoratu dutenez, «haragia, arraina, haragia eta fianbreakerosterakoan plastikozko poltsak, erretiluak eta bestelako ontziak saihestearekin bakarrik murriztu egiten dira produktuak merkatuetatik edo saltokietatik gure etxeetara garraiatzeko sortutako hondakinak».

baititu «hodakinen sorrera murrizteko eta sortutako biohondakinak selektiboki konpostatzeko».

Besteak beste, «etxeko zein komunitateko konpostajearen jarraipena hobetzeko kanpainak» garatu ditu, eta «azalpen-bideoak ere egin ditu herriarrei biohondakinen kudeaketa egokia errazteko». Horrez gain, jaietan eta ospakizunetan erabilera bakarreko edalontziak ez erabiltzeko kanpaina ere egin du, eta udalerrien artean errefus txapelketa lehiaketa bultzatu du.

Guztira «40.000 euro baino gehiago» inbertitu ditu ekintza horietan, eta Mendialdea Mankomunitateak jakinarazi duenez, «gehiena 2022ko Hondakinen Urteko Funtsak diruz lagundu du». Nafarroako mankomunitateek zabortegira bideratzen duten hondakin tona bakoitzeko ordaintzen duten kanonaren bitartez hornitzen da Hondakinen Urteko Funtsa diru poltsa. Poltsa horretan bildutako dirua entitateei itzultzen diete hondakinen kudeaketa hobetzeko ekintzak aurrra ateratzeko.

Ekintza gehiago

2022ko Hondakinen Urteko Funtsak diruz lagunduta Mendialdea Mankomunitateak aurtun egin duen kanpainetako bat da tuperrera, baina ez bakarria, hainbat kanpaina egin

**DIRUZ
LAGUNDUTAKO
HAINBAT KANPAINA
EGIN DITUZTE**



Ines Bengoa haurrentzako eta helduentzako ipuin kontaketa saioa egingen du.

Euskararen Egunerako hainbat ekitaldi

'Euskara ofiziala eta erreala Nafarroa osoan' lelopean kontzentrazioa egingo dute eguerdian

ENERITZ IRAOLA

Abenduaren 3a, larunbata, aresoarrentzat seinalatutako eguna izaten da. Aspalditxoan hasi ziren Euskararen Eguna ospatzen eta aurten ere ekitaldi bat eta beste josiz, egun osoko egitaraua prest dute antolatzaileek. Baserritar jantziak soinean, euskara mingainean... aldarrikapena eta festa eskutik doazela, ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu diete herritarrei.

Musika doinuekin hasiko dute eguna, 10:00etan diana izango baita herriko musikariek. 10:30etik aurrera, euskararen aldeko murala osatu dute plazan eta 11:00etan Areso ezagutuz antzara jolasean ariko dira.

Egunak festa itxura hartzen badu ere, oraindik zer hobetu badagoela azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek: «euskaraz bizitzeko oztupoak, trabak eta mugak asko baitira oraindik ere eta are gehiago Nafarroan». Horregatik, *Euskara Ofiziala eta erreala Nafarroa osoan* lelopean kontzentrazioa egingo dute 12:30ean Plaza Zaharrean.

Ordubiak aldera bazkaritarako bilduko dira Pake Toki elkartearen. Menua pasta tomatearekin edo pasta entsalada, oilasko erreka patatekin eta *kontesa* txokolate beroarekin izango da. Txartelak Sastinean egongo dira salgai azaroaren 30era arte, haurrenak (12 urtera arte) sei eurotan eta helduenak hamabost eurotan.

Arratsaldean gehiago

Arratsalderako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ines Bengoa ipuin-kontalariak haurrentzako saioa eskainiko du 17:00etan udaletxeko pleno aretoan. Ondoren konfeti festa, txokolate jana eta haurrentzako pelikula jarriko dute udaletxeko lehenengo solairuan.

Bien bitartean, 18:00etatik 19:00etara, euskarazko liburu truke azoka egingo dute plazan eta Euskal Herrian Euskaraz-eko materiala ere salgai jarriko dute. Egunari bukaera emateko, 19:00etan helduentzako ipuin erotikoak izango dituzte Ines Bengoa-ekin udaletxean.

Errigorako 17 saski saldu dira aurten herrian

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka kanpainarekin bat egin dute aurten ere aresoarrek. Denera, 17 saski saldu dira. 1.075 euro bildu dira eta horatik %25 (268,75 euro) Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari laguntzeko izango da.

Guraso elkarteko boletoak salgai jarri dituzte

Saski eder baten zozketa egingo du Eguberrietan guraso elkar-teak. Euro baten truke ari dira saltzen boletoak eta elkarteko kideen bitartez eta Sastinean eskura daitezke. Errigorako produktuak, urdaiazpikoa eta hainbat gutxia dituen saskia nahi duenak badaki zer egin!



ENERITZ IRAOLA

Herriko ordezkariak produktuen azokan

Iruñegiko Iurgi eta Oihana, Olatxetako Geno, Felipe bordako Trini eta Alpaiteneko Lurdes eta Jexux. Azaroaren 13an Leitzako plazan egin zen bertako produktuen azokan parte hartu zuten herriko ekoizleak, abeltzainak eta nekazariak dira. Lehenengo sektoreari eutsiz, isilean egiten duten lana plazaratu zutenak.



AMAIA PAZ VALLEJO

Eraso sexisten kontrako seinalea

Duela gutxi eraso sexisten kontrako seinalea jarri du gizarte zerbitzuen mankomunitateak herri sarreran. Amaia Paz Vallejo berdintasun teknikariak aipatu duenez, «seinale hauekin herriak eraso sexistarik ez duela onartzen adierazi nahi da eta horien kontra lan egiten jarraituko dela».

Baztandarrak Erdizen erabakitze-ko eskubidearen alde

750 herritar inguru bildu ziren azaroaren 20an Elizondoko plazan galdeketa debekua salatze-ko

TTIPI-TTAPA

Baztango 14 herrietako alkateek, denek Almandozkoak izan ezik, herri galdeketa antolatu zituzten azaroaren 20an, Erdizko proiektuari buruz herritarren iritzia ezagutze-ko. Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak, ordea, galdeketa bertan behera uztera behartu zituen. Hortaz, galdeketa egitekoak ziren egunean, batzarrak egin zituzten herrietan elkarretartatzea Elizondon. 750 lagun inguru elkartu ziren plazan *Iritzia eman nahi dugu* lelopean.

Ixabel Aleman Amaiurko alkateak hartu zuen hitza; «azaroaren 20a dugu gaur, hamalau alkatek deituta, herri galdeketa egin behar ziren eguna. Ariketa erraza zen: Baztango ordenantzek ahalbidetzen duten gisan, alkateok herritarren iritzia kontsultatu behar genuen. Nonbait, gauzak ez dira horren sinpleak eta, erabakitze-ko eskubidea ebasteaz gain, iritzia emateko aukera ere kendu digute».

Salatu zuenez, «baztandarron hitzak ez die axola Belaten bertze aldetik gobernatzen gaituztenei; parte-hartzeaz eta herritarren interesaz ahoa betetzen duten mandatariei, hain zuzen. Gaur, azaroak 20, inposizio franko Baztanen eta, hara ze paradoxa, urna bera sinbolo bilakatu zaigu, izan ere, eta hondar astean han eta hemen erran dugun gisan, iritzia eman nahi dugul!».

Azkenik, Nafarroako Gobernuari galdera bat zuzendu zion: «ez Batzar Nagusiak ezta herrietako alkateok ere ezin

badugu herri galdeketa egin, nola egin behar du Gobernuak baztandarrok Magnaren meategi egitasmoaz dugun iritzia ezagutze-ko?». Herritarren eskakizuna «sinplea» dela adierazi zuen, «eta ez gara errepikatzeaz nekatuko: inposizio-rik ez, baztandarrok iritzia eman nahi dugu».

Honen ondotik, bozketa sinboliko bat egin zuten. Boto-papera banatu zituzten herritarren artean eta ordu erdiz, banan-banan kioskora igo ziren boto-ontzia betetze-ko.

Herri batzarrak

Elkarretartatzeaz gain herri batzarrak egin zituzten aste-buruan. 500 lagun inguru bildu ziren osotara eta alkateek egoera azaldu zieten; «azaroaren 10ean Guardia Zibilak Elizondoko kuartelera deitu gintuen Espainiako Gobernuak Nafarroan duen delegatuaren errekerimendua banan-banan hartze-ko. Bertan, gure herrikoiei galdetze-ko eskumenik ez genuela adierazi eta galdeketa egiten bagenu, ondorio administratibo edota zibilak pairatzen ahalko genituzkeela jakinarazi ziguten».

Debekua «erabat antidemokratikoa eta baztandarren eskubideen kontrako jazarpena» dela adierazi zuten eta «ordenantzen defentsa sutua» egingen dutela, «gure herriaren iritzia entzun eta behar den lekuetan plazaratu nahi dugulako». Batzar Nagusiak eta alkateek galdeketa egitea debekatua dutenez, Nafarroako Gobernuari erreferenduma antolatzeko eskatu diote.



Baztango alkate eta herritarrek boto-paperekin airean. TTIPI-TTAPA



Alkateak izan ziren galdeketa sinbolikoan parte hartzen lehenak. TTIPI-TTAPA



Adin guztietako herritarrek parte hartu zuten ekitaldian. TTIPI-TTAPA



«Urn sinbolo bilakatu dela» aldarrikatu dute Baztango alkateek. TTIPI-TTAPA

Bete-betea izanen dugu kultur agenda abenduan

Bertzeak bertze, Berdintasun Batzordeak feminismoaren inguruko mahai-inguru eta lantegiak antolatu ditu

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta eragile kulturalak hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertze behin bailaran hilabete honetarako. Azokez gain, solasaldiak, aurkezpenak eta ikuskizunak izanen dira nagusi abenduan Baztanen.

Azokak

Hilabetero bezala, Baztango artisau eta nekazariak Elizondoko plazara aterako dira abenduan. Hilaren 3an, 6an, 8an eta 24an produktu eta eskulanak izanen dira salgai goizez.

Erratzuko artisauek ere azokak egingen dituzte bi igandetan, betiere eguraldia lagun baldin badute. Abenduaren 4an eta 18an, 11:00etatik 15:00etara, herriko plazan izanen dira.

Solasaldiak

(H)ilbeltza ekimenak eta Gaztelu Elkartek antolatua, *Amaiur bat urtero* liburua aurkeztuko du Jon Alonsok abenduaren 2an Amaiurko Otsondo gelan 19:00etan.



Intxaurrak antzerkia. MAIRU TALDEA

Abenduaren 6an Pello Fernandezek, Ziga Fundazioko lehendakariak, Baztango Batzar Nagusian dauden Javier Zigaren margolanen azalpenak emanen ditu bi bisita gidatutan, 11:00etan euskaraz eta 12:00etan gaztelaniaz. Doan izanen dira baina plaza mugatuak izanen dituzte, beraz, aldeztu aurretik izena eman beharko da 948 581 279 telefonora deituz. Informazio gehiago 52. orrian.

Hau, ordea, ez da Fernandezek aurkeztuko duen solasaldi bakarra izanen, hilaren 9an Blancanieves Bertiz Iriarte Oronozen bizi den idazle sunbildarraren liburua aurkeztuko baitu 19:00etan Arizkunenean, Haritz Sagasetaren musikaz lagundua. *Fluyendo* da liburuaren izenburua eta bertan egileak bere bizipenak plazaratzen ditu kontakizun eta olerkien bidez.

Hilaren 15ean 'Euskalgintza eta feminismoaren arteko loturak' mahai-ingurua izanen da Arizkunenean 18:00etan, Lorea Agirreren eta June Fernandezek parte hartzearekin eta Elurre Iriartek dinamizatua. Udaleko Euskara eta Berdintasun Batzordeak antolatu dute eta euskararen normalizazioaren eta genero berdintasunaren arteko antzekotasunak landuko dituzte.

Abenduaren 21ean eta 22an, berriz, Emakumeendako* II. ahalduntze lantegia egingen du Baztango Berdintasun Batzordeak. Arizkunenean elkartuko dira 17:30etik 20:30era eta autoestima eta ahizpata-sunean sakonduko dute, jarriera feminista zer den definitzen saiatzen diren bitartean.

Ikuskizunak eta zinema Iruritan

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, *Intxaurra* antzerkia aurkeztuko du Lesakako Mairu antzerki taldeak Irurritako Gizarte Bilgunean 19:00etan. Baztan-

go Euskaraldiko Batzordeak antolatu du hitzordua eta euskararen arnasmuneak izanen ditu oinarri antzezlanak.

Hilaren 10ean Irurritako Dantzarien Eguna ospatuko du Irurritako Dantzarien elkarteak ikustaldi politarekin, herriko pilotalekuan 18:00etan.

Azkenik, *Bolante baten historia* dokumentala proiektatuko dute Gizarte Bilgunean abenduaren 16an 19:00etan. Filmak Jose Miguel Etxeberria Alvarez Komando Autonomo Antikapitalistako kidearen desagertzea eta bere familiaren bilaketa kontatzen du.

Mahai-jokoen kutxa ibiltaria eta Baztan Kantuz

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak antolatutako bi ekimen hauek bailarako herriz herriko itzuliarekin segituko dute abenduan.

Mahai-jokoen kutxa ibiltariari dagokionez, Anizen txanda izanen da. Abenduaren 3an eta 4an haur, gazte eta helduendako jokoak izanen dira eskuragarri herrian.

Baztan Kantuz ekimena Arraiozen izanen da hilaren 18an, igandea. Kantatzea gus-tuko dutenek Laxoa plazan dute hitzordua 12:00etan.

'AMAIUR BAT URTERO' LIBURUA AURKEZTUKO DU JON ALONSOK 2AN

⇒ Eguberri berexiak...
GU ERE BAI!

⇒ Ez utzi erosketak azken momenturako.

⇒ Oparitu hurbilekoa.

⇒ Oparitu Fantxiken.

JAIME URRUTIA, 15 BEHEA
T. 948 58 03 12 · ELIZONDO

etorri Fantxikera jostailuak ikustera

192.000 euroko laguntza hondakinak kudeatzeko

Hondakinen kudeaketa hobetzeko aurtengo eta heldu den urteko ekintzak finantzatzeko dituzte dirulaguntzarekin

TTIPI-TTAPA

Baztango Hondakin Sailak jakinarazi duenez, «orain arteko Nafarroako Foru Legearen arabera eta heldu den urtetik aitzinera Estatuko Hondakinen legearen arabera, zabortegira bideratzen dugun hondakin tona bakoitzeko kanon bat ordaintzera behartuak gaude. Nafarroan ordaindutako kanonaren bitartez Hondakinen Funtsa diru poltsa hornitzen da». Bildutako dirua mankomunitate eta udalei ematen zaie, «hondakinen kudeaketa hobetzeko ekintzen, eta lortutako hondakinen murrizpen edota birziklapen datuen arabera».

Dirua berreskuratzeko deialdiak bi formatutan ateratzen dira: urteko dirulaguntzak eta hainbat urteetarako. Nafarroako Ingurumen Departamentuak 2021 eta 2022 urteetako dirulaguntzen ebazpenak jakinaraziko dizkio Baztango Udalari eta hiru deialditan onartu dituzte, guztira ia 192.000 euro emanez: 2021ean hainbat urteetarako dirulaguntza (34.817), 2022ko diru-

laguntza (36.885,69) eta 2022an hainbat urteetarako dirulaguntza (120.243,03).

Ekimenak finantzatzeko

Lortutako diruarekin hiru ekimen nagusi finantzatzeko dituzte. Lehenbizikoa **hondakinen prebentzioa** izanen da; errefusa-kopa lehiaketak, erosketa jasangarriak bultzatzeko kanpainak, hondakinen prebentzio eta birziklapen tailerrak... Bigarrena **gai organikoaren birziklapena**: akonpainamendu zerbitzua, eskuorrien banaketa, edukiontzi marroien erosketa... Eta hirugarrena **gainerako frakzioen biltzea eta balorizazioa**: hondakinen egutegia, biltzea kamioietako GPS sistema, ontziak eta paper/kartoia biltzeko edukiontziaren erosketa, garbigeneko berrerabilpen gunearen eraikuntza...

Ekimen hauekin hondakinen kudeaketa hobetzea dute helburu; «zabortegira bideraturiko hondakin kopurua gutitzeko, ordaindu beharreko kanona murrizteko eta frakzio birziklagarriak handitzeko».



Joan den urtean herriko gazteenek krepeak egin zituzten. MAITANE MARITORENA

Asteburu kulturala ospatuko dute Anizen abenduaren 2an eta 3an

MAITANE MARITORENA

Heldu den abenduaren 2an eta 3an Anizen urtero bezala asteburu kulturala izanen dugu. 2an, ortziralean, herri kirolak izanen dira 17:00etan, eta ondotik merienda afaria elkarteak.

Abenduaren 3an, larunbatean, 10:00etan Aizkoko itzulia egingen dugu bertako paraje izenak zeinek diren ikusi eta zenbait tokiri orain artio egin izan den bezala, izena paratzeko. 16:00etan Anizko Kanakoneko Pello Ziaren solasaldia izanen dugu, bere bizitzaren nondik norakoen

berri emanen digu. Haurra zelarrik, hamaika urterekin joan zen Aniztik, Arantzazun egonaldia egin ondotik, kartzelan egondakoa da, ETAn ibilia, sindikalgintzan aritua... badu zer konta Pellok. Kafe tertulia honen ondotik, ftohurrupe izanen dugu, iazko argazkiak ikusi bidenabar, hainbat edariren dastaketa. Akitzeko, 21:00etan kantu zaharren afaria izanen da elkarteak, Joxe Anjel akordeoi-lariak alaiturik.

Ekitaldi hauez gain, mahai jokoen kutxa ibiltaria Anizen izanen da asteburu guztian.



LAN BERTIKALAK

948 031 174

info@anelan.pro

Egiten ditugun lanak:

Fatxaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, telatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.





JATETXEA

Ezkontzak eta ospakizunak

Ospakizunaren arabera menu desberdinak eskaintzen ditugu





Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300 | www.beola.com | 686 152 917



ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA

www.casapuntos.com

618 68 98 55

Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa

Javier Zigarenen Batzar Nagusiko lanak aztergai

Pello Fernandez Oiaregik, Ziga Fundazioko lehendakariak, Batzar Nagusiko margolanei buruzko hausnarketa egin du

PELLO FERNANDEZ

Baztango Udaletxean eginda-ko ikerketen ondorioz, berretsi dezakegu Zigak Batzar Nagusiko aretorako eginiko obra ez dagoela soilik paretak apaintzeko hamar paisaiatz osatua, baizik eta egiazko programa ikonografiko bat dela, erranahi ikonologiko, politiko eta instituzionala duena. Baztango politikaren *santa san-torum*aren, hots, Batzar Nagusiaren garrantzia nabarmentzen du, erakundearen funtsarekin bat heldu den programa bisual bat ondurik, Batzar Nagusia baita Baztango erakunde politikorik gorena eta zinezkoena.

Orain artio pentsatzen zen aretoaren apainketa tamaina handiko hamar paisaiatan zetzala, ezberdinak bai neurritz, bai formatuz. Horri bi margolan gehiago erantsi behar dizkiogu: *Nafarroako armarria* eta *Baztango Batasunaren Alegoria*. Lan horiek Baztango herrien arteko batasunaren egiazko programa alegoriko eta sinbolikoa dira, herri guztiak Unibertsitate deritzon

entitate juridiko bakarrean baturik baitaude, eta Zigak hori Nafarroako Erresumaren antolamendu politiko-administratiboan kokatu zuen.

Hori guztia sabaiaari loturik dagoen friso baten bidez gauzatu eta osatu zuen, non, apaingarriez gain, zortzi armarri txertaturik baitaude, hots, sei merindade historikoetakoak, baita Baztangoa eta Nafarroakoa ere. Nafarroako armarria errepikaturik ageri da margolan exentu gisa. Antolamendu horrek salatzen digu programa arras ongi pentsatua eta koherentziaz beterik dagoela.

Baztango erakunde lehena, Batzar Nagusia, Merindadeei loturik ageri da. Horrekin guztiarekin batera, Baztango hainbat leku ageri dira irudikatuturik, ballean beraren ikusizko erreferentzia osaturik. Hamar paisaia dira, formatu handian eta hainbat neurritan mihise gainean olioiz onduak. Baztango paisaia aurkitu zuen Zigak delako *locus* edo *lur* erreferentzial hori, betiere emozio eta bizipenetan



Javier Ziga artistaren margolanak Baztango Batzar Nagusian. PELLO FERNANDEZ

oinarrituriko bere ikuspegi intimistaren bidez naturaren eredu hutsa goragoko maila batera eramanez, harik eta adierazpen sakon eta trastzendentara iritsi zen arte.

Bisita gidatuak abenduaren 6an
Gaiari buruz sakontzeko, bisita gidatuak egingen ditu Fernandezek 6an 11:00etan eta 12:00etan. Izena emateko deitu 948 581 279 telefonora.




ELBETE^{KO} POSADA

Eguberri hauetan
OPARITU
Elbete Posada

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



MUGARKI

ROKODROMOA ETA GIMNASIOA

ORDUTEGIA

Astelehena: 07:00-21:00

Asteartea: 10:00-14:00 / 16:00-21:00

Asteazkena: 16:00-21:00

Ortzeguna: 10:00-14:00 / 16:00-21:00

Ortziralea: 15:00-21:00

Larunbata: 10:00-14:00

kaixo@mugarki.com - Ordoki poligonoa. ARIZKUN









BAZTANGO EUSKARALDIKO BATZORDEA

Euskaraldia arrakastatsua Baztanen

Baztandarrek bat egin dute Euskaraldiarekin aurten ere. 880 lagunek eman dute izena guztira; 792 ahobizi eta 88 belarriprest. Gainera, 78 arigune izan ditu ekimenak, inoiz baino gehiago, eta herri eta erakundeek Euskaraldiaren aldeko argazkiak egin dituzte.



MAIALEN IANTZI

Sanmartinak giro ederrean Berroetan

Iraganeko beste erreferentzia eginez, berroetarrek bazkaria egin zuten San Martin egunean elkartean giro goxoan. Hurrengo egunean, larunbatean, afaria egin zuten elkartean. 40 lagun bildu ziren mahaiairen bueltan eta Salaberriren musikarekin gaueko ordu tikiak arte luzatu zen.

Baztan Ikastolak urteroko Neguko krosa abenduaren 11n egingen du

TTIPI-TTAPA

Ikastolako Guraso Elkarteak, Baztango Kirol Zerbitzuarekin batera, Herri krosa antolatu du 3-12 urteko haurrei zuzendua. Abenduaren 11n 11:00etan Iriarte pilotalekuan egingen da eta deialdia Baztango eskola guztietarat zabaldu dute.

Parte hartzeko baztanikas-tola.ge@gmail.com helbidera idatzi beharko da, baina egunean bertan ere izena emateko aukera izanen da. Dortsalak banatuko dituzte haurren artean, eta bukaeran animatzen diren guraso eta irakasleek ere parte hartzen ahalko dute.

ferretería

Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK







Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



XAULI ELKARTEA

Estebanen margolana zozketatu du Xaulik

Ezintasun psikikoa dutenekin lan egiten duen Baztango aisialdirako taldeak, Milagros Esteban artistak emandako margolan bat zozketatu zuen Elizondoko ferietan eta Amagoia Sansiñena izan da sariduna. Zorionak! Xaulik eskerrak eman dizkie parte hartu dutenei eta Estebani artelana emateagatik.

Ostatu turistikoaren araudiaren proposamena

Araudia sortzeko, Baztango turismoaren inguruko ikerketa egin dute eta hainbat txosten aurkeztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan Baztango Udalak turismoa izan du azterlan eta hainbat ikerketa egin ditu. Haien artean nabarmenenak dira Erratzuko antolaketaaren ingurukoa, Amaiur eta Baztango turisten profilari buruzkoa, ostatu turistikoaren azterketa eta azkena, 'Ostatu turistikoaren antolaketa arau multzoen idazketa'.

Felipe Saragueta Aholkularitza, Rehabite Aholkularitza Teknikoak eta Ikertalde lantzen ari dira azterketa hau, Baztango Turismo eta Merkataritza zinegotziarekin batera.

Ikerketan, bertzeak bertze, etxebizitza ez printzipal eta hutsak, ostatu plazak 100 biztanleko eta plaza dentsitatea aztertu dituzte. Azaroaren 17an azterketaren emaitzak aurkeztu zituzten udaletxeko ganbaran eta txostenak egin dituzte.

Azterlanean sortutako dokumentuen edukiek hainbat gai lantzen dituzte: Baztango leku turistikoaren inguruko

txostenak, 2021ean alojamentu turistikoaren diagnosia, turismoaren jasagarritasuna eta saturazioa, gaiari lotutako lege juridikoaren ikerketa, planoak, Baztango turismoari buruzko sintesi diagnostikoa eta AMIA analisia...

Araudiaren proposamenaren eta azterketaren dokumentuak *baztan.eus* webgunean daude eskuragarri, 'Informazio interesgarria' atalean.

Herritarren ekarpenak

Prozesuarekin segitzeko, herritarrek proposamen eta galderak bidaltzen ahalko dizkiete abenduaren 5era arte, *ekarpenak@baztan.eus* postara idatziz. Abenduan arauketa dokumentua idatziko dute hartutako ekarpenetan oinarrituz.

Hortik aitzinera, osoko bilkurak onartu beharko du txostena eta plan berezi baten bitartez izanen litzateke prozedura administratiboa, halakoetarako legeak ezartzen dituen alegazio epeak eta gainerakoak kontuan hartuz.

XULE AKADEMIA

ERREFORTZU KLASEAK

DBH ETA BATXILERGOKO IKASLEENTZAT

ELIZONDON

LASTER IREKIKO DUGU

MATEMATIKA
FISIKA - KIMIKA
MARRAZKETA TEKNIKOA

Pedro Axular 10, Elizondo
xuleakademia@gmail.com
624 65 64 88

Elixabete Lizarza Durufy
Arkitektoa eta
Eraikinen Egituratan Ingeniarria

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutxaontzia jaretzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

MARMOLES SOULE

www.marmollessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
KANPOSANTUAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA

Bertze urte batez, **MILA ESKER.**
Mila esker gugan konfidantza izan eta
konfidantza izaten jarraitzen duzuen guztiol.
Hemen jarraituko dugu.
Lan preziatu hau gure mimo, maitasun eta errespetu osoz eginez.
Hilari berriak egiten edo hilari zaharrak zaharberitzen,
panteloak granitoarekin forratzen eta garbitzen,
gurutzeak eta losak garbitzen, harria zizelkatzen...
Ikasten jarraituko dugu hobetzeko.
Zuengatik.

ARIZKUN | marmollessoule@gmail.com | M. 688 605 182 | T. 948 453 444

ALMACO Eraikuntzako materialak

Errepide nagusia, ELIZONDO | 948 580 104 | www.almacobaztan.com

GRUP **GATTIA**




*Kanpoan
hotz,
etxean goxo!*



hergam



BRONPI
la excelencia en el fuego



**Eroso
lan egiteko**



Hesia paratu ondotik Lezapeko zerrakura kenduko dute. MARIFA ETA KORO

Lezapeko belategia erosi eta hesia paratzen ari dira

Belategia 50.000 eurotan erosi du udalak eta hesia paratzeko 23.570 euroko dirulaguntza hartuko du gobernutik

MARIFA ETA KORO

Aldaketa handiak izan ditugu berriki eta gehiago ere izanen dira lezearen kontura: alde batetik, herriak Lezapeko belategia erosi duela, 50.000 euroren truke eta bertze aldetik, Lezapetik hasi eta Eltsospeko azpiko aldeko eremuari hesia ematen ari zaiola.

Hesiaren lanak franko aitzineratuak dira: ehun bat metroko burdinezko itxitura egin dute eta bi ateka paratu dituzte, bata Etxeberriko aldera joaki den bidean, eta bertzea Beretxeko bidea aldera joaki denean. Ondotik, Lezapeko

zerrakura kenduko dute. Lan hauek ordaintzeko 23.570,80 euroko dirulaguntza hartu du udalak.

Pottoka bidean aldaketa

Bertzalde, hainbat ibiltari hartzen dituen Pottoka bideko zati bat aldatuko dute. Hone-la, Sarabidetik hasi beharrean, Palazioko bordako aitzineko bidetik hasiko da bidea, Beretxeko bidea aldera sartu, Artosingo erreka gurutzatu, eta Narkoneko bordako bide zaharretik segituko du. Hemen ere lan batzuk egiten hasiak dira.

Helpbide plakak paratuak dituzte larrialdietarako

Helpbide plakak paratu dituzte toki gehienetan, larrialdietan etxeak errezago atzemateko. Lokalizazio sistema hau 2016an abiatu zuten, Osasunbidearen, suhiltzaileen eta Foruzaingoaren artean, Baztandik egindako eskaera bati erantzunez, baserriak lokalizatzea errazteko.



MARIFA ETA KORO



MARIFA ETA KORO

'Ene kantak' telebistarako grabatzen

Azaroaren 14ko arratsaldean 120 bat haur elkartu ziren lezean, *Ene kantak* ikuskizunaren grabaketarako. Zugarramurdiko eta Urdazubiko eskolako haurrez gain, baziren Saratik, Baztandik eta Doneztebetik etorritakoak ere. Grabaketa hau Eguberrian ETB3n ikusiko da.

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN, S.L.
BERRIKUNTZA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Sasoiko dagoen Iker Vicente izanen da finalera sailkatzeko faborito. ONDIKOL



Maika Ariztegi ingudearekin ariko da.

Herri kirol festa handia egingen dute abenduaren 8an

Urrezko Aizkolari Kopako jardunaldiaz gain, harri-jasotzaileak banaka eta emakumeak taldeka ariko dira

ARANTXA ETA IRAIA

Herri kirol festa handia antolatuko dute abenduaren 8an, ortzegunetik 12:00etan Urdazubiko pilotalekuan. Hamabortz kirolari lehiatuko dira, hainbat modalitatetan banatuak eta Urdazubiko udalaren laguntzarekin antolatutako jaialdia Euskal Telebistak emanen du.

Alde batetik, Urrezko Aizkolari Kopa txapelketa Eusko Label Sariko kanporaketa jokatu dute berriki Nafarroako txapelketa nagusia eta Euskadiko bigarren mailakoa irabaziak dituen Otsagabiko

Iker Vicentek, Urrietako Julen Gabirondok eta Barakaldoko Julen Larrea III.ak. Irabazleak abenduaren 31n Asteasun jokatu den finalerako txartela lortuko du.

Modu berean, binakako harri-jasotze txapelketako lehia jokatu dute Urrestillako Xabier Aranburu *Guztak* eta Zarauzko Xabal Olaizolak, Azkoitiko Jon Unanue *Goenatxo III.a* eta Aiako Hodei Iru-retagoiena *Izeta IV.aren* kontra.

Azkenik, emakumeen herri kirol txapelketa lau kirolekin (txinga eramatea, harri altxa-

tzea, aizkora eta ingudea) jokatu dute, launa emakume bakoitzak bi talderen artean. Oiz taldean Ane Fernandez (Barrundia, Araba), Karmele Gisasola *Zelai III.a* (Mallabia, Bizkaia), Uxue Ansorregi (Mendaro, Gipuzkoa) eta Garazi Arruti (Bilbo, Bizkaia) ariko dira eta Larrun taldean Xanta Sousa lesakarra, Aroa Sanchez (Orio, Gipuzkoa), Nerea Sorondo beratarra eta Maika Ariztegi iturendarra.

'Txapeldun bihotza' bakarrikzeta

Kirolari denak garaipenaren edo txapelaren bila lehiatuko dira abenduaren 8an, dudarik gabe. Eta kirolarekin zerikusi zuzenik ez badu ere, joan den azaroaren 11n *Txapeldun bihotza* bakarrikzeta ikusteko aukera izan zen kultur etxean. Gazte eta helduentzat zuzendutako saio hau, Euskarabi-deak, Nafarroako Gobernuak eta Urdazubiko Udalak antolatua izan zen.

Mus txapelketa azkarra Montxon abenduaren 3an

Montxo ostatuan azaroaren 26an izatekoa zen mus txapelketa azkarra abenduaren 3an gibelatu dute. Aurkeztu zen formatu berean egingen da, larunbatean 21:30ean. 630 22 12 08 whatsapp zenbakian eman daiteke izena (20 euro bikotea).

Gauñara elkarteko afarian giro ederra azaroaren 19an

Joan den azaroaren 19an Gauñara elkartean afaria izan zen. Bazkide eta bazkide ez zirenak hurbildu ziren eta bertze afarietan bezala, giro ezin hobearik akitu zuten eguna. Udazkeneko lehen hotzak goxatzeko ez da mahai-ingurua bezalakorik.

78 lagunek eman dute izena Euskaraldian

Azaroaren 18an hasi zen Euskaraldia eta herrian gogotsu ekin zitzaion ekimen honi, belarriprest (4) zein ahoz (74) erroletan. Joan den aldia aipatu bezala, azaroaren 26rako aperi-tifa baterat deituak ziren ariketa honetan parte hartzen ari diren guztiak.

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berri bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

Biniloak
Pareta eta erakusleihoetarako
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatisak, gardenak, jartzeko errazak...



Finalistei eta txapeldunei berrogeina euroko txekia eman diete. GANEX

Hamalau txapel lortu ditu aurten Sarako Izarra pilota taldeak

Kiroldegian duten gela berritzen ari dira eta pilotarien beztimentak ere berritu nahi dituzte

GANEX

Sarako Izarra pilota elkartearen biltzar nagusia hazilaren 18an egin dute Lur Berri gelan. Denera 80 bat lagun bildu ziren. Guy Mounho lehendakariak eman du urteko bilana. 19 final jokatu dituzte, horietatik 11 Euskal Herriko Batzordean (10 txapel), eta 8 final Union Basque Batasunean (4 txapel). Denera 14 txapel (joan den urtean bortz ziren bakarrak). 104 pilotari badira, partidak Sarako eta Amotzeko trinketean jokatzen dituzte, ezker paretean Azkainen eta errebotekoak plazan eta Omor-

dian, baita kiroldegian ere. Partida ainitzetan Jakes Iriarte izaten dute juja. Edukatzai-leak, esku huska Pantxoa Olzagazti, Daniel eta Mattin Mariluz; xisteran, Guy Mounho.

Bruno Martin diruzainak eman ditu kontuak. Udako manifestazioek dirulaguntza haundia ekartzen dute. Kiroldegian duten gela berritzen ari dira eta pilotarien beztimentak ere nahi lituzkete eraberritu. Pilotariei, bulegokoei, entrentzaileei eta gurasoei eskerrak eman zizkien lehendakariak eta pintxoak eta edatekoak izan ziren.

Zazpiak Bat dantza taldearen 50. urteurrena ospatuko dute larunbatean

GANEX

Zazpiak Bat taldeak aurten ospatzen ditu 50 urte antolatu dela. Karia horretarat, abenduaren 3an, larunbat honetan, arratsaldeko sei oronetan hasita egingen dituzte dantza ikusgarriak: haurren dantzak, Saratarrak, Larrain, Euskal Flash mob... Aipatzekoa da udazken osoan ari direla dantzen entseguak egiten eta azkenak abenduaren 1ean izanen dituzte. Dantzaz gain, musikak ere izanen du bere lekua eta Patxamama taldea eta DJa izanen dira arratsa



Dantza taldeak 50 urte bete ditu.

girotzeko. Kiroldegian gela berotua izanen da, eta ostatua eta pintxoak ere izanen dituzte. Etorri ahal duzuen guziak mende erdia bete duen taldearen sustengatzera.



GANEX

1947an sortutakoen elgarretaratzea

1947an sortutako saratarrek, beraien espos lagunekin, egin dute beraien elgarretatzea hazilaren 19an Sarako pleka trinketeko jatetxean. Denera 30 bazkaltiar baziren, izigarritzko umore onean pasatu dute eguna, euskal kantu eder batzuk emanez.

JOSENEA ENERGIAK

JOSENEAK BAZTAN OIL ZERBITZUAREKIN JARRAITZEN DU

**Erregai Banaketa
Zerbitzu Berria
zure etxera**

INFORMA ZAITEZ!

Ordoki Industrialdea, 47. partzela
31713 Arizkun (Nafarroa)

WhatsApp 625 324 423
Email: energiak@josenea.es

www.josenea.es

KULTURKARI

Dizaina grafiko | Publizitatea
www.kulturkari.com

**Etiketak eta
pegatinak**

Paperean edo biniloan
(opakua edo gardena)

Bobinan edo soletan,
formarekin moztuak...



Suprefeta eta auzapezak herrizaintzari buruz. JL BESSONART

Sei herrien arteko polizia munizipala aurkeztu dute

Ainhua, Arbona, Azkaine, Ezpeleta, Senpere eta Sarak abiatu dute hirizaintza partekatua uda honetan

JL BESSONART

Ainhua, Arbona, Azkaine, Ezpeleta, Senpere eta Sarak hirizaintza partekatu bat abiatu dute uda honetan. Senpere eta Azkainen kokatuak dira sei hirizaintzaleak, hauen lana delakoan sei herri hauetan ibiltzea, bai modu programatu batean, baita herriko etxeen behar edo galdeen arabera ere. Gogoeta bat eramana izana zen, hego Lapurdiko herrien artean eta honi Ezpeletak nahi izan du lotu. Denen ahalak elkartuz, lana erraztua dago eta denbora berean eraginkorragoa izanen da, aiantzi gabe

herritarrekin beharrezko lotura badutela.

Herri hauetako 19.000 bizilagunen seguritatea bermatzea dute helburu beraien presentziarekin. Uztaritze eta Senperereko Jendarmeriak partaide dira automatikoki. Prentsaren aitzinean, Ziburu eta Senperereko auzapezek baita Baionako suprefetak hitza hartu dute, ongi azaltzeko zer abantaila sortu ditzakeen honelako egitasmoak. Iduri luke exenplu honi segituz, bertze herri batzuk ere prest liratekeela honelako proiektua gauzatzeko beraien heinean.

Talaya Quartet abenduaren 4ko kontzertuan

Abenduko kontzertuaren 8. edizioa antolatu du Senperereko Kultur eta Ondare elkarteak. Abenduaren 4an, igandean 17:30ean izanen da elizan. Talaya Quartet laukoteak, eskaintzen duen errepertorioa tradizioz hasi eta musika folklorikora bitarteko bidaia da.

Mathieu Sempere kantari Larrekon abenduaren 10ean

Mathieu Sempere, Les Sten-tors taldeko tenor handiak, Eguberriko kantu batzuk emanen ditu abenduaren 10ean, 21:00etan Larrekon, baita Luis Marianorenak ere. Valérie Ortiz flamenko dantzariak, nahasiko ditu dantzaren ikusmina musikaren emozioarekin.

Artisau eguna eta egurrezko joko festibala egin dituzte San Martin kari

JL BESSONART

Aroaren aldetik erran daiteke San Mattineko uda ongi markatua izan dela eta honekin zenbait ekitaldi. Azaroaren 11n, Artisau/Artisten eguna iragan zen Inharria baserrian 7. aldikotz, Arbasa elkarteak antolaturik. 25 kidek parte hartu zuten erakusketa berezi honetan. Denetarik aurkeztu zituzten: lurrontziak, bitxiak, egurrezko eta larruzko obrak, ehun-lanak eta bertze. Aitor-tzekoa da, animazioak izanik ere, usaian baino jende gutiagor hurbildu dela. Egun horretan ere, urtero bezala, ospakizunak eraman dira meztatik lekura, soldaduen orotarriaren inguruan, garai batean herritar anitzek beraien biziaz pagatu baitzuten agintari batzuen bihotz gabekeria. Azaroaren 12an eta 13an, Egurrezko Joko



Egurrezko 50 joko Larrekon.

festibalak okupatu zuen Larreko kulturgunea, erakusketak eder batekin, Arbasa elkar-tearen ekimenez. 50 joko eskainiak ziren publikoari, bisitariak trebatzeko gisan edozein jokoetan. Hemen ere balorazio ertain bat egin da publikoaren partehartze murriztuarengatik. Han eta hemen besta izanik, hala nola Ahetzeko bestak eta bereziki Lurramak, jendalde polita kendu dute.

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrecea@yahoo.es



Emakumeen podiumean Beti Gazte, Amaiur eta Araxes. ONDIKOL



Gizonen pisu arineko podiumean Beti Gazte, Berriozar eta Amaiur. ONDIKOL

Elizondon banatu dituzte sokatirako azken txapelak

Beti Gaztek irabazi ditu Nafarroako txapel guztiak eta Amaiurko emakumeak bigarren izan dira eta gizasemeak hirugarren

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Nafarroako sokatira txapelketako laugarren eta hondarreko jardunaldia jokatu zuten azaroaren 19an Elizondoko Baztan pilotalekuan. Gizonezkoen 600 kiloko eta emakumezkoen txapelketako bigarren jardunaldia eta finalak jokatu zituzten eta bietan Lesakako Beti Gazte nagusitu zen.

Emakumezkoen seinakako txapelketan Beti Gaztek tiraldi guztiak irabazi zituen, baita Amaiurren kontrako finala ere. Beraz, Beti Gazte txapeldun, Amaiur txapeldunorde eta Araxes hirugarren izan

ziren podiumean. Ondotik sailkatu ziren Berriozar, Txantrea eta Antsoain. Talde txapeldunean Irantz Goienetxe, Udane Arbelaitz, Ainhoa Etxegarai, Ane Gurrutxaga, Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela.

Gizonezkoen 600 kilokoan lan gehiago egin behar izan zuten Beti Gazteko tiralariak txapela janzteko, finalean Berriozarrekin berdindu ondotik, kitarakoa irabazi behar izan baitzuten. Kategoria honetan ere Amaiur podiumera igo zen hirugarren postuan, Txantrea

laugarren izan zen eta Antsoain bosgarren.

Beti Gazteko zortziko txapeldunean, Karmelo Mitxelena, Beñardo Iantzi, Unai Gurrutxaga, Beñat Ordoki, Iñigo Altzugarai, Mattie (Araxes), Agoitz Altzugarai eta Gerardo Telletxea aritu ziren, Oskar Telletxea entrenatzaile zutela.

Gauzak honela, Beti Gaztek lortu ditu Nafarroako txapel guztiak, gizonezkoen 640 eta 600 kilokoa, mistoa eta emakumeena. Amaiurrek ere lan bikaina egin du: gizonezkoen bi kategoriatan hirugarren izan da eta bigarren emakumeen txapelketan. Txapelketa mistoan bi talde kantzaxartu zituen, baina ez zuen podiumera igotzerik lortu.

Euskal Herriko launakakoan lehia ari dira orain

Nafarroakoaren ondotik, atse-denerako astirik gabe, Euskal Herriko launakako sokatira txapelketa hasiko da datorren asteburuan. Azaroaren 27an,

larunbatean, emakumeen txapelketa jokatu dute Antsoainen, 250 kiloko kategorian. Amaiurrek eta Beti Gaztek laukote bana plazaratu dute. Gizonezkoen txapelketa abenduaren 4an jokatu dute txapelketa, 310 kiloko kategorian (laukote bana), Ezpeletan; eta abenduaren 10ean, txapelketa mistoa jokatu dute 280 kiloko kategorian, Berriozarren (bina talde). Amaiurrek 21 urtez beheitikoa ere bi laukote atera ditu.

Ondotik, martxoaren 8tik 11ra Munduko sokatira txapelketa jokatzekoa da Belfast inguruan (Ipar Irlanda). Amaiurrek ez du parte hartzeko asmorik eta Beti Gaztek oraindik ez du erabakirik hartu.

MUNDUKO TXAPELKETA IPAR IRLANDAN IZANEN DA MARTXOAN

Profesionaletako lehen txapela jantzi du Iker Salaberria goizuetarrak

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Iker Salaberria pilotari goizuetarrak profesionaletan lortu-tako lehen txapela jantzi zuen azaroaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Promozio mailako lau eta erdiko txapelketaren finalean 22-16 irabazi zion Julen Eguiguren azpeitiarrari.

Lehen tantoa azpeitiarra egin zuen, eta 10-6 aurretik ere izan zen. Baina hamartanto segidan egin zituen Salaberriak (10-16) eta aldeari eutsi zion bukaera arte. Garaipen honek 2023an lehen mailako lau eta erdiko txapelketa jokatzeko atea irekiko dio Salaberriari.



Iker Salaberria txapelduna eta Eguiguren V.a txapeldunordea. UTZITAKOA



Paxaka txapelketako lau hirukote onenak, Laxoa elkartearekin. ONDIKOL

Oizko hirukotea nagusi XXIII. paxaka txapelketan

Zelaieta-Bereau Zelaietak 9-4 irabazi zieten Iruritako Urrutia-Mindegia-Dorregarairi azaroaren 20ko finalean

TTIPI-TTAPA IRURITA

Laxoa Elkartek Nafarroako Pilota Federazioaren laguntzaz antolatutako Nafarroako XXIII. Paxaka txapelketako finala jokatu zuten azaroaren 20an, jendez gainezka zegoen Iruritako Aranabia pilotalekuan. Lehen fasean nagusi izandako Oizko hirukoteak, Ioritz Zelaieta, Iker Bereau eta Laurendi Zelaietak osatutakoak, 9-4 irabazi zion hasita Iruritako Oscar Urrutia, Mikel Mindegia eta Pablo Dorregarairi.

Oiztarrek nagusi izan ziren partida polit batean. Lehenbiziko lau jokoak Malerreka-koek egin zituzten eta hor oinarritu zuten garaipena. Iruritarrak hurbildu ziren, baina beti gibeletik izan ziren markagailuan. Beharbada txapelketa osoko partida gehienetan izan den emozioa faltan izan zuen finalak.

Aitzinetik, hirugarren postua jokoa izan zuten B taldeak (Xabi Barberena iruritarra, Egoitz Prim iruritarra eta Juan Mari Maia elizondoarra) eta E taldeak (Manu Irigoien erratzuarra, Mikel Sagaseta iruri-



Iruritako pilotaria finalean. ONDIKOL

tarra eta Jabi Apeztegia doneztebarra). E taldea nagusi zuen, 9-3.

Beraz, lehenbiziko fasean sailkatu ziren bezalaxe gelditu ziren taldeak azken sailkapenean ere. Txapelketa osoan izan den berdintasuna faltan izan zen azken partidetan, baina Laxoa Elkartea gustura dago Paxaka txapelketaren 23. edizioak emandakoarekin.

Orain, neguko atsedendiaren ondotik, udaberriaren Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 43. edizioari ekinen dio Laxoa Elkartek, baita gazte eta gaztetxoaren txapelketei ere. Zuzen bidean, 2023ko udazkenean Nafarroako XXIV. paxaka txapelketa antolatuko dute.



Vicente, Etxeberria eta Saralegi podiumean, sari-emaleekin batera. ONDIKOL

Nafarroako zortzigarren txapela lortu du Iker Vicentek Donezteben

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Nafarroako lehen mailako aizkolaria txapelketaren finala jokatu zen ortziralean Donezteben. Espero bezala, Otsagabiko Iker Vicentek bere zortzigarren txapela jantzi zuen. 33 minutu eta 10 segundo behar izan zituen hamar enborrak mozteko (lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko), eta bortz minutu baino gehiago aldea atera zion bigarren izan zen Zigako Joxean Etxeberriari (38.34). Podiumaren hirugarren kokara Errazkin-go Eneko Saralegi igo zen (40.28). Iaz Beintza-Labaien jokaturako finaleko podiuma errepikatu zen, beraz.

Arribeko Txomin Amundarainek eta Ibai Soroak lehen parte-hartzea zuten finalean eta laugarren eta bosgarren izan ziren. Amundarainek 42 minutu eta 40 segundo behar

izan zituen lanak burutzeko eta Soroak 44 minutu eta 8 segundo.

Zortzigarren txapel honekin, Donato Larretxearen marka berdindu du Iker Vicentek. Floren Nazabalek Nafarroako bederatzi txapel jantzi zituen eta Mikel Mindegia hamar. Beraz, esku-eskura du marka horiek Vicentek, batez ere 25 urte bertzerik ez dituela kontuan hartuz.

Sari banaketan Leire Ortuoste Doneztebeko alkatea, Jon Telletxea eta Patxi Larretxea Nafarroako Herri Kirol Federazioko ordezkariak eta Miguel Angel Pozueta, Nafarroako Kirol Institutuaren zuzendaria izan ziren.

Txapelketa ofiziala hasi baino lehen eta ondotik, harri altzatze erakustaldia eskaini zuten Lierni Osa eta Mikel Lopetegi *Urra* zarauztarrek.

Urrezko Aizkolarien Kopako saioa Urdazubin abenduaren 8an

Iker Vicente berriz ere eskualdean lehiari ikusteko aukera izanen dugu. Abenduaren 8an, ortzegunean Urdazubin jokaturako da Urrezko Aizkolaria Kopako finalaurreko kanporaketa. Otsagabikoarekin batera, Julen Gabirondo (Urnieta) eta Julen Larrea III.a (Barakaldo) ariko dira abenduaren 31n Asteasun jokaturako den finalerako txartel baten bila. Aizkolariekin batera, gizonezko harri altzatzaileak binaka eta emakumeak lau kirolekin ariko dira. Info + 57. orrialdean.

ABENDUAK 1 - 22

INFORMAZIOA BIDLATZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARESO Euskararen eguna

Diana, euskararen aldeko murala, jokoak, kontzentrazioa, bazkaria, ipun-kontaketak, proiektzioa eta azoka. Abenduaren 3an, 10:00etan hasita.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE Bertso afaria

Santamarian, abenduaren 2an. 19:00etan triki poteoa.

SARA Zazpiak bat dantza taldearen 50. urteurrena

Kiroldegian, abenduaren 3an, 18:00etan.

IRURITA 'Intxaurra' antzerkia

Gizarte Bilgunean, abenduaren 3an, 19:00etan.

Iruritako Dantzarien Eguneko ikuskizuna

Frontoian, abenduaren 10ean, 18:00etan.

'Bolante baten historia' dokumentala

Gizarte Bilgunean, abenduaren 16an, 19:00etan.

LEITZA Zinema

Herri Aretoan, abenduaren 3an eta 4an. 16:30ean 'Nire zirkua' eta 19:00etan 'Black is beltza II, Ainhua'.

'Hondamendia' antzezlan

Herri Aretoan, abenduaren 11n, 19:00etan.

URDAZUBI Herri kirol festa

Pilotalekuan, abenduaren 8an, 12:00etan.

EZKURRA Triki bertso afaria

Barrankan, abenduaren 10ean.

GOIZUETA 'Aho bete hortz' Ekain pailazoarekin

Udaletxeko ganbaran, abenduaren 10ean, 18:30ean.

AZOKAK

ELIZONDO Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, abenduaren 3an, 6an eta 8an, goizez.

LESAKA Lesakako Zerbitzuen Elkartearen azoka

Abenduaren 4an.

Argitsu elkartearen azoka

Abenduaren 18an.

ERRATZU Erratzuko artisauak

Plazan, abenduaren 4an eta 18an, 11:00etatik 15:00etara.

DONEZTEBE Santa Luzia eguneko azoka

Abenduaren 11n.

BERA Bertako ekoizleen merkatua

Beralandetan, abenduaren 10ean, 10:30etik 13:30era.

MUSIKA

ZUBIETA Piz&Lohi jaialdia

Abenduaren 2an eta 3an.

LEITZA Jeiki Abesbatza

Herri Aretoan, abenduaren 3an, 12:00etan.

LESAKA Nafarroako Eguneko kontzertua

Elizan, abenduaren 3an, 12:00etan.

Lesakako Abesbatza

Elizan, abenduaren 18an, 12:00etan.

SENERE Talaya Quartet

Elizan, abenduaren 4an, 17:30ean.

Mathieu Sempere

Larrekon, abenduaren 10ean, 21:00etan.

SOLASALDIAK

AMAIUR 'Amaiur bat urtero' liburaren aurkezpena

Otsondo gelan, abenduaren 2an, 19:00etan.

BERA 'Uscaldunak garen ezquero 2022'

Beralandetan, abenduaren 2an, 18:00etan.

ELIZONDO Batzar Nagusiko Zigaren koadroen bisita gidatua

Abenduaren 6an, 11:00etan eta 12:00etan.

'Fluyendo' liburuaren aurkezpena

Arizkunenean, abenduaren 9an, 19:00etan.

SENERE 'Anai artea 1969-2021 elkartearen historia'

Larraldean, abenduaren 9an, 18:00etan.

Nire aukera

«Lurra eta ingurumena zainduz bakarrik ulertzen dugu baserriko lana»

OIHANA IRAOLA ETA IURGI GOIKOETXEA LEITZAKO GAZTEAK



«Basoa, mendia, animaliak eta lurra» maite dituzten 30 eta 34 urteko gazte leitzarrak dira Oihana Iraola Urkiola eta Iurgi Goikoetxea Irigoien.

Iraolak «basoan ibiltzea, irakurtzea, musika entzunez baratze lanak egitea eta loreak zaintzea...» du gustuko. Goikoetxeak, berriz, «natura eta animaliak» ditu zaletasun.

Aresoko Iruñegi baserria hartua du bikoteak, eta baratzean zein aziendarekin lanean aritzen dira bertan; «hasiera berri batean gaude, urte batean aldaketa asko izan ditugu. Gure bizilekua eta lantokia zena utzi ditugu, baserri bat erosi eta konpondu dugu, gure kabia atondu eta gure elikagaiak sortzen segitu dugu. Orain begirada etorkizunean jarri ta dugu».

Ametsetako bizimodua

Bi urteko prozesu baten ondoren ailegatu ziren Aresora; «baserri dezente ikusi ondoren, Iruñegi guretzako aproposa zela ikusi genuen lehenbiziko egunetik: baserria txikia da, gure familia, lagun eta ingurukoen bizilekutik gertu dago eta amesten dugun bizimodua erakitzeke baldintzak betetzen ditu».

Hala ere, lehenagotik esperientzia dute baserriekin; «Intzako Orixenea baserrian bizi izan gara bost urtez, Araitz bailaran».

«AHUNTZAK IZUGARRI GUSTATZEN ZAIZKIGU»

Bost urtetan «asko ikasi genuen. Zer eta nola egin nahi dugun ikusi eta ikaste-ko balio izan zigun eta erabaki hau hartzeko indarra eman zigun».

Baratze ekologikoa

Bigarren urtea dute Iruñegin baratzearekin eta «denetik» lantzen dute bertan, baina oraindik «gauza bakoitza nola egokitzen den» probatzen ari dira. Izan ere, «kilometro gutxiko aldea badago ere, zeharo aldatzen da baratzea Intzatik Aresora». Momentuan, «hiru familientzako baratzea» egiten dute, «udan eta udazkenean kontserbak egiten ditugu eta soberakinak saldu egiten ditugu».

Ekologikoan lantzen dute lurra: «ez dugu herbizida, intsektizida ezta ongari kimikorik erabiltzen, gure azien- den ongaria baizik. Guretzat garrantzitsua da jaten dugun hori guk sortzea, eta sortzen dugun hori osasuntsua izatea».

Bere arriskuak ere baditu, baina merezi du; «urte batean ekoizpenaren zati bat gaitzen batengatik galdu behar badugu, nahiago dugu galera hori onartu erremedio kimikoren bat erabili baino. Lurra eta ingurumena zainduz bakarrik ulertzen dugu baratze lan- jarria».

Ahuntzekin lanean

Baratzeaz gain, ardiak, ahuntzak, txerriak eta hegaztiak dituzte baserrian. «Estentsi- boan ari gara, baina asmoa epe motzean ekologikoan aritzea da. Ekologikoa pro- zesu bat bezala ikusten dugu,

pausoz pauso lortu beha- rreko helburu bat.

Momentuz, antxumeak eta arkumeak saltzen dituzte. «Urte hauetan ikusi dugu izugarri gustatzen zaizkigu- la ahuntzak. Urteetan pix- kanaka osatu genuen baso- ko ahuntz-taldea saldu eta esnetarako ahuntzak erosi genituen duela bi urte».

«Ilusio handia» dute ahuntz esnearekin zerbait egiteko, «momentuz gazta egiten ikasten ari gara eta lehenen- goak probatu ditugu».

Produktuak plazara era- mateko unea

Orixenea baserrian zeude- nean, «Leitzako azokara joaten ginen ostiralero baraz- kiak saltzera. Oso experien- tzia aberasgarria zen, jen- dearekin harremanak egin eta gauza asko partekatzen genituen. Gainera, azoketan produktuari dagokion balioa ematen zaio».

Momentuan ez dute azo- ketan parte hartzen, baina bi urteren ondotik Leitzako eta Aresoko produktuen VIII. azokan izan dira azaroan, «batez ere Iruñegi aurkezte- ko eta jendearekin berriz ere harremana berrartzeko».

Etorkizunera begira

Iraolak eta Goikoetxeak argi dute; «baserritik bizitzea ez da inoiz erraza izan, eta gaur egun, ere ez. Baina gustuko tokian aldarrik ez».

Bidea «ederra» izaten ari dela diote, «eta guretzat eta ingurukoentzat elikagai osa- suntsuak gure eskuekin sor- tzeak betetzen gaitu».

Etorkizunera begira «proiektu txikiren bat martxan jartzeko asmoa» dute, «bai- na momentuz ideia besterik ez da».

Azkenik, «eskerrak eman nahiz dizkiegu bide honetan lagundu, animatu eta babes- tu gaituzten guztiei. Berezi- ki, gurasoei».

«ELIKAGAIK GURE ESKUEKIN SORTZEAK BETETZEN GAITU»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



IGANTZI. 85 m²ko pisu zaharbertua salgai: 3 logela, egongela eta sukaldea bizbat eginak, bainugela 1, balkoia, trastelekua eta garajearekin. Argitsua. Interesatuak goiz eta arratsaldean deitu. 649 11 06 11.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaez. 647 58 81 63.

BERA. Agerra auzoan, berritzeko dagoen pisua salgai. 75m² ditu erabilgarri, sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela eta 2 balkoi, baita igogailua ere. 637 88 14 79.

DONEZTEBE. Bi logela duen 70 m²ko pisua salgai. Margotua eta saltzeko prestatua. Badu atikoa komunarekin. Hirugarren pisua, igogailurik gabe. 108.000 euro. 687 63 27 37.



25 m² + 10 m²-ko portxea eta 3 m-ko altuera duen egurrezko etxe modular sendoa (90 milimetroko lodiera) salgai. Sunbilla Ariztigain kanpinean kokatua. Arrazoa: Ez digutelako partzela berritzen. 18.000 eurotan salgai. Desmuntatzea eta garraioa eroslearen kontu. Partikularra. 679 42 36 07.



OIZ. 300m²ko bi bizitzako etxea salgai, 342m² ko partzelarekin. 5 logela eta 44,8m²ko garajea. Bizitzeko prest. Aukera polita. Prezioa 330.000 euro. 687 63 27 37 (Eli).



IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPA ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik



SALDIAS. 2012an eraikitako 2 solairuko etxea salgai. 4 logela, 3 bainugela, egongela, sukaldea eta garajea. Portxea eta etxea inguratzen duen lorategia. Argitsua. 669 20 59 70 / 677 68 66 88

ERRENTAN HARTZEKO

DONEZTEBEn bi urte daramatzen familia batek etxea errentan hartuko luke Donezteben bertan, inguruan edo Bortzirietan. 682 77 06 41 / 662 50 42 98

KONPARTITUAK

DANTXARINEA. Pisu batean logela konpartitzeko dute. 250 euro hila-betean, argia eta gasa aparte. 678 07 66 65.

LANA

ESKAINTZAK

BEHOBIA. Faisan ostatuan zerbitzari bila. Langile taldea handitzeko. Lanaldi osoa. 629 47 25 89.

BERA. Ansoa jatekxan sukaldera behar dute egun osoko lanaldian aritzeko. Interesatuak deitu edo eraman curriculum bertara. 649 33 77 23.

ULTZAMA. 1. edo 2. mailako zurgin ofiziala behar dute lanerako. Orduetgia: Asteleheneretik ortzegunera 08:00-16:30 bazkaltzeko 30 minutu geldituta. Ortziraletan 07:15-14:30 gosaltzeko 15 minutu geldituta. Bidali curriculum info.cmadera@gmail.com helbidera.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,06
- 1.koa 4,94
- 2.koa 4,82

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,17
- 1.koa 5,03
- 2.koa 4,92

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,94/5,04
- Zaldi-behorrak 2,26/2,43

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 9,60/9,70
- 8-10 kilokoak: 7,70/8,40

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 65 €

Zerri gizona 1,645 €

Zerramak 0,760€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

ESKARIAK

Emakumea lan bila. Adinekoak edo haurrak zaintzen, etxeko lanak egiten... aritzeko prest. Orduka edo interna. Esperientzia adinekoak zaintzen, atzerrian eta inguruko herrietan. 624 36 02 71 (Iveth).

Emakume bat adinekoak zaintzeko lan bila Bortzirietan. Esperientziaduna, externa edo interna moduan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko moduan. 603 43 41 11.

Emakumezko batek adinekoak zaintzen lan eginen luke. 688 64 70 26.

Batxilergo ikasketak dituen neska gaztea edozein lanetan aritzeko prest: garbiketan, haurrak zein adinekoak zaintzen egunez zein gaez... Lanean hasteko moduan. 688 64 70 26.

ANIMALIAK

SALGAI



Zerriak salgai, mini pig arrazakoak, hainbat neurritakoak. Barazki, fruta eta artoarekin haziak. 50 eurotik aurrera. 646 67 51 70.



BAZTAN. Collie arrazako txakurkumeak salgai. Oso-oso politak. 50 eurotan bakoitza. Txikiak 30 euro. 636 18 15 46.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. 690 08 56 65.

Transbidasoan bazkide plaza salgai, merke. Madrilgo ibilbidea. 618 96 26 11.


**IBILGAILUEN
ALOKAIRUA**

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**

O-Car
by Europcar

DONEZTEBE - T. 948 450 282
info@taileressantesteban.com
www.taileressantesteban.com

DC
BASIA



Jangelako altzariak salgai, estilo rustikoa. Mahaia (bi luzapen), sei aulki eta bi komoda. Egur trinko-koak. Egoera ezin hobean. Neurriak: Mahaia: 100 x 115/160/205; komoda bat: 198 x 56 x 98 eta bertze komoda: 157 x 52,5 x 98. Prezioa: 700 euro. Argazki gehiago bidaltzeko aukera. 629 65 65 42.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. 629 45 14 26.

BERTZELAKOAK

DONEZTEBE. Instalazioak eta etxera gasolioa banatzeko kamioiak errentan hartzen dituzte. 948 45 02 72.


URTEBETETZEAK



Noak azaroaren 9an eta **Julenek** azaroaren 15ean urteak bete dituzte. Zorionak etxeko guzien partez bi pottokoei. Egun politak pasatu izana espero dugu. Muxu potoloak bioi Lesakako eta Irungo familien partez.



Igantziako **Oinatz** eta **Aiala Seinek** abenduaren 3an eta 10ean 9 eta 5 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko errege eta erreginari familia guziaren partetik! Muxu potollo pilaaa!!



Inge Leoz Apezetxeak 4 urte bete ditu azaroaren 28an. Zorionak Inge Arantzako eta Hondarribiko familia guziaren partetik!



Sunbillako **Isabel Inda Arregik** azaroaren 18an 103 urte bete ditu. Zorionak amabixi, 103 urte zurekin opari bat da guretzat. Maite zaitugu!



Aunitz urtez **Intza!** Abenduaren 5ean 10 urte beteko dituzu eta musu haundi-haundi bat etxekoan eta familia guziaren partez. Ongi pasa zure eguna!

SORTZEAK

• **Haritz Laxagueborde Goñi**, Sarakoa, azaroaren 1ean.

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad
www.kulturkari.com

2023ko egutegiak

Hainbat modelo
Sakelakoak, paretan jartzekoak, mahai gainekoak, posterrak, hozkailuko imanak, CD...

OROIGARRIA

**Pablo
IRASTORZA UGALDEBERE**

Irunen, 2022ko azaroaren 15ean, 70 urte zituela

*Beti irribarrea zenuen lagun min
gauza denen gainetik aitzinera ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.*



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Pablo
IRASTORZA UGALDEBERE**

TTIPI-TTAPAKO berriemaile izana



*Momentu gogor hauetan
famiaren saminarekin
bat egiten dugu.*



HILBERRIAK

- **Jean Michel Forestier**, Sarakoa, urriaren 12an, 73 urte zituela.
- **Marcos Irigoien Prieto**, Elizondokoa, azaroaren 12an, 88 urte zituela.
- **Jose Manuel Salaberria Biurrarena**, Sunbillakoa, azaroaren 15ean, 70 urte zituela.
- **Pablo Irastorza Ugaldebere**, Irunen, azaroaren 15ean, 70 urte zituela.
- **Estefania Bergara Mendiburu**, Zugarramurdikoa, azaroaren 17an, 78 urte zituela.
- **M^a Dolores Rekarte Irigoien**, Elizondokoa, azaroaren 18an, 84 urte zituela.
- **Jose Luis Indabere Telletxea**, Legasakoa, azaroaren 19an, 81 urte zituela.
- **Julia Irigoien Irigoien**, Berakoa, azaroaren 20an, 78 urte zituela.



**BAZTAN
BIDASOA**
Heriotza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades
www.kulturkari.com
Tel. 948 63 54 58

Oroigarriak

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira




IZARRA
HERIEN, ZURE ONDOAN
ANIMA ETXERAT

Gure burra,
gure jendea,
gure sustraiak






TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



centrocomercialmendibil.com

Mendibil
centro comercial
merkataritza gunea

ZURE GABONAK!

PARKING MERKATUA BM BURGER KING Bershka ZARA IKEA TimeRoad GAME

ZURE MERKATARITZA GUNEA IRUNGO ERDIGUNEAN



BIZIBERRI
NAVARRA REHABILITA

BIRGAITU SAKONKI, BIZIBERRITU ZURE AUZOA

Eskatu orain, hiri- eta landa-inguruneetan etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze energetikoari ekiteko europar laguntzak. Informazioa www.vivienda.navarra.es webgunean

Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzakua
NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA

Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

2030

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Keskuntako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

818 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Bixente Goia Etxebeste | BERA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Luis Irungarai Arniz | NARBARTE

Arkupe - Lote bat
Josefa Loiarde Elizalde | ZUBIETA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Camino Ordoki Larretxea | ARANTZA

BKZ Abentura - Sarrera bat
Xabier Zabaleta Zubeldia | LEITZA

Lesakako kiroldegia - Bi sarrera
Iñaki Beola Gorosurreta | ZUGARRAMURDI

Izar Park - Sarrera bat
Igone Goikoetxea Uzkudun | ARESO

Elkar - Bi liburu
M^a Isabel Dendarrieta Eizaguirre | LEKAROZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA
www.saltngcenters.com



Bi sarrera

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

IRRISARRI LAND
www.irisariland.com



Sarrera bat

ELIZONDO
www.giltxaurdi.eus



Bi sarrera

IZAR PARK
www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



Liburu bat
eta txartelak

ikasElkar
www.ikasElkar.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.erein.eus



www.mendukilo.com